

William Shakespeare

Hamlet

euskaratzailea: Juan Garzia Garmendia

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Juan Garzia Garmendia.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 2002

Jatorrizkoaren data: 1599

William Shakespeare euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=160>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=106>

HITZAURREA

Hau Hamlet da. Shakespearerena.

Ausardia litzateke, euskal itzultzailearen aldetik, zerbait berria erantsi nahi izatea autoreari edo obrari buruz. Bestek esanaren sintesi bat saiatzea ere eginbide zaila da: elementia gauza esan eta idatzi da, eta askotariko, gehiegitarikoak apika. Hitzak, hitzak, hitzak: hori ere Shakespeareren beraren testuan dago, Hamlet-ek berak esana.

Ez baita, haatik, bakarra *Hamleteko* Hamlet hori: askatu egin zen pertsonaia aspaldi testuaren mugetatik, eta mito unibertsalen errepertorioan du geroztik bizileku. Hori ere zabalegia zaio hitzaurre honi. Hala, bete-betean ezinezkoa dela jakinik ere, testu hutseko Hamlet zehatzagora gonbidatu nahi luke irakurlea. Pertsonaiaren mitifikazioa, haren interpretazioak eta are ospea bera, ahantzirik ez bada, alde batera utzirik bederen apur batez.

Izan ere, pertsonaia dramatiko oro bezala, bere hitz eta ekintzen batura baino ez da Ham-

let. Haren pentsamenduak, hitz-ekintzotatik atera behar ditugu. Eta ezin gaitezke ziur egon zuzena ote den gure interpretazioa. Ezta pertsonaia bere buruarekin bakarka ari denean ere: nork berma diezaguke ez duela bere burua engainatzen halako bakarrizketa sarrietan? Izan ala ez izan (eta are izan eta ez izan, batera): ez da zer harriturik, gero, zatietatik osotasunera, guztia edo gehiena gertatzen bazaigu interpreta-zio bakar segurura ekarri ezina. Eta are pertsonaiak ez badirudi —edo ez bada— beti pertsona bera. Hamlet, bereziki. Besteak beste, eta alda-ketak aldaketa, ez baita erraza bereizten noiz hala den, izan, eta noiz itxura egiten ari den soilik. Eta ez zoroarena egiten duenean bakarrik. Kasurako: antzerki egiten ari deneantxe ez ote da ari serioen? Eta, horretaz gero, nork esan du antzerkia, tragedia zein komedia, serioa ez denik, bestela ere?

Ez fidatu, ez: pertsonaien hitz eta ekintzak baino ez dituzu. Eta zer nahi zenuen, bada: zer duzu, antzerkian bezala, bizitzan ere? Fikzio fik-ziozkoagoek baino ez dizute emango pertsonaia-ren erretratu *fidagarri*gorik: beste norbaiten

interpretaziotik iraganik, noski, eta, funtsean, autorearenetik. Autorearen sinetsiz gero, egiazkotzat jo dezakegu hark dioskuna (gezur ez bada *artifizioa*), baina autorearen berri ematen digu horrek (pertsonearen pentsamenduez pentsatzen duena, nolabait esateko), eta ez du *fidelago* biltzen pertsonaia bera: hura, berriro esan dezagun, bere hitzak eta ekintzak *da*. Bere *aktuzioa* da, hain zuzen, pertsona(ia).

Kontuak kontu, antzerkian eta bizitzan, pertsonaia interesgarria ez da pieza batekoa. Hamlet ere, eta berdin *Hamlet*, pieza askoren *puzlea* da (ohikoagoa da hori bizitzan antzerkian baino, antzerkiaren kalterako). Genero eta erregistro guztien bildumatzat jo izan da beti obra hau, *summa* dramatikotzat. Pertsonaia, berriz, patu tragiko eta guzti, marroka jolasten ari ote den pentsa liteke; beste pertsonaiekin, eta gurekin ere bai. Esanez bezala: ez nauzue harrapatuko; atzeman nauzuela uste duzuenean, beste nonbaitetik irtengo naiz. Are: aldakortasun atzeman-gaitz hori izango naiz (zu bezala). Hamlet.

Beste ikuspegi batetik, baina aldakortasun horrekin zeharo loturik, esan liteke kontzientzia-

ren zalantza dela Hamleten drama. Eta kontzientzia hitza bietara hartu behar da hor: oharmena, batetik (objektiboaren eta subjektiboaren arteko lotura), eta zentzu moralak, bestetik (norberaren jokabidearen barne-epailea).

Gauzak konplikatzeke —eta ez antzerkian bakarrik—, inoren jokabide moralak moralki epaitzeko, haietaz *ohartu* behar genuke aurretiaz, eta hor ezin aurkitu objektibotasunaren sostengurik.

Lehenbiziko zalantza, beraz, jokabidea erabakitzeko kinkan, ez da erabakiari berari buruzkoa, datuei buruzkoa baizik. Halaxe Hamletena.

Bigarrena, berriz, gure *barne-ahotsa* (gure mamu zein ispiluko irudiena, alegia) fidagarri ote zaigun.

Hala, Hamletek ere, bere buruarekiko ispilu jokoetan galtzea gora-behera, mamua bederen —*kanpotikoa* izaki *objektiboagoa* irudi— zinezkoa ote den jakin nahi du, eta dirudien hura ote den (parte txarrekoa ala onekoa; hots, Hamletentzat, beraren aitaren izpiritua denentz bentean).

Jakina, kontzientziaren zalantza horrek ez du jotzen tragediaren hari nagusia soilik, guzti-guztia baino. Hamletek maite zuen eta ez zuen maite Ofelia; eta *maite izan* hori, objektibatzeko orduan, hitz bat baino ez da, berritsu zein mutu.

Hala, ez da harritzekoa Hamlet izatea bere buruarekin gehien hitz egiten duen pertsonaia (*kontzientziarik zabalena*, tradizio kritikoak azpimarratzen duenez) eta, aldi berean, ondorio baliagarri gutxien ateratzen duena. Kontzientziarik blokeatuena, alegia, bere inertziaz, ekintzarako bederen. Azkenean zerbait *egiten* duenean ere, pasiboa da jokabidea: patuak berarengan obratzea onartzen du, berak deliberatuki zirt edo zart ekitea baino. Kontzientziak ekintzarako desbaliatzen gaituela ere atera daiteke noski hortik, eta ez dabil hortik urruti modernitatearen *pathosa*: ekintzarik gabeko kontzientzia ala kontzientziarik gabeko ekintza, horra auzia.

Halako paraderoan, ulergaitz gerta liteke azken-azkenean Hamletek ageri duen kezka bakarra bere izen onari buruzkoa izatea. Hori ere, ordea, antzinako heroi tragikoen legea bezain, bizitza taigabe literaturizatzeraz garama-

tzan bulkada betierekoaren isla da noski: galduak galdu eta etsiak etsi, gure bertsioak iraun dezala (Fortinbras da kontrafigura, eta hark ere berea du: gudari-ohoreak emango dizkio Hamletti).

Libre da, hala ere, *Hamleten* irakurlea —edo ikus-entzulea, antzezte konkretuak uzten dion neurrian— garaien gaisetiko hausnarbide sotilotan barrentzeko, hala nahi izatera, edo eta Shakespearerentzat ere primitibo, arkaikoa zen garai bateko odol-kondaira ikaragarrian laketzeko, besterik gabe. Bi hartzaile mota horientzako zein guztientzako, bada bazka, orduan eta orain, eta mekanismo dramatikoak ederki funtzionatzen du edonola ere.

Aurki liteke inkoherentziaren bat, objektiboa kasu batzuetan, testuan (ganadua dira erduditokak, gero, horretarako!), baina horrek ez dio kalterik egiten emozio-kateari, eta bai mesede, kasuren batean: ikusleek, simple zein sofistika-tuek, badakite zeren bila doazen antzerkira, eta ia edozer *barkatzen* dute horren truke. Eta akto-reek ere beti jakin dute noski zer nahi duten eta zergatik (zeinek bere arrazoia duela): galdetu,

bestela, eta *Hamlet* esango dizute guztiek: Hamlet bana.

Eta itzulpena? Halako testu sakratuaren itzulpena? Hor ere, kontzientzia hutsak behar zukeen ekintza eragotzi: zenbat eta buelta gehiago eman, orduan eta itzultzetik urrunago. Baina hori, aldeaz edo moldez, gauza guztiakin gertatzen zaigu. Horixe izan, nonbait, gizakion patua: pentsatuagatik, egin egitea hala ere beti zerbait.

Egina bera dezadan, bada, desenkusa, eta ez egin izana.

Bat. Hau ez da edizio kritikoa, halakoez baliaturik moldatua baizik. Aukeratu behar izan da, bada, testuaren aldaeretatik hasi eta interpretazio-arazoetaraino. Amaierako oharretan doaz, eranskinean, beste bertsio nagusitik sartzeke geratu direnak.

Bi. Hizkuntza-ereduaren aldetik, batu estandarra eta koherentzia hausteke, tonu-joko askotarikoak islatzen saiatu da itzultzailea. Konbentzio batzuetan, gogortxo egin dakioke irakurle-
ren bati. Esaterako, tratamendu-sistema (hika/zuka) solas berean aldakorra, hori ere gorde nahi izan baita jatorrizkotik, aldeak alde.

Klaudio erregearen «gu» maiestatikoa ere gorde dugu, eta berorikako tratamenduaz ere baliatu gara hala zegokionean. Horretan eta guztian, hautuak ohartuak eta hausnartuak direla beste zuribiderik ezin alega dezake bertsio honen egi-leak.

Hiru. Joskerari dagokionez, nabarmena gertatuko zaio inoizka hegoaldeko irakurleari aditzaren sintaxi-jokoa. Iparraldeko joera, hain zuzen —alegia, besteak beste, aditz laguntzailea aurre-ratzekoa—, ederki egokitzen da jatorrizkoaren joskerarekin eta bilatzen genuen erregistroarekin, eta bide horretatik jo dugu (*germaniar* kutsu pixka bat ere hartu digu horrenbestez, eta ez dirudi gaizki).

Lau. Hitz-lau arruntetik neurtitz berezirainoko gradu guztiak aurki baitaitezke obran, ñabartasun hori ere nolabait gordetzen ahalegindu gara. Nagusi den endekasilabo (ianbiko) zuria bere horretan emateari gehitxo iritzirik, neurri erregularrik gabeko tirada hala ere bertso-taxuzkoetan eman ditugu halako pasarteak, tonuz ere aski bereizten direlakoan prosaikoagoetatik. Dena dela, eutsi egin diegu eszena-erremateetako

pareatu sarriei, lautu dugun neurtizkeraren zantzu gisa, 5/5//8 neurrira egokiturik. Barneantzezpenaren kasuan, berriz, pareatu-katezko moldea gorde dugu, 11/10 neurrian, desberdintasuna markatu beharrez. Zuzen asmatu dugun gora-behera, bistakoa zen, guretzat, guztia prosa estandarrez ematea traizio latza zatekeela.

Han-hemenkako moldaera, egokitzapen eta are asmazioez ere luze mintza gintezke, baina ez dirudi hauxe denik lekua, eta dagoeneko zain dauzkagu, gainera, antzezleak, pertsonaiak, Elsinoreko gizaki-mamuak, eta haiena da txanda.

Azken hitza, hala ere, beste izpiritu biren gomutaz; alegia, aurretik, eta orduko baldintza kaxkarragoetan, Hamlet hau bera, zeinek bere erara, bikain euskaratu zuten aitzindarien gorazarrez: Ametzaga'tar Bingen (1952) eta Larrakotxea'tar Bedita (1976). Haienetatik hona aurre-rabiderik bada, euskararena berarena da, eta itzulpen-kulturarena, eta ez itzultzaile honena noski: zer ez lukete egingo gure zaharragook, gure lotsagarri, oraintxe gure artean baleude!

Juan Garzia Garmendia

Pertsonaiak

- HAMLET**, *Danimarkako printzea, izen bereko errege hilaren eta Gertruderen semea*
- HORAZIO**, *eskoladun txiroa, Hamleten lagun eta isilentzulea*
- MAMUA**, *Hamlet errege zaharraren irudi bizia*
- KLAUDIO**, *Danimarkako errege, Hamlet zenduaren anaia*
- GERTRUDE**, *Danimarkako erregina, Hamlet zaharren alargun eta Klaudioren emaztea*
- POLONIO**, *Danimarkako gorte-arduradunetarikoa*
- OFELIA**, *Polonioren alaba*
- LAERTES**, *Polonioren semea*
- REINALDO**, *Polonioren zerbitzaria*
- ROSENKRANTZ**
- GILDENSTERN** *gorte-gizonak, Hamleten eskola-lagunak*
- VOLTEMAND**

KORNELIO *Daniar gortearen Norvegiako
enbaxadoreak*

OSRIK, *gorte-gizon maneratu*

FRANTZISKO

BERNARDO *soldaduak*

MARTZELO

LEHEN ARLOTEA, *lurperatzailea*

BIGARREN ARLOTEA, *lurperatzailearen
laguntzailea*

APAIZA

FORTINBRAS, *Norvegiako printzea*

KAPITAINA, *Fortinbrasen gudarostekoa*

MEZULARIAK

MARINELAK

INGELES ENBAXADOREAK

GORTEKO JAUN-ANDREAK

ZAINDARIAK

DANIAR JENDEAK, *Laertes aldekoak*

LEHEN ANTZEZLEA, *talde-burua (erregearen
papera egiten du «Gonzagoren hilketa»
antzerkian)*

BIGARREN ANTZEZLEA (*erreginaren papera egiten
du*)

HIRUGARREN ANTZEZLEA (*erregearen iloba
Luzianoren papera egiten du*)

LAUGARREN ANTZEZLEA (*antzerkiaren hitzaurrea
esaten du*)

FRANTZISKO sartzen da, guardian dagoen zaindari bat, eta gero BERNARDO.

BERNARDO

Nor da hor?

FRANTZISKO

Ez: zuk erantzun niri. Geldi hor, eta zeure burua emazu ezagutzera.

BERNARDO

Bizi luzea erregeri!

FRANTZISKO

Bernardo?

BERNARDO

Bera.

FRANTZISKO

Ondo garaiz hator, hala ere.

BERNARDO

Oraintxe jo ditek hamaikak. Segi ohera, Frantzisko.

FRANTZISKO

Txanda hartzeagatik milesker. Hotz latza duk
hemen, eta bihotzeraino joa nagok.

BERNARDO

Guardia lasaia izan al duzue?

FRANTZISKO

Sagu baten zirkinik ere ez.

BERNARDO

Gau on, bada.

Topo egiten baduk Horazio eta Martzelo
ene beilakideekin, bizkor etortzeko esaiek.

HORAZIO eta MARTZELO sartzen dira.

FRANTZISKO

Uste diat entzuten ditudala... Geldi! Nor da hor?

HORAZIO

Lur honen lagunak.

MARTZELO

Eta erregeren menekoak.

FRANTZISKO

Gau on dizuela.

MARTZELO

Kaixo, soldadu jator hori.

Nork hartu dizu txanda?

FRANTZISKO

Bernardok du hartu ene lekua.

Gau on dizuela.

Badoa.

MARTZELO

Ei, Bernardo!

BERNARDO

Esadak: Horazio hor al da?

HORAZIO

Zati bat behintzat.

BERNARDO

Ongi etorri, Horazio; ongi etorri, Martzelo jator hori.

MARTZELO

Zer, agertu al da zer hori ostera gaueon?

BERNARDO

Nik ez diat ezer ikusi.

MARTZELO

Horaziok zioke gure fantasia hutsa dela,
eta ez duela nahi sineskerian jausi,
birritan ikusi dugun lazgarri hori dela eta.

Horregatik hitzartu diat gurekin etor zedin
arreta guztiz egitera gau honen guardia,
hala, ikuskari hori berriro agertuz gero,
egiets ditzan gure begiak, eta mamuari hitz
egin.

HORAZIO

Utikan, ez duk agertuko.

BERNARDO

Eseri apur batez,
eta uzuk ostera ere hire belarriei erasotzen,
gure historiaren aurka hain gotorturik
baitauzkak,
gauotan biotan ikusi dugunaren kontakizunaz.

HORAZIO

Eser gaitezen, bada,
eta entzun dezagun Bernardo horretaz mintzo.

BERNARDO

Bart gauean, hain zuzen,
iparrekoaren mendebalera dagoen horrako izar
horrek
orain dirazekaneko zeru-alde hori argiztatzeko
bere ibilia egina zuelarik, Martzelo eta nerau,
ezkila ordu bata jotzen...

MARTZELO

Ixo, tenk egik. Horra non datorren berriro.

BERNARDO

Hil berri den erregearen itxura berean.

MARTZELO

Hi eskoladuna haiz; hitz egiok, Horazio.

BERNARDO

Ez al du erregearen antza? Ohar hakio, Horazio.

HORAZIO

Bete-betea. Larriturik niaukak izuz eta
harriduraz.

MARTZELO

Hitz egin lekion nahi likek.

MARTZELO

Galde egiok, Horazio.

HORAZIO

Nor haiz hi, gau aldi hau bahitzen baituk
eta orobat Danimarkako maiestate ehortziak
jantzi ohi zuen forma jator, gudulari hori.
Zeruarren agintzen diat, mintza hadi.

MARTZELO

Mindurik zagok.

BERNARDO

Horra, bazoak gugandik mutiri.

HORAZIO

Hago! Mintza hadi, mintza. Agintzen diat,
mintza.

Badoa MAMUA.

MARTZELO

Alde egin dik, erantzuteke.

BERNARDO

Hara, Horazio! Dardaraz hago eta zurbil.
Ez al da hau fantasia baino zerbait gehiago?
Zer deritzok?

HORAZIO

Jainkoaren aurrean, ez nezakeen sinets,
ez balitz tarteko, sentikor eta zintzo,
neure begion aitordpena.

MARTZELO

Ez al du erregeren antza?

HORAZIO

Hik heure buruarena adinakoxea.
Horrelakoxea zian peto-peto armadura
norvegiar gutziatsua gudukatu zuenean.

Horrelaxe zian behin zimurtu bekokia,
topaldi haserre batean poloniar leradunak
zituenean

izotz gainean porrokatu.

Harrigarria duk.

MARTZELO

Horrelaxe duk beste birritan, ordu mortu
honetantxe,

urrats gudulariz gure guardiaren aurretik mutiri
iragan.

HORAZIO

Zein pentsabide berezitatik jo ez dakit,
baina, oro har, iritzia emateko gai naizeno,
egundokoren bat iragartzen zaio gure
erresumari.

MARTZELO

Hots, eseri, eta konta biezat, dakienak,
zer dela-eta dituen honelako beila zorrotzak
honela gauero nekarazten erreinuko sujetak,
eta zer dela-eta eguneroko brontzezko kanoi
urtze

eta atzerritik gerrarako gailu ekartze taigabe
hau;

zer dela-eta ontzigitzara behartua hainbeste
jende,
lan latz horretan jaia eta astea bereizi gabe?
Zer ote da tartean, lehia izerditsu honek
gaua auzolankide bilakarazteko egunarekin:
nork eman diezadake horren berri?

HORAZIO

Neronek.

Hala zabilek, bederen, zurrumurrua: gure
errege zenari,

zeinaren irudia oraindik orain hor agertu
baitzaigu,

Norvegiako Fortinbrasek zioan, jakina denez,
bekaitz biziak harrokeria gaitza hartara
akuilaturik,

borrokarako aupada egin. Buruz burukoan,
gure Hamlet bihoztunak —halakotzat
baitzeukan

gure mundu ezagunaren alde honek—
herioz hil zian Fortinbras hori; zeinak, zaldun-
legeei

xuxen zatxekon itun zigilatu batez, biziarekin
batera,

bere eskupeko lur guztiak eman baitzizkion
garaileari.

Horren aldera, gure erregeak zian
pareko ordain-bahia ezarria,
zeina Fortinbrasen ondarrera bihurtu
baitzatekeen,
hura garaile irten balitz; hots, aipaturiko
itunaren arauz,
norvegiarrarena gure Hamleti egokitu zitzaion
bezala.

Bada, hara, Fortinbras gazteak,
soberako kemen beroz gainezka,
gizon lurgabe bipilezko saldo bat arrantzatu dik
Norvegiako bazterretan han-hemen, janari eta
sari truke,
edozein urdailentzat egina ez den ekinbide
baterako,
ez baita besterik —gure erresuman ondo
nabaria denez—
aipaturiko lur beraren aita zenak galduok
esku gogorrez eta bortxa bidez berreskuratzea
baino.

Eta hori duk, eiki, gure prestaketen zio nagusia,
gure beila honen sorburua, eta herri guztia

halako lehia larri eta jardun-behar bizian
agitzearen arrazoi nagusia.

MAMUA sartzen da.

Ixo, baina, geldi; horra non datorren berriro!
Bidera irtengo natzaiok, fundituko banau ere.

MAMUak besoak zabaltzen ditu.

Hago, ilusio hori.

Inolako soinu edo ahots gaitasunik baduk,
hitz egidak.

Egitekorik deus bada onik, hiri kontsolamendu
eta niri grazia ekar diezadakeenik,
hitz egidak.

Heure herriaren patuaren jakitun bahaiz,
eta agian aurrez jakiteak eragotz badezake
gaitzik,
mintza hadi!

Edo lurraren sabelean altxor bortxaz
eskuraturik
ezkutatua baduk heure denboran,

horrek baitzaituzte, omen, izpirituok hilik
ibilarazten maiz,
hitz egik horretaz; hago, eta hitz egik.

Oilarrak kukurruku jotzen du.

Geldi ezak, Martzelo.

MARTZELO

Aiztagaz joko dut?

HORAZIO

Jo, geldi ez badadi.

BERNARDO

Hemen duk.

HORAZIO

Hemen duk.

Badoa MAMUA.

MARTZELO

Joan duk.

Makur ari gaituk, hain maiestatetsua izaki
halako bortxa ageria erakutsiz,
zeren zaurtezina baita bera airearen pare,
eta gure ukaldi alferrok irribide gaizto.

BERNARDO

Hitz egitekotan zuan oilarrak kukurruku jo
duenean.

HORAZIO

Eta orduan asalduek dik hartu, nola erruduna
hotsegite larderiatsu baten aurrean. Entzuna
diat ezen

oilarrak, zeina goizaren turutaria baita,
bere eztarri ozen zorrotzaz duela,
egunaren jainkoa iratzartzen, eta, haren dei-
hotsera,

itsasoan nahiz suan, lurrean zein airean,
beren gordelekuetara biltzen direla
izpiritu bidegaldu eta herratuak; eta, horren
egiaz,

ikusi dugun hori duk frogabide aski.

MARTZELO

Oilarraren kukurrukuan aienatu duk.

Zenbaitek zioz ezen, gure Salbatzailearen
jaiotza

ospatzen deneko sasoi hori hurbildu ahala,
gau osoan diharduela kantari egunsentiaren
hegaztiak;

eta orduan, diotenez,

ezein izpiritu ez duk ausartzen irtetera,
gauak sanoak dituk, planetek ez ditek makur
jotzen,
ez amandreek ez sorginek ez ditek xarmatzeko
ahalmenik,
hain duk bedeinkatua eta graziaz betea aro
hori.

HORAZIO

Hala entzun diat, eta aldez halaxe sinesten ere
diat.

Hots emazue, baina: goiza, soingaineko
gorrixkaz jantzirik,
oinak ihintzetan, ekialdeko muino garai horren
gainetik
hor zatorrek.

Utz dezagun bertan behera gure beila, eta,
ados bazarete,
gau honetan zer ikusi dugun konta diezaiogun
Hamlet gazteari; zeren, ene biziagatik zin,
izpiritu horrek, guretzat mutu, hari hitz egingo
baitio.

Ongi al deritzozue printzeari honen berri
emateari,

maitasun zintzoz eta eginbide leialez
dagokigunez?

MARTZELO

Dagigun hala, otoi; nik goizeon baitakit
non aurki dezakegun hura xuxen-xuxen.

Badoaz.

Sartzen dira: KLAUDIO, Danimarkako erregea, GERTRUDE erregina, HAMLET printzea, POLONIO, LAERTES, OFELIA, jaunak eta segiziokoak.

KLAUDIO

Nahiz Hamlet gure anaia maitearen heriotzaren
oroipena
oraindik fresko egon, eta horrek zuzen ona
eman guri
bihotza doluz edukitzeko, eta gure erreinu
osoari
saminezko bekozko bakar batean biltzeko,
hala ere, hain gogor egin die zuhurtziak
sentimentuei,
non tristurarik burutsuenaz gogoratzen baitugu
hura,
geure buruaz eta erreinuaz ahantzi gaberik.
Hala, bestorduko geure arreba, oraingo geure
erregina,
erresuma gudulari honetako tronu-kide
inperiala,

dugu —alegia poz etsiz, begi bat zorion, bestea
negarrez,
hiletan bozkarioz eta pleinuz ezkontzeko
orduan,
atsegina eta dolua pisu berekotzat jorik gure
baitan—
geure emaztetzat hartu. Ez baitiegu entzungor
egin, orobat,
zuen aholku ezinago zuhurrei, gogo zabalez
emanak
auzi honetan zehar. Guztiarengatik, gure
eskerrak.
Orain, berriz, jakiteko duzuenez, Fortinbras
gazteak,
uste eskasean edukirik gure indar eta balioa,
edo bihotzeko gure anaia zenduaren heriotzaz
gure erresuma zatiturik eta nahasturik
dagoelakoan,
eta bere ametsetan abantailan kausiturik bere
burua,
etengabe gogaitu gaitu bere mandatuz,
alegia beraren aitak, guztizko lege onean,
gure anaia txit bihoztunaren kontra galdu
zituen lurrok

itzul diezazkiogun. Horraino, bada, hari
dagokiona.

VOLTEMAND eta KORNELIO sartzen dira.

Geuri dagokigunez, berriz, eta batzar aldi honi,
hona zertan den kontua: honako gutun hau
diogu idatzi

Norvegiako erregeari, Fortinbras gaztearen
osabari

—ohean ezindua, doi-doi jakin baitezake
bere iloba horren asmoen berri—, eragotz
dezan

hura aurrerago joatea, zeren lebak, kintak eta
abarrak

haren sujeten artetik egiten baitira.

Honenbestez zaituztet igortzen, zu,
Kornelio jator hori,

eta zu, Voltemand, mandatu hau diezaiozuen
Norvegiako errege zaharrari eraman, honako
hemen zehazturiko artikuluko biltzen duten
honetaz landa

harekin deusik tratatzeko beste areagoko
eskurik

ez duzuela.

Agur, bada, eta zuen lehiak beza froga enekiko zuen eginbidea.

(KORNELIO eta) VOLTEMAND

Horretan eta guztian gaude eginbidez berorregana.

KLAUDIO

Ez dugu inolako zalantzarik. Agur bihotzetik.

Badoaz VOLTEMAND eta KORNELIO.

Eta orain, Laertes, zer berri dakarzu zuk?
Zerbait eskabide aipatu diguzu: zer da, Laertes?
Danimarkako Erregeari arrazoibide onez
mintzaturik
ez duzu alferrik izango elea. Zer erregutu
hezake, Laertes,
ene eskaintza ez litzatekeena, hire eskea gabe?
Burua ez zaiok bihotzari kide hurbilago,
ez eskua ere ahoari lagun zerbitzalago,
nola baitzaio Danimarkako tronua hire aitari.
Zer nahi duk nigandik, Laertes?

LAERTES

Jaun goren hori,

berorren grazia eta baimena Frantziara
itzultzeko,
nondik bainintzen, gogo onez baiki,
Danimarkara itzuli,
berorren koroatzean neure leialtasuna
erakustera;
orain, baina, aitortu behar dut, eginbide hori
beterik,
ene gogo-irrikak berriro dira Frantziarantz
aihertzen,
eta hartakotz berorren baimen eta grazia dut
apalki eskatzen.

KLAUDIO

Hire aitaren baimena baduk? Zer dio Poloniok?

POLONIO

Erauzi du nigandik, jauna, ene baimen nagia,
eskatzearen eskatzez, eta, azkenean,
makurtu natzaio zigilatzerara neure onesp
gogorra.

Arren eskatzen diot berorri baimena eman
diezaion joateko.

KLAUDIO

Goza ezak heure sasoi ederra, Laertes;
hire esku bego denbora, eta

jabe haizen dohain onenek dezatela hire gogara erabil.

Orain, ordea, ene kusu Hamlet, ene seme...

HAMLET

Izanagatik sendiko, ezin laket betiko.

KLAUDIO

Nolatan hago hodei-itzalpe ilunak harturik oraindik?

HAMLET

Ez da hori, jauna: luzaroegei egona nauzu eguzkitan.

GERTRUDE

Hamlet laztana, uxa ezak, uxa, kolore gautu hori,

eta lagun gisa egiok so erregerekin Danimarkari.

Ez hadila ibil beti, betazalok lurrerantz, heure aita noblearen xerka hautsetan.

Badakik lege arrunta dela: bizi den oro duk hilkor,

mundutik dezan noizbait naturak eternitatera igor.

HAMLET

Halaxe da bai, andrea, guztion lege arrunta.

GERTRUDE

Hala bada,
zergatik du horrek hain itxura berezia hartzen
higan?

HAMLET

Itxura, andrea? Ez: izatea; nik ez dakit
«itxura»rik.

Ez da kapa tinta-kolore soil hau, ama nirea;
ez eta hotsandiko jantzi beltz deduzkoak,
ez eta arnasestukako hasperen larriak,
ez dituzu, ez, horiek, ez eta begitiko ibai naroa,
ez eta betartearen abaildura agerikoa ere,
saminaren forma, eite, agerpen guztiok batera
ere,
ene barrenaren adierazgarri zintzo. Izan ere,
antzez daitezkeen itxurak dira horiek oro;
barnean ditut nik erakutsi nahi eta ezinenak:
besteok, ikur eta jantziak baino ez
saminarenak.

KLAUDIO

Gutziz egoki da zure aldetik, Hamlet,
dolu-erakutsiok eskaintzea zeure aitari; baina
jakiteko duzu zure aitak ere aita bat galdu
zuela;

aita galdua, galdua da; eta bizirik dirauenak,
seme bati jator doakionez, epe batez
doluzko tristura zor dio. Baina doluari horrela
tema gogorrean eustea, berriz, birao bat duzu
setakeria jainkogabezkoa, gizaz besteko
samina.

Zeruaren aurkako gogo txit gaitza darakus
horrek,

bihotz gotortu gabea, buru egonezina,
ulermen simple eta eskolaz jantzi gabea;
ezen, hala izan behar duela dakiguna
gauza arrunt-arrunta izanik zentzuarentzat,
zergatik behar dugu geure seta gaiztoan
hain gaitz hartu? Utikan, zeruaren aurkako
hutsa da,

hilen kontrako hutsa, naturaren kontrako hutsa,
zentzugabea guztiz arrazoiarentzat, haren lelo
arrunta baita

aiten heriotza, eta beti ere egin baitu deiadar,
lehen gorputik gaur bertan hil denera arte:
«Hala behar du». Otoi, bertan behera utzi
alferreko samin hori, eta pentsa ezazu gutaz
aita batez bezala; ezen jakin beza munduak
zu zarela gure tronutik hurbilenekoa,

eta aitarik kutunenak bere semeaganako duen
baino

bihotz-amultsutasun ez eskasagoa dudala
nik zukanako. Wittenberg-era eskolara
itzultzeko

agertu duzun nahiaz denaz bezainbatean,
gure desiraren ezinago kontra baitoa,
arren degizugu hemen gelditzera makur
zaitezen,

gure begion atsegin eta adoregarri,
gure gorte-gizon gehien, kusu, eta seme.

GERTRUDE

Ez bitez hire amaren erreguak alferrik gal,
Hamlet.

Otoizten haut gurekin gera hadin; ez joan
Wittenberg-era.

HAMLET

Eginahal guztian egingo dizut men, andrea.

KLAUDIO

Horra erantzun bat amultsu eta jatorra:
zaude geu bezala Danimarkan. Andrea, zatoz;
Hamleten adostasun atsegin eta bortxagabe
horrek

begitarte degit bihotzean: eta, horren izenean,

gaur egiteko dugun poz-pozezko topa bedera
hortxe die kanoitzarrak hodeiei iragarriko,
eta erregeren zangadak zeruak oro aldarriz
beteko,
lurreko ostotsa errepikatuz. Goazemazue.

Guztiak irteten dira, HAMLET izan ezik.

HAMLET

Ailedi haragi zinez trinkoegi hau urtu,
mehe-mehe eginik ihintz huts bilaka!
Edo ez ailu Betiraunkorrek ezarri
buru-hilkintzaren aurkako araua! Ene, ene!
Jainkoa!

Zeinen neke, uher, huts eta ezdeusetako
zaizkidan niri mundu honetako ekanduak oro!
Utikan, oi, ut! Jorratu gabeko baratze bat dugu
hau,
hazitarako utzia; gainezkako zabar berezkoek
hartua digute zeharo. Honetara beharra ere!
Bi hilabete doi hila: ez, ez hainbeste, birik ez:
hain errege bikaina; hura, honen aldean, hara
zer zen:

satiro baten aldean Hiperion dena; hain
maitakor
ene amagana, non ez baitziken utzi zeruko
haizeei
haren aurpegia zakarregi laztantzen. Zerua eta
lurra!
Gogoratuko ez dut, bada? Haren besartean
ama,
alegia jangalea puska bat hazia bere elikagaiaz;
eta, hala eta guztiz ere, hilabetera orduko...
Kendu burutik!... Ahultasun, emakume duk
izena!
Hilabetetxo bat, artean maiztu gabe zeuzkala
oinetakoak,
ene aita gaixo hilotzaren segizioan joan
zenekoak,
Niobe hura irudi, oro malko —nolatan, ordea,
nolatan
Jainkoarren!, piztia batek, arrazoi-solasik gabea
izaki,
dolu luzeagoa zegikeen—, ene osaba hartu
zuen senar,
ene aitaren anaia, baina ez ene aitaren antz
handiagoko

ezen ni Herkulesen. Hilabetera orduko, hara;
artean malko guztiz bidegabetsuon gatza ez
zelarik

haren begi garraztuetako gorritasunetik
ostendu,

ezkondu zen. Oi, lehiaren makurra, hain agudo
laster egitea intzestuzko maindire artera!
Ez da eta ezin datorke hortik gauza onik.
Tenk, baina, bihotz; behar baitut mihia lotu.

HORAZIO, MARTZELO eta BERNARDO sartzen dira.

HORAZIO

Agur, jaun goren hori!

HAMLET

Poz hartzen diat bizi haizela ikusirik:
Horazio... edo ez nagok neure kordean.

HORAZIO

Huraxe naiz, ene jauna, eta
berorren zerbitzari xumea beti ere.

HAMLET

Ene adiskide on hori; ni ere berdin hire
zerbitzuko:

Eta zerk hakar Wittenberg-etik, Horazio?
Martzelo?

MARTZELO

Ene jaun ona...

HAMLET

Poz handia hartzen diat hi ikusteaz. Arrastiri on,
lagun.

Baina zerk zakartzate, esan, Wittenberg-etik?

HORAZIO

Alferkeriara emanak izatez, ene jauna.

HAMLET

Ez nitek jasango hire arerioarengandik
halakorik.

Hik ere ez egin, bada, bortxa hori ene belarriari,
alegia entzutera emanik heure buruaren
aurkako

erasia horrenik: bazakiat ez haizela alferra.

Zer egiteko zaik sortu, baina, Elsinore-n?

Bapo edaten irakatsiko diagu alde egin aurretik.

HORAZIO

Jauna, berorren aitaren hiletarako etorria naiz.

HAMLET

Otoi, ez egin niri burlarik, eskola-lagun hori;
ene amaren ezkontzarako ez ote zen nengoan.

HORAZIO

Izan ere, jauna, jarrai-jarraian egokitu dira.

HAMLET

Aurrezkoa, Horazio, aurrezkoa! hiletako opila
beroak

eztei-mahaietako jaki izan ditiagu hotzean.
Neure arerio kutunena zeruan topatu banu
nahiago nik, Horazio, egun hori ikusi izana
baino!

Aita!... Hortxe zaidak begitantzen neure aita.

HORAZIO

Non, jauna?

HAMLET

Neure gogo-begietan, Horazio.

HORAZIO

Behin ikusia dut nik; errege ziratsa zen.

HAMLET

Gizona zuan, horra, bete eta guztizkoa;
ez diat ikusiko hura bezalakorik oster.

HORAZIO

Jauna, uste dut bart ikusi nuela nik.

HAMLET

Ikusi? Nor?

HORAZIO

Jauna, berorren aita erregea.

HAMLET

Ene aita erregea!

HORAZIO

Hotzildu, jauna, berorren harridura lipar batez,
arretaz ernerik belarria, harik eta nik eman
arte,

bi jaun prestuok lekuko didudala,
miragarri horren berria berorri.

HAMLET

Jainkoarren, mintza hakit!

HORAZIO

Bi gauz jarraian izan dute jaun prestuok,
Matzelok eta Bernardok, beren guardian,
ilun beltzeko gau mortuaren erdi-erdian,
honako enkontrua: berorren aitaren irudi peto
bat,

zehatz-mehatz armaturik, burutik
behatzetaraino,

hara non zaien agertzen eta, hotsandiko
ibileraz,

larderia astitsuz hurbiltzen. Hirutan egin du
urrats,

kideon begi larritu eta izuak hartuen aurrean,
bere makilaren helmeneraino; bitartean
lagunok

ia urtuan ikara haragiak beldurraren
eraginpean,

mututurik, ez diote hitz egin. Horixe baitidate
laborrizko isilpean gero niri jakinarazi,
berekin dut nik hirugarren gaueko beila egin;
zeinean, azaldua zuten moduan, hala denboran
nola izakiaren itxuran, hitzez hitz halaxe guztia,
han agertu baita ikuskaria. Berorren aita
ezagutu dut:

esku biok ez dira elkar-irudiago.

HAMLET

Baina non zen hori?

MARTZELO

Guardian geundeneko harresipean, jauna.

HAMLET

Hitz egin al diozue?

HORAZIO

Nik diot, jauna, hitz egin;
erantzunik ez, baina; hala ere, behin, ustez,
gora jaso du burua, eta mugitzekoa egin,
mintzatzen hastekotan balego bezala;

baina orduantxe du goiz-oilarrak kukurruku jo,
eta, haren soinura, tanpez ostendu da,
eta begien bistatik aienatu.

HAMLET

Harrigarria oso.

HORAZIO

Bizirik nagoen bezala, jaun ohoretsu hori,
halaxe da egia;
eta xuxen-xuxen gure eginbidea zela iritzi diogu
berorri jakitera ematea.

HAMLET

Bai noski, bai noski, baina asaldagarri zaidak
berria.

Guardia egitekoak al zarete gaueon?

MARTZELO, BERNARDO

Bai, jauna.

HAMLET

Armatua, diozue.

MARTZELO, BERNARDO

Armatua, jauna.

HAMLET

Burutik behatzetaraino?

MARTZELO, BERNARDO

Bai, jauna, burutik behatzeraino.

HAMLET

Orduan, ez diozue ikusi aurpegirik.

HORAZIO

Oi, bai, jauna, jasorik zeraman begi-babesa.

HAMLET

Zer aurpegiera ageri zuen? Beltzuri?

HORAZIO

Irudiago zuen samindua haserre baino.

HAMLET

Zurbil ala musu-gorri?

HORAZIO

Ez, zurbil-zurbil.

HAMLET

Eta finkatu al du soa higan?

HORAZIO

Begirik kendu gabe.

HAMLET

Nahi nitek han izan banintz.

HORAZIO

Txunditu zukeen berori arras.

HAMLET

Balitekek, balitekek. Luzaz egon al da?

HORAZIO

Batek abaila handirik gabe ehun kontatzeko
tartea.

MARTZELO, BERNARDO

Luzeago, luzeago.

HORAZIO

Ez nik ikusi dudanean.

HAMLET

Urdindua zuen bizarra... ala ez?

HORAZIO

Hala zuen, bizirik zegoela ikusia nion bezala,
beltz-beltzean zilarrez.

HAMLET

Zaintza egingo dut gaueon;
Agian berriz agertuko da.

HORAZIO

Ziur naiz baietz.

HAMLET

Ene aita jatorraren itxuraz janzten bada,
hitz egingo diot, bai horixe, nahiz infernuak
berak

ahoa zabaldu eta geldi egoteko manatu. Otoi,
orain arte ezkutuan gorde baduzue ikusia,
aurrerantzean ere zuen isilpean bego;

eta zernahi ere besterik gerta dadin gaueon,
ulerbide emaiokezue, baina ez mihirik:
bihotzez dizuet eskertuko. Adio, beraz:
harresipean naiz, hamaiketatik hamabietara
bitartean,
zuengana bilduko.

GUZTIAK

Berorren esanera eginbidez beti.

HAMLET

Ene bihotza berdin zuen alde: adio.

Badoaz guztiak, HAMLET izan ezik.

Aitaren izpiritua armatan! Behar ez denen bat
badugu;
joko ustel baten susmoa dut: ailitz etorria jada
gaua!
Ordura arte, hago, arima; ezen, ustel denik
bada,
lurpean guztiz estali arren, agertuko duk
bistara.

Badoa.

LAERTES eta OFELIA sartzten dira.

LAERTES

Ontzian daude jada ene puskak: adio.
Ene arreba, haizeak aldeko direlarik
eta itsas-garraioa ibilki, ez izan nagi,
eta helarazi zeure berriak.

OFELIA

Duda egiten al duzu?

LAERTES

Hamleti eta haren txerakeriei dagokioenez,
galatzat eduki eta odol-apeta hustzat,
liliubel bat nola udaberri jaukalean:
goizerne, ez iraunkor; kutun, ez luzaroko;
lipar bateko urrin laketgarria,
besterik ez.

OFELIA

Hori baino ez?

LAERTES

Ez eduki gehiagotzat;
ezen adinean gora ez gara hazten soil-soilik

kemen eta izariz, baizik, garen tenplua osatu
ahala,

gogoen barne-gaitasuna ere harekin batera da
hazten eta zabaltzen. Maite zaituzke, apika,
orain,

eta orbanik eta makurbiderik gabea dateke,
akasgabea, haren gogoa; baina kasu emateko
duzu:

handi-goren izaki, ez da bere gogoaren jabe;
bere jaiotzaren meneko baita noski printzea:
ez dezake, pertsona ezdeusek ohi dutenez,
bere oldez joka; beraren hautuaren baitan
baitago

erresuma guztiaren osasun eta ongi izatea;
eta hargatik behar zaio ezarri haren hautuari
bera buru deneko gorputz horren bozketa eta
adostasunaren muga. Hortaz, maite zaituela
badiotsu,

zuhur zenuke Hamleten esana sinestea, noraino
ere

hark baituke aukera, dena delarik tituluz eta
mailaz,

egintzaz gauzatzeko hitza; ez harago, alegia,

Danimarkaren iritzi nagusia ados datekeen
baino.

Pentsa, bada, zer galgarri lukeen zeure
ohoreak,
belarri sineskorregiz bazenitza entzun haren
kantak,
edo bihotza laxa, edo garbitasun-altxor hori
ireki

printzearen erregu deslaion aurrean.

Kontuz ibili, Ofelia, kontuz, ene arreba maitea;
zeure maitetasunaren atzealdean eutsi,
desiraren su-danba arriskutsuetatik urrun.

Dontzeilarik begiratuena ere laxo askoa duzu,
ilargiari estalgabetuz gero bere edertasuna,
Bertutea bera ere ez zaie itzurtzen kalumniaren
erasoei;

harbeltzak ditu udaberri-zitoak alferrik galtzen,
haien altsumak lora-zabaldu baino lehen
sarritan,

eta gaztaroko goiz-ihintz freskotan ohi dira
helde kutsakorrak errazen gertatzen.

Argi ibili; beldurra duzu segurtasun-berme
onen:

odol gazteak berez diraki, ez du beharrik inoren.

OFELIA

Ikaskizun on horren gomuta dut gordeko neure bihotzaren zaintzaile. Baina, anaia maite, ez niri, zenbait artzain moldakaitzek ohi duenez, zerurako bide malkor arantzatsua erakutsi, bitartean berak, libertino putz axolagabe antzo, atseginaren zidor pinpirintsua ibiltzen duela, jaramonik egiteke bere aholkuari.

LAERTES

Oi, ez izan kezkarik nitaz.

POLONIO sartzen da.

Luzatzen ari naiz. Hor dator, baina, aita. Benedikapen bikoitza zorion bikoitza da: horra abagunea berriro adio esateko elkarri.

POLONIO

Oraindik hemen, Laertes! Ontzira, hots, ontzira! Bela-bizkarretan atezuan zagok haizea, eta zain dauzkak. Horra: har ene benedikapena; eta ahalegin hadi heure oroimenean irartzen

jarraibide bakanok. Mihira gabe gorde
pentsamenduak,
eta galarazi desegoki direnei ekintzarako bidea.
Haizela jendekoi, baina arrunkerian erori gabe.
Dituan lagunak, behin halakotzat frogatuz gero,
tinka itzak heure ariman altzairuzko uztaiz;
baina ez lakartu esku-ahurra laztan eginez
edozein kide kabiatik erori berriri. Begira ez
hadin
liskarretan sar, baina behin hala egokituz gero,
egik modua aurkaria higandik begira dadin.
Guztiei heda belarria, baina gutxiri ahotsa;
ororen iritziak jaso, baina herorrentzat gorde
heurea.
Bira hire jantziak hire diru-poltsaren neurriko,
baina nabarmenkeriarik gabe; aberats, ez
deigarri;
zeren arropatik ezagutzen baita sarri gizona,
eta Frantziako jende maila eta gradu
gorenakoak
bikain jauntzen baitira eredubide horretan.
Ez hartzaile ez emaile izan maileguz:
emateak diruarekin laguna baitu galarazten
maiz,

eta hartzeak etxeko ekonomia kamustea
ekartzen.

Hauxe oroz gain: heure buruari hakio zintzo eta
leial,

eta hortik segituko da, egunetik gaua bezala,
ez haizatekeela faltsu inori ere.

Adio: ene benedikapenak hori dezala zoritu
higan!

LAERTES

Apaltasun osoz agur eta adio, jauna.

POLONIO

Tenorea duk, bai; hoa, hire zain zaudek
zerbitzariak.

LAERTES

Adio, Ofelia, eta ongi gogoan hartu
zer esan dizudan.

OFELIA

Oroimenean daukat gorderik,
eta zerorrek edukiko duzu horren giltza.

LAERTES

Adio.

Badoa.

POLONIO

Zer da, Ofelia, esan dinan hori?

OFELIA

Plazer badu berorrek, Hamlet printzearen gaineko zerbait.

POLONIO

Alafede, ordu onean bururatua:
esan didatenez, oso maiz izan din azken aldion
bakarkako batzarraldirik hirekin; eta hik
herorrek
gutziz ere eskuzabal eskaini omen dion arreta.
Hala baldin bada —iradoki didaten arabera;
ohartarazpen gisa, alegia—, esan behar dinat
ez dunala hain argi heure buruarekikoa,
ene alabari eta hire ohoreari dagokionaz.
Zer dago zuen artean? Esadan egia.

OFELIA

Azken aldion, jauna, erakutsi asko egin dit
niganako duen jaiduraz.

POLONIO

Jaidura! Utikan! Badirudin hizketan zenbait
neskatila
eskarmenturik ez duena halako arriskubide
larriez.

Sinesten al dizkion erakutsiok, hala deitzen baitien hik?

OFELIA

Ez dakit, jauna, zer pentsatu behar nukeen.

POLONIO

Alafede, irakatsiko dinat: pentsa haurtxo bat haizela;

benetako ordain-baliozkotzat hartu ditunala erakutsiok,

ustelak izanik txanponak. Garestiago erakutsi heure burua;

edo —ez leherrarazteko guztiz esapide gaixoa, honela esetsiz— ni naun erakutsiko zorotzat.

OFELIA

Jauna, beti mintzatu zait maitasun-kontu guztiz era prestuan.

POLONIO

Prestua, horixe prestua; ari, ari.

OFELIA

Bai eta bermea eman ere bere solasari, jauna, zeruko zin kutun guzti-guztiek ia.

POLONIO

Zera, zozoak harrapatzeko arteak. Ongi zakinat,

odola irazekia egonik, zeinen naro dizkion
arimak
zin gartsuak eragiten mihiari. Lama horiek,
alaba,
argi gehiago emanki bero baino, bi-biez itzaliak
beren agintzan berean, hura egiten ari
deneantxe,
ez ditun sutzat hartu behar. Hemendik aurrera
zikoitz-antza joka heure dontzeila-presentziaz;
jarri elkarretaratzeoi prezio garestiagoa
mintzaldirako agindu soila baino. Printzeari
dagokionez,
emaion hik hainbat sineste, nola baita hura
gazte
eta brida-uhal laxoagoz baitaiteke ibil
hiri eman dakinakeena baino. Hots, Ofelia,
ez sinetsi haren zin-agintzak; artekari baitira,
kanpo-jantziz erakusten dutenarena gabe,
nabarmenkeriaren erregutzaile huts, hortxe,
estalgile jainko-kartsu batzuen gisa xuxurlaka,
hobekienik limurtzeko. Hara, behin betiko:
ez niken nahi, lau-lau esateko, aurrerantzean
hik heure aisia-unerik batere laidoztatzerik
hitz eta solasbide emanik Hamlet printzeari.

Jaramon egin, zintzo, horri. Ea, erdu.

OFELIA

Men egingo dut, jauna.

Badoaz.

I.iv

HAMLET, HORAZIO eta MARTZELO sartzen dira.

HAMLET

Gogor ausikitzen dik haizeak; hotz ere hotz duk.

HORAZIO

Izotz-giro zorrotza dugu, bai, gaueon.

HAMLET

Zer ordu dugu?

HORAZIO

Hamabiak jotzeko, ustez.

MARTZELO

Ez, joak dira.

HORAZIO

Dagoeneko? Ez dut entzun jotzen.

Hortaz, hurbiltzen ari da tenorea
mamuak bere ibilia egin izan ohi duena.

Turuta-joaldi bat eta bi kanoi-danbada.

Zer esan nahi du horrek, jauna?

HAMLET

Gau-pasa egiten ari duk errege, topaka,
parrandan jo eta su, dantza-zalaparta bizian;
eta Rin-eko ardotik tragoa jotzen duen aldiro,
atabal-turutak arrantzaka hasten dituk
zurrutaldiari aupaka.

HORAZIO

Ohitura al da?

HAMLET

Bai, alajainena,
baina, ene aburuz, nahiz jatorriz hemengo
naizen
eta sortzetik egina ekandu horretara, hobeki
zaiok
ohitura horri ohore egiten hautsiz ezen ez
eutsiz.

MAMUA sartzen da.

HORAZIO

Horra, jauna, hor dator!

HAMLET

Aingeru zaindari zerukoek gaitzatela anpara!
Onezko izpiritu izan zein iratxo madarikatu,

zeruko haize gozo ekarle zein infernuko
zafrada,
hire asmoak makur izan zein onbera,
hain heldu haiz hi itxura itaungarrian
ezen mintzatu behar bainatzaik. Hamlet deituko
diat,
errege, aita, daniarren goren. Oi, erantzuidak!
Ezjakintasunez lehertzen utzi gabe, esadak,
esan,
zergatik hire hezur eraz ehortziok, herioren
hesipe,
beren hiljantziak dituzten urratu; zergatik
hilobiak,
zeinean hilotz zurrun etzana ikusi baihindugun,
marmolezkobere ahutz astunak ireki dituen,
hi kanpora iraitzeko atzera. Zer esan nahi ote
du
hi, gorputz hil hori, osterara ere altzairu osoz
berragertzea honela ilargiaren ñirñirretara,
izu larriz betez gaua, eta guri, naturaren
jostailu,
honen lazgarriro inarrosiz bihotz-aldartea
arimon helmenetik haraindiko gogoetaz?

Esak, zer dela eta? Zertarako? Zer genuke egiteko?

MAMUak keinu egiten dio HAMLETi.

HORAZIO

Keinu egiten dio berorri berekin joateko, isilmandaturen bat balu bezala berorri bakarrik esatekoa.

MARTZELO

Horra nolako adeitasunez dion berorri txoko apartatuago batera egiten gonbit: ez bedi joan, baina, berarekin.

HORAZIO

Ez, ez joan inola ere.

HAMLET

Ez dik hitz egin nahi; hortaz, berarekin joango nauk.

HORAZIO

Ez joan, jauna.

HAMLET

Zeren beldur izan behar dut, ordea?
Ez zaukaat bizia orratz baten balioan;

arimari dagokionez, berriz, zer egin diezaioke
horrek,

bera bezain hilezkor izanik hura?

Keinuz ari zait ostera ere: berarekin noa.

HORAZIO

Eta uretara limur baleza berori, jauna?,
edo bere oinarritik itsasorantz konkortzen den
harkaitz-labarraren gailur ikaragarrira,
eta, han beste itxura ikaragarri bat harturik,
arrazoimenaren indar eta ahalaz gabetu, eta
eromenera eraman berori? Hausnar beza
kontua.

HAMLET

Keinuz ari zaidak oraino ere.

Segi; banoak hirekin.

MARTZELO

Ez luke joan behar, jauna.

HAMLET

Kendu hortik eskuok.

HORAZIO

Zentza bedi berori; ez du zuhur joatea.

HAMLET

Deiadar dagi ene patuak,

eta horrek gorputz honetako arteria koxkor
bakoitza

Nemeako lehoiaren zaina bezain gotortzen du.
Oraino hoska ari zait, horra. Aska nazazue,
jaunok.

Ala zerua!, mamu artera doake tenk degidana!
Kentzeko, bada, ene paretik! —Segi; banoak
higana.

Badoaz MAMUA eta HAMLET.

HORAZIO

Bere senetik ateratzen dute irudikeriok.

MARTZELO

Jarrai gakizkion; ez da komeni men egitea.

HORAZIO

Goazen, bai, atzetik. Zer ote zaigu helduko?

MARTZELO

Zerbait usteldurik dago daniarron herrian.

HORAZIO

Zeruak du zuzenduko.

MARTZELO

Ez, bada, jarrai gakizkion.

Badoaz.

I.v

MAMUA eta HAMLET sartzen dira.

HAMLET

Nora naramak? Esan; ez nauk harago joango.

MAMUA

Adi niri.

HAMLET

Gutziz adi.

MAMUA

la heldu zait ordua,
sufrezko gar oinazetsuetara
neure burua eman beharrekoa.

HAMLET

Aiei, mamu gaixoa!

MAMUA

Ez errukitu, baizik buru-belarri entzun
agertuko diadana.

HAMLET

Esan; prest-prest naukak entzuteko.

MAMUA

Baita mendekua hartzeko ere, entzun
dezaanean.

HAMLET

Zer?

MAMUA

Hire aitaren izpiritua nauk, epe batez
herrari ibiltzera kondenatua gauaz,
eta sutan barau egitera egunaz, harik eta
neure mundualdian eginiko itsuskeriak
guztiz erre eta purgatu arte. Ez izatera debeku
nagoen espetxeko sekretuez mintzatzea,
banikek kontakizun bat zeinaren hitzik arinenak
hire arima bailuke erdiratuko, odol gazte hori
izoztu,
begi biok, izar antzo, beren esferetatik
jauzarazi,
hire xerlo dotore izurtuok bereizi
eta banakako ile bakoitza tente laztu,
arantzurde larrituaren zirien gisara.
Baina aldarri eternal hori ez duk haizu
haragi-odolezko belarrientzat. Entzun, oi,
entzun!
Inoiz maite izan baduk heure aita laztana...

HAMLET

Jainko maitea!

MAMUA

Mendeka ezak haren hilketa doilor-ezaina.

HAMLET

Hilketa!

MAMUA

Gutziz doilorra hilketa, hala denez onenean,
baina doilorrago hauxe, naturaz beste ezaina.

HAMLET

Ea bizkor jakinarazi, hala nik, hego hain arinez
nola gogoetak edo maitasun-oldeak,
lehia nadin mendekura.

MAMUA

Trebe kausitzen haut;
eta soraioago hintzateke Leteo ibai ertzean
lasai sustraiturik dagoen belar gizena baino,
zirkinik ez bahegi horren aurrean. Entzun, bada,
Hamlet.

Zabaldu zuan ezen, neure baratzean lo
nengoela,
suge batek ninduela ausiki. Hala duk
Danimarka osoa,
azpikeriaz estalirik horrenbestez ene heriotza,

itsuski engainatua agitu. Jakik, baina, seme
jator hori:

hire aitaren biziari ausiki egin zion sugeak
haren koroa zaramak orain.

HAMLET

Iragarle nuen, haatik, arima! Ene osaba!

MAMUA

Ai, piztia intzestu-egile, ezkon-nahasle horrek,
antzeko sorginkeriaz, saldukeriazko dohainez
—Oi antze eta dohainon makurra, indarra
baitute

inor hala limurtzeko!— bere irrits laidotsura
zuen erakarri

ene erregina itxuraz hain onbidetsuaren gogo. Oi,
Hamlet, nolako bidegaltzea! Nigandik
—halako duintasun beteko bihotza bainion
non beti eskutik baitzihoan maitasun hori
ezkontzako zin-agintzarekin—, zer, eta hala
hondoratzeko

berezko dohainez ene aldean guztiz eskas zen
miserable batengana.

Baina bertutea nola ez den beretik mugitzen,
nahiz lizunkeriak zeru-itxura pean gorteiatu,
hala irritsa, aingeru distirant bati loturik ere,

berdin ase litekek ohe zerutiar batean
eta zaborretik bapo gizendu.

Baina hago: goizaren urrina zatorkidak;
labur behar diat. Neure baratzean lo ni,
hala izan baitut ohitura beti arratsaldean,
hantxe patxadan nengoelarik, hire osaba zuan
zuku zitaletik flasko bat eskuan hara limurtu,
eta ene belarrien atarietan zian isuri
legen-ur edentsua, zeinaren eragina
hain baitzaio etsai giza odolari
non zilarbizia bezain bizkor baita barrentzen
gorputzaren ate eta ibilbide naturaletatik,
eta tupusteko indarrez baitu mintzen
eta gatzatzen, esnetan gatzagi tantek nola,
odol mehe osasuntsua. Hala zian enea mindu;
eta bat-bateko heldeak zian pikortatu,
soraio-itxura betean, zarakar higuinarriz,
ene gorputz leun osoa.

Hala nindian ni, lotan, anaia baten eskuak
biziaz, koroaz, erreginaz, bet-betan peitu,
neure bekatuaren lore-loretan ebakia,
elizakorik, prestaketarik, oliodurarik gabe,
aitorpenik egiteke, nengoen-nengoenean
igorria,

neure huts guztien zamarekin, kontu ematera.
Oi lazgarria! Oi lazgarria!, lazgarri ezinagoa!
Barrenik baduk heure baitan, ez jasan
 halakorik;
ez utzi Danimarkako errege-ohea izan dadin
lizunkeriarren eta intzestu ezainaren etzalekua.
Baina, egiten duana egiten duala hori lortzeko,
ez zikindu pentsamendua, eta ez xedatu arima
heure amaren aurka batere: utz ezak zeruaren
eta bular barnean dauzkan arantzón esku,
haiek dezaten eztenka. Adio, seme, bertatik!
Ipurtargiak hurbil iragartzen dik goiza,
zurbiltzen hasia baitu bere su ilauna:
Adio, adio, Hamlet. Gogora hadi nitaz.

Badoa.

HAMLET

Oi zeru-oste guztiok! Oi lur! Zer besterik?
Infernua dut gehituko? Utikan! Eutsi, eutsi,
 bihotz;
Eta zuek, ene zainok, ez zaitezte bertan
 zahartu,
baizik tinko nazazue atxiki. Hitaz gogoratu!

Bai horixe, mamu gaixoa: oroimenak lekurik
dueno

buru-krosko nahasi honetan. Hitaz gogoratu!

Bai noski: neure oroimenaren taulatik ditiat

arrunkeria funsgabe guztiak ezabatuko,

liburu-aipu oro, irudi, inpresio iragan oro,

gaztetasunak eta oharmenak hara jasoak;

eta hire agindua duk soil-soilik biziko

ene garunaren liburu eskerga horretan,

txikikeriokin nahasteke. Bai, zerua lekuko!

Oi emakumearen makurra!

Oi bilaua, bilau irribarretsu, ez besteko bilaua!

Idaztaulak, idaztaulak: behar dut oharra jaso

nola

batek irribarre egin dezakeen zabal, eta bilau

bat izan;

behinik behin hala dateke noski Danimarkan.

Idazten dihardu.

Horratx, osaba, zurekikoa. Orain, hitzari men;

hots: «Adio, adio! Oroit hadi nitaz.»

Hala dut zin egin.

MARTZELO eta **HORAZIO** (*barruan*)

Jauna, jauna!

MARTZELO

Hamlet gure printzea!

HORAZIO

Zeruak anpara dezala.

MARTZELO

Hala biz.

HORAZIO

Uhu, ei, ei, jauna!

HAMLET

Uhu, ei, ei, motell! Hona, txori, hona.

MARTZELO

Zertan gara, ene jaun noblea?

HORAZIO

Zer berri, ene jauna?

HAMLET

Oi, miragarria!

HORAZIO

Jaun ona, konta beza.

HAMLET

Ez; zabalduko duzue eta.

HORAZIO

Ez nik, jauna, zerua lekuko.

MARTZELO

Ezta nik ere, jauna.

HAMLET

Hara, bada. Otu ote lekioke egundo inori...?
Baina gordeko al duzue isilean?

HORAZIO eta MARTZELO

Bai, jauna, zerua lekuko.

HAMLET

Ez da bilau alerik bizi Danimarka guztian
doilor galanta ez denik.

HORAZIO

Ez da behar, jauna, mamurik etor dadin hilobitik
hori kontatzera guri.

HAMLET

Arrazoia, bai; arrazoia.

Beraz, inolako zeremonia gehiagorik gabe,
egoki deritzot elkarri eskua emanik

banantzeari: zuek,

zeuen egiteko eta desirek xedatzen

dizuetenera;

zeren gizaki orok baitu egitekorik eta desirarik,
direnak direla; neure alde xumetik, berriz,
hara, otoitz egitera noa.

HORAZIO

Neurririk eta taxurik gabekoak dira solasok,
jauna.

HAMLET

Damu dut, bihotz-bihotzez, iraindu bazaituztete;
bihotz-bihotzez, alafede.

HORAZIO

Ez da irainik, jauna.

HAMLET

Bai, ala san Patrizio, badenez, Horazio, eta
galanta,

iraina. Horrako ikuskari horri dagokionez:
mamu zintzoa da, hara, sinestazue
horrenbeste.

Haren eta bion arteko kontuez, berriz, egizue
modu

zeuen jakingura menderatzeko. Eta orain,
adiskideok,

adiskide, eskoladun eta soldadu zareten aldetik,
onar iezadazue eskaera xume bat.

HORAZIO

Esan zer den, jauna,
eta beteko dugu.

HAMLET

Ez inori sekula jakitera eman gaueon ikusi duzuenena.

HORAZIO eta MARTZELO

Jauna, ez dugu emango.

HAMLET

Hala ere, zin egizue.

HORAZIO

Ala fede, jauna, nik ezetz.

MARTZELO

Ezta nik ere, jauna, ala fede.

HAMLET

Ene ezpataren gainean.

MARTZELO

Zin egin dugu, jauna, dagoeneko.

HAMLET

Hortxe, ene ezpataren gainean hortxe.

MAMUA (*taulapetik oihuz*)

Zin egin!

HAMLET

Hara, hara, hi al haiz hala mintzo?

Hor al haiz, txintxo hori?

Ea. Entzun duzue sotoko horrek zer dioen.

Arren zin egin bertan.

HORAZIO

Proposatu juramentua, jauna.

HAMLET

Sekula ez hitz egitea ikusi duzuen horretaz, egizue ene ezpataren gainean zin.

MAMUA

Zin egin!

Zin egiten dute.

HAMLET

Hic et ubique? Orduan lekuz aldatuko gara. Erdu hona, jaunok, eta pausatu eskuok ene ezpataren gainean. Sekula ez hitz egitea aditu duzuen horretaz, egizue ene ezpataren gainean zin.

MAMUA

Zin egin!

Zin egiten dute.

HAMLET

Ongi esana, sator zaharra.
Hain bizkor mugitzen al haiz lurpean?

Aztarrikari iaioa! Lekutu ostera ere, adiskideok.

HORAZIO

Oi eguna eta gaua, ala baita hau mirarizko
arrotz!

HAMLET

Egiok, beraz, arrotz bati bezala ongi etorri.
Gauza gehiago zagok zeru-lurretan, Horazio,
giza filosofiak amesturikoak baino. Baina erdu,
ea:
hemen lehen bezala, sekula, grazia lagun
duzuela,
zeinahi ere arrotz edo bitxi datekeen ene
portaera
—aurrerantzean menturaz otuko baitzait
komeni zaidala zelebrearena egitea—
ez duzuela zuek halakoetan, sekula ere,
besoak antxumatuz honela, edo honela buruari
eraginez,
edo esaldi badaezpadakoren bat ebakiz —hala
nola
«Tira, guk badakigu», edo «Nahi izatera, guk»,
edo
«Hitz egiten hasiko bagina», edo«Libre izatera,
batzuek»,

edo beste erdi-esanen bat halakoa—,
erakustera utziko
deusik dakizuenik nitaz. Halakorik ez inola
egitea,
zeruko grazia estualdian babes eta lagun
duzuela,
egizue zin.

MAMUA

Zin egin!

Zin egiten dute.

HAMLET

Har ezak atsedan, izpiritu aztoratua! Beraz,
jaunok,
ene bihotz oso-osoz zuei nago; eta zer ere
Hamlet honek bere eskasean egin baitezake
zuenganako estimu eta adiskidantza
adierazteko,
Jainkoa lagun, ez zaizue faltako. Sar gaitezen
batera,
eta eduki beti hatza ezpainean gurutze, otoi.
Mundua zaigu errotik irten. Ene tamala
liskarrez:

patu gaitzean nintzen ni sortu atzera jartzeko

artez!

Ea, goazen elkarrekin.

Badoaz.

II.i

POLONIO eta REINALDO sartzen dira.

POLONIO

Emazkiozu diru hau eta ohar hauek, Reinaldo.

REINALDO

Emango dizkiot, jauna.

POLONIO

Zuhur zenuke, baiki, Reinaldo jator hori, bisitatu aurretik modua egitea zer ari den jakiteko.

REINALDO

Badut asmoa, jauna.

POLONIO

Ederki, ederki. Hara, lagun, ikertu lehenik zer daniar jende denn Parisen, eta nola eta nor, zertatik eta non diren bizi, zer lagunartez eta zer gastuz; eta hala, halako itzulinguru eta zehar-galdez kausitzean ezagutzen dutela ene semea, hurbilago zaudeke,

hartarakoxe itaun zuzenez hel zaitezkeen
baino.

Planta egikezu urrunetik-edo ezagutzen duzula;
esaterako: «Aita eta lagunak ezagutzen ditut,
eta doi bat bera.» Ulertzen al didazu, Reinaldo?

REINALDO

Biziki ongi, jauna.

POLONIO

«Eta doi bat bera, baina», esakezu, «ez ongi;
baina, nik diodana bada, hagitz da zoroa,
hau eta bestearen zale», eta hor leporatu
nahi adina kontu; prefosta, ez hain gaitzik
non ohorea liezaiokeen galaraz —begira
horretatik—,

baizik apetzako irristaldi zoro ohikoak,
nola ohi baititu lagun arrunt sarri
gaztetan aske ibiltzeak.

REINALDO

Jokoa, esaterako, jauna?

POLONIO

Bai, edo zurruta, ezpataketa, biraoak, borrokak,
ematxarrak... Horraino hel zintezke.

REINALDO

Jauna, desohoragarri luke hori.

POLONIO

Alafede, ez; neurrira ekarriz gero karguak.
Ez diozu leporatu behar beste eskandalurik,
alegia
nabarmenkeriarako joera duela; ez da hori
kontua.

Aitzitik, ager itzazu erruok hain antzetsu,
non askatasunaren orbanak dirudiketen,
gogo-barren sutsu baten eztanda gartsua,
piztia-halakotasun bat odol bezatugabea,
orori oldargarri.

REINALDO

Baina, ene jauna...

POLONIO

Zer dela-eta behar duzun egin hori?

REINALDO

Bai, jauna, hori nahi nuke jakin.

POLONIO

Ederki, bada; hona ene burubidea,
burubide ustez argi eta xuxen askoa.
Zuk tatxa arinok egoztean ene semeari, alegia
gauza bat arian aritzez zikinduxe, begira ea
zure solaskideak, zundatu gogo duzun horrek,
inoiz kausitu duenentz aipaturiko gaizkerietan

hala salatzen duzun gaztea, bat baitu egingo orduan noski zurekin honako ondorioan: «Jauna», edo beste, zuka nahiz berorika, tokian-tokiko jendeen ohitura eta usadioaren arabera.

REINALDO

Ederki, jauna.

POLONIO

Orduan, bada, hark, zera... hark... zer nintzen ni esateko? Mezasantuarren!, banintzen ni esateko

zerbait: non geratu naiz?

REINALDO

«Bat egingo ondorioan», hortxe, eta gero, «Jaunka, zuka nahiz berorika».

POLONIO

«Bat egingo ondorioan.» Hori da, bai; honelako hizpidez: «Ezagutzen dut nik jaun hori;

atzo ikusi nuen, edo lehenagokoan, halako egunean;

halako eta halakorekin, eta, diozun moduan,

hantxe ari zen jokoan; hantxe zurrutak gaina harturik;

hantxe tenisean okasioan»; edo, bestela: «Halako tratu-etxera sartzen ikusi nuen», erran nahi baita, putetxe batera; eta abar. Horra, bada: gezurrezko beitzaz duzu egiaren zamo bapoa arrantzatuko; halaxe baititugu jende zuhur burutsuok, inguru-setioz eta soslai-erasoz, desbidez xuxen asmatzen bideak. Halaxe zuk, ene aholkuoi jarraikiz, ene semearekin. Ulertzen didazu, ezta?

REINALDO

Bai, jauna.

POLONIO

Jaungoikoa zurekin; ongi ibili.

REINALDO

Agur, jauna!

POLONIO

Kontu eman ea zertara duen joera.

REINALDO

Hala egingo dut, jauna.

POLONIO

Eta landu dezala gogotik musika.

REINALDO

Ongi, jauna.

Badoa.

OFELIA sartzen da.

POLONIO

Adio! —Hara, Ofelia, zer dugu?

OFELIA

Ene, ene, jauna, hain bainaiz ikaratu!

POLONIO

Zerekin, jainkoaren izenean?

OFELIA

Jauna, neure gelan ari nintzelarik josten,
Hamlet printzea —gutziz askatua jaka;
kapelarik gabe buru-has; galtzerdiak lohi,
lotzeke eta girgilu legez orkatilaraino jausiak;
alkandora bezain zurbil; belaunak elkar-joka,
eta

halako aurpegiera errukarriz, nola baitzukeen
orduantxe baliote infernutik jaregin
hango izu-kontari—, hara non zaidan etorri.

POLONIO

Hire maitez zoro?

OFELIA

Jauna, ez dakit,
baina zinez hala dut susmoa.

POLONIO

Zer esan din?

OFELIA

Eskumuturretik heldu dit, estu-estu.
Gero besoaren luzeraraino aldendu,
eta beste eskua honela paraturik bere kopetan,
buru-belarri hor hasi zait aurpegia miatzen,
hura marraztu nahi balu bezala. Luzaz egon da
horrela.

Azkenean, apur bat inarrosirik niri besoa, eta
hirutan eraginik buruari honela gora eta
behera,
hasperen bat jaulki du hain errukarri eta
sakona,
non baitzirudien gorputz osoa puskatuko ziola
eta izatea suntsituko. Horrenbesterekin, aske
utzi ni,
eta, burua sorbaldan gaindi itzulia,
begirik gabe asmatu du nonbait bidea,
ezen ateraino joan da soaren laguntzarik gabe,
nigan josirik, azkeneraino, begion argia.

POLONIO

Ea, hator enekin. Erregeren bila joango naun.
Horratx amodioaren zoraldi betea,
zeinaren bortiztasunak bere burua baitu galtzen
eta gogoia eramaten etsi gaitzeko eginbidetara
hain sarri nola zerupeko edozein pairamen
izaki gaixoon oinazegarri. Damu dinat...
Zer, hitz gogorrik zuzendu al dion berriki?

OFELIA

Ez, jauna, baizik, berorrek agindu bezala,
uko egin diet haren gutunei
eta tratabidea debekatu.

POLONIO

Horrek erotu din.
Damu dinat arreta zuhurragoz ez erreparatu
izana.
Beldur nindunan jostetan ari ote zen soilik,
hire galbidez noski. Ene arduron galdua!
Alajaina, hain din bere gure adin honek
arrastotik harago jotzea geure aburuetan,
nola gauza arrunta baita gaztegoarengan
aski zentzu ez izatea. Ea, goazeman
erregegana.

Jakin dadila; bada kontuak lekarke gordean
deno
min gehiago, amodioa agerturik herra baino.

Badoaz.

II.ii

*KLAUDIO, GERTRUDE, ROSENKRANTZ,
GILDENSTERN eta segiziokoak sartzen dira.*

KLAUDIO

Ongi etorri, Rosenkrantz eta Gildensterntz
preziatuok!

Zuek noiz ikusiko luzetsirik egon izanaz
gainera,

zuetaz baliatzeko dugun beharrak ere eragin du
presazko dei hau. Entzun duzue zerbait noski
Hamleten eraldatzeari buruz: hala deitu
beharko,

ezen ez kanpotik eta ez barnetik ez baitirudi
lehenago zen hura. Zer izan ote litekeen,
aitaren heriotzaz beste, horrela jarri duena,
hain bere burutik eta senetik irtena,
ezin asmatu nabil. Arren degizuet bioi
ezen, txiki-txikitatik harekin haziak izaki,
eta haren kide-kideko gaztez eta izamoldez,
onar dezazuen hemen gure gortean geratzea
denbora apur batez; hala, zuen lagunarteak

atseginbideetara ekarri, eta atzeman dezagun
ea,
egokierak hartarako modua ematen dizueno,
badenentz deus, gure ezkutuan, hala joa
duenik, eta,
agerira ekarririk, gure esku dagoenik
konpontzea.

GERTRUDE

Jaun jatorrok, hagitz mintzatu da zuetaz,
eta ziur naiz ez direla munduan bi gizon
bihotzeanago dituenik. Plazer baduzue
guganako adeitasun eta borondatea erakustea,
denbora apur bat gure artean emateko lagin,
gure esperantzaren hazkarri eta onurarako,
zuen bisitaldiak jasoko duen esker ona
errege baten bihotzaren duin izango da.

ROSENKRANTZ

Maiestate biok
balukete ahala, gure gain duten esku gorenaz,
agindu gisa agertzeko beron gogo itzalak,
arren egin gabe.

GILDENSTERN

Men dagigu, baina, berdin,

eta geure buru eta zerbitzua eskaintzen, bete-
betean,
gogo guztiz beron oinetara makurturik
aginduen zain.

KLAUDIO

Esker mila, Rosenkrantz eta Gildensteren jator
hori.

GERTRUDE

Esker mila, Gildensteren eta Rosenkrantz jator
hori.

Erregutzen dizuet ber-bertatik bil zaitezten
ene seme hain ere aldatuarengana. Ea,
zuetarikoren bat,
eraman jaun prestuok Hamlet den lekura.

GILDENSTERN

Zeruak bitza gure presentzia eta jardunak
atsegin eta lagungarri egin harentzat!

GERTRUDE

Hala biz, amen!

*Badoaz ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN
(eta segizioko bat)
POLONIO sartzen da.*

POLONIO

Enbaxadoreak dira Norvegiatik, jaun gorenena,
bozkariotan itzuli.

KLAUDIO

Beti ere izan haugu berri on ekarle.

POLONIO

Hala ote, ene jauna? Zinez diotsat gorentasun
horri

eginbidez nagoela, arimaz bezala, guztiz
Jainkoaren eta ene errege onaren zerbitzura.
Eta nago —edo bestela ene garun honek
galduxa du zainketarako usnamen fina,
garai batean ohi zuenetik— aurkitu dudala
Hamleten zoramenaren kausa xuxena.

KLAUDIO

Mintza hadi, bada, irrikan bainago entzuteko.

POLONIO

Egin lehenago harrera enbaxadoreei:
ene berriak dirateke oturuntzaren azkenburuko.

KLAUDIO

Herorrek egiek aurretikooi harrera, eta ekarri
hona.

Badoa POLONIO.

Aurkitu omen du, Gertrude laztana, zure
semearen
gaitzaldi guztiaren jatorri eta iturburua.

GERTRUDE

Susmoa dut ez dela behinena baino:
aitaren heriotza eta gu bion ezkontza
presatuegia.

KLAUDIO

Tira, esango digu zehatz-mehatz.

POLONIO, VOLTEMAND eta KORNELIO sartzen dira.

Ongi etorri, ene lagun onak! Zer berri dugu
gure anaia Norvegiako erregearengandik?

VOLTEMAND

Adeitsu dio berorri itzultzen bihotzetik goraintzi.
Guk hitz bat egin orduko, bertatik ditu
deuseztarazi

bere ilobaren lebak, ezen uste zuen, nonbait,
Poloniako erregearen aurkako prestaketa zirela;
baina, hobeki azterturik, konturatu da
berorren gorentasuna zutela xede. Hala,
gaitziturik

inor halako jokutria gaiztoz baliatu izanaz
bera eri, zahar eta ezindurik egoteaz, hor dio
Fortinbrasi
gelditzeko agindua igorri. Hark men egin dio
eta,
erregeak agiraka eginik, hondarreko orobat zin
egin,
bere osabaren aurrean, ez diola sekula gehiago
arma-bidean ekingo berorren maiestatearen
aurka.
Horretan, errege zaharrak, pozez gainezka,
hiru mila koroa dizkio urteko saritzat ezarri,
eta eskumena eman leban harturiko soldaduak
Poloniako erregearen aurka erabiltzeko. Hala,
arren degio berorri, honako agiri honen
bitartez,
plazer dakiola traba gabeko iraganbide ematea
berorren lurraldean barrena, ekinaldi
horretarako,
agirian ezarri diren segurtasun-berme
eta baldintzen pean.

KLAUDIO

Egoki deritzogu;
eta asti eta beta dugunean dugu irakurriko,

erantzun, eta gogoeta egin kontu guztiaz.
Bitartean, ongi bideraturiko lanarengatik
milesker zuei.

Zoazte atsedean hartzera; arratsean ospakizuna
dugu.

Bihotzez ongi etorri.

Badoaz VOLTEMAND eta KORNELIO.

POLONIO

Horra ongi burutua egitekoa.

Jaun gorena, erregina, hemen itaunka hastea
zerik datekeen maiestatea, zerik eginbidea,
zergatik

eguna egun den, gaua gau, eta denbora
denbora,

litzateke alferrik galtzea gaua, eguna eta
denbora.

Beraz, laburtasuna denez antzearen arima-
mama,

eta hitzaspertasuna, berriz, adar-mentu
loratuak,

labur nadin mintza: berorren seme jatorra
eroturik dago.

Eroturik edo: ezen, egiazko eromena
definitzeko,
ez al luke batek, hain zuzen, eroturik egon
behar?

Bego, baina, horrenbestean.

GERTRUDE

Mami gehiago, eta apaingarri gutxiago.

POLONIO

Andrea, zin degizut apaingarririk gabe
dihardudala guztiz.

Eroturik dagoela, egia da; egia da hori tamala
dela;

eta tamala da hori egia izatea: figura txoro bat,
horra;

baina utikan, ez baitut apaingarririk erabili nahi.

Jo dezagun eroturik dagoela, hortaz. Geratzen
zaigu

jakiteko, bada, efektu horren kausa,
edo, hobeki, defektu horrena, zeren halako
defektuzko efektuak bere kausa behar baitu.

Horra zer den geratzen, eta geratzen dena
hauze. Hara:

badut nik alaba bat —badut, izan, enea den
bitartean—;

hartxek, bada, bere eginbidean zintzo eta
esaneko,
honako hau eskuratu dit. Zerorrek atera
ondorioak.

Irakurtzen du gutuna.

«Ofelia zerutiar, guztizko eder-jantzi
eta ene arimaren idolo horri»
Traketsa esapidea, dorpea: «eder-jantzi»
esapide dorpea da.

Baina entzun, hara:
«haren bihotz-golko zuri ezinagoari
gomendaturik, honakook, eta abar».

GERTRUDE

Hamletek igorria al da?

POLONIO

Andrea, bego lipar batez; fidel izango naiz.
«Duda ezazu izarrak diren su;
duda ekia mugitzen ote den;
duda egia ez ote den faltsu,
baina inoiz ez duda bihotz honen.

Oi Ofelia laztana, olerkari traketsa nauzu;
ez dakit neure lantuok neurtizten; baina

maiteen maite zaitudala, ezin maiteago, sinetsi.

Adio.

Zerorrena sekula betiko, laztanen laztan
hori,

biziaren ahala berekin dueno, HAMLET.»

Hauxe dit, zintzo-zintzo, neure alabak erakutsi,
eta, horrez gainera, maite-solasok
zein noiz diren gertatu, nola eta non,
zehatz-mehatz dit jakinarazi.

KLAUDIO

Baina nola hartu du mutilaren bihotz-erakutsia?

POLONIO

Zer derizt berorrek niri?

KLAUDIO

Gizon leial eta prestua deritzut.

POLONIO

Hala ahalegintzen naiz. Baina zer ote
zeritzokeen berorrek,
ikusi nuelarik maitasun bero hori hegan
—esan behar baitut ezen alabak esan aurretik
erreparatu niola nik—... Zer ote zeritzokeen
berorrek,

edo ene maiestate erregina laztan horrek, zer,
isilmandatuon jasotzaile hutsarena egin banu,

edo neure bihotzari begiak itxiarazi, mutu eta
gor,

edo garrantzirik eman ez, nagi, ikusten
nuenari?

Zer ote zeritzokeen berorrek? Ez, zuzenean ekin
nion,

eta esan beharrak esan gure alaba horri,
honela:

«Hamlet gaztea printzea dun, hire mailatik
gora;

ez dun, bada, gisa». Eta hala agindua eman
nion

itxi ziezaiola atea harekiko tratuari,
ez zezala onar mezularirik, ez esku-erakutsirik
har.

Horrenbestez, bere fruitua jaso zuen ene
aholkuak;

eta Hamlet printzea, gaitzetsirik —hitz
laburretan esateko—

tristurara amildu zen, eta gero baraura,
hurrena lorik ezera, handik ahuleziara,
hortik txolintasunera, eta, hala, amilbide
horretan,

orain datzan eta guztiok dolu-penetan gauzkan

eromen eldarniotsura.

KLAUDIO

Hori dela uste al duzu?

GERTRUDE

Baliteke. Ziur asko.

POLONIO

Gertatu al da inoiz —jakin nahi nuke—
nik argi eta garbi «Hala da» esan,
eta bestela izatea gauzarik?

KLAUDIO

Ez nik dakidala.

POLONIO (*bere buru-sorbaldak
seinalaturik*)

Banatu gaineko hau azpikotik, hala ez bada
hori.

Egokiera lagun, bistaratuko dut, bai, nik
egia gordea, lurraren zentroan
gorderik balego ere.

KLAUDIO

Nola egiazta dezakegu hori areago?

POLONIO

Jakina da ibili eta ibili jardun ohi duela
batzuetan
hemen lorioan barrena.

GERTRUDE

Hala da, baiki.

POLONIO

Halako batean, neure alaba jaregingo diot.
Gauden berori eta biok tapiz baten atzean
orduak.

Erreparatu topaketari: mutilak maite ez badu
eta burutik eginik ez badago hori dela eta,
ez nadila izan gehiago gorteko arduradun,
baizik landetxe bateko kortazain.

KLAUDIO

Egingo dugu saioa.

HAMLET sartzen da, liburu bat irakurriz.

GERTRUDE

Horra, baina, non datorren gizagaixoa itunki
irakurriz.

POLONIO

Segi hemendik, otoi, maiestateok. Oraintxe dut
berarengana joko. Bion baimenarekin.

Badoaz KLAUDIO eta GERTRUDE

Zer modu, ene printze Hamlet?

HAMLET

Ongi, lagun, milesker.

POLONIO

Ezagutzen al nau berorrek, jauna?

HAMLET

Ederki ezagutu ere: arrain-tratularia zara zu.

POLONIO

Ez ni, jauna.

HAMLET

Nahi nitek, bada, halako gizon zintzoa bahintz.

POLONIO

Zintzoa, jauna?

HAMLET

Baiki: zintzo izatea, mundu hau doan legez,
hamar mila laguneren artean bat izatea da.

POLONIO

Oso da hori egia, jauna.

HAMLET

Ezen eguzkiak harrak hazten baditu zakur
baten gorpuan,
musukatzeko sarraski ederra izaki... Baduk
alabarik?

POLONIO

Badut, bai, jauna.

HAMLET

Ez utzi eguzkitan ibiltzen: zoragarria da sorkundea.

Baina ez hire alaba izanik bere baitan sortzaile. Emak kasu, lagun.

POLONIO (*bereiz*)

Hara berriz ere! Ene alabaren leloarekin beti. Ez nau ezagutu, ordea, hasieran; zera, arrain-tratularia nintzela. Joana dago, joana guztiz.

Gaztetan gaitzaldi latzak pairatua naiz ni maitasun kontu; ia-ia honenbestekoak. Mintza nakion osterera ere. —Zer ari da irakurtzen berori?

HAMLET

Hitzak, hitzak, hitzak.

POLONIO

Zertaz dihardu?

HAMLET

Jardun, nork?

POLONIO

Berori irakurtzen ari den liburuak, alegia.

HAMLET

Kalumniak, lagun; satiragile doilorrak baitio,
hara,
urdinduak dituztela agureek bizarrak, haien
aurpegiak
zimurturik daudela, begiei erretxina lodi eta
aranondo-goma dariela, eta aurki nagusitzen
zaiela
buru-eskasia, guztizko zango-ahultasunarekin
batera...
Ez baiteritzot egoki, bete-betea sinetsi arren
hala dela,
haatik honela idatziz jasotzea halakorik. Izan
ere,
zerori, lagun, ene adineko zinateke, baldin
karramarro antzo
atzera egin ahal bazeneza.

POLONIO (*bereiz*)

Zoroa zoro, burutsu eta xuxen dihardu berean.
—Nahi al du berorrek airetik babesera bildu,
jauna?

HAMLET

Hilobi barrura, alegia?

POLONIO

Halaxe da bai hura, airetik babesean.

(berez)

Zeinen ateraldi argiak dituen batzuetan! Xuxen
asmatzen

baitaki maiz eromenak, arrazoi eta zentzu
onaren aldean.

Noan hemendik, eta berehala presta dezadan,
bai,

honen eta ene alabaren arteko topaketa. —Jaun
agurgarria,

apaltasun osoz baimena diot berorri eskatzen
partitzeko.

HAMLET

Ezin didak, bada, deus ere eskatu gogotsuago
nagoenik

gainetik kentzeko. Neure bizia salbu, neure
bizia salbu,

neure bizia salbu.

POLONIO

Adio, jauna.

HAMLET

Agure zoroon gogaikarria!

ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN sartzen dira.

POLONIO

Hamlet printzearen bila bazabiltzate, horra hor.

ROSENKRANTZ (*POLONIORi*)

Jainkoak guarda.

Badoa POLONIO.

GILDENSTERN

Ene jaun ohoragarria!

ROSENKRANTZ

Ene jaun bihotzekoa!

HAMLET

Ene adiskide bikainok! Zer modu, Gildenstern?

Ah, Rosenkrantz! Zer dugu, mutilok?

ROSENKRANTZ

Hementxe, mundura jaioen ginoan.

GILDENSTERN

Zoriontsu, alegia zoriontasunean goregi ez egotez;

Fortunaren kapeluan ez gara punta-puntako mortxila.

HAMLET

Ezta haren zapata-zola ere?

ROSENKRANTZ

Ezta ere, jauna.

HAMLET

Orduan haren gerri parean-edo zarete bizi; hots, haren fabore artean?

GILDENSTERN

Mami-mami eginik, barren.

HAMLET

Fortunaren isilpeko txokoetan? Oi, jakina: dama hori lotsagaldu galanta da eta. Zer berri dakarzue?

ROSENKRANTZ

Batere ez, jauna, ez bada mundua zintzotu dela.

HAMLET

Hurbil dugu hortaz Azken Juizioko eguna: ez dira, baina, berriok egia. Uztazue zehazkiago galdetzen: zer zigor dizue, lagunok, fortunak ezarri,

honako presondegi honetara ekar zaitzaten?

GILDENSTERN

Presondegi, jauna?

HAMLET

Danimarka presondegi bat duk.

ROSENKRANTZ

Hortaz halaxe da mundua ere.

GERTRUDE

Eder-ederra, zeinean ugari baitira giltzapeak,
espetxeak

eta leotzak, Danimarka izaki okerrenetarikoa.

ROSENKRANTZ

Guk ez deritzogu horrela, Jauna.

HAMLET

Tira, orduan ez da batere zuentzat; ezen ez da
deus

ez on ez txar denik, baizik iritziak halakotzen
du:

enetzat presondegi bat da.

ROSENKRANTZ

Berorren handinahiak du halakotzen: meharregi
zaio berorri.

HAMLET

Hara, intxaur oskol batean barruturik ere,

espazio infinituaren erregetzat neukake neure
burua,
ez izatera amets gaiztorik.

GILDENSTERN

Handinahi hutsa, hain zuzen, ametsok; zeren
handinahiaren
benetako sustantzia ez baita amets baten itzala
baino.

HAMLET

Ametsa bera itzal hutsa da.

ROSENKRANTZ

Zinez, eta hain deritzot nik handinahiari aire-
antzeko
eta arin, ezen ez baita itzal baten itzala baino.

HAMLET

Orduan eskaleak hezur-mami ditiagu, eta
monarkak eta
heroi goitituak eskaleen itzal huts. Joango al
gara gortera?

Ezen, alafede, ez bainaiz argudiatzeko gai.

ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN

Lagun egingo diogu berorri.

HAMLET

Ez halakorik: ez zaituztet sartu nahi neure
gainerako
zerbitzarien sailean; ezen, zintzo mintzatzeko
zuen aurrean,
laguntzaile izugarri txarrez inguraturik nago.
Baina, otoi,
adiskide-lege jatorrean, zerk zakartzate
Elsinore-ra?

ROSENKRANTZ

Berorri bisita egiteak, jauna, besterik gabe.

HAMLET

Neure arlotean, eskerrez ere txiro nauzue,
baina
eskertzen dizuet. Noski ene eskerrek, lagun
maiteok,
ez dute arditik ere balio. Ez al zaituzte inork
etorrarazi?
Zeuen jaidura izan al da? Zeuen borondatea?
Ea, bada,
zintzo jokatu enekin. Ea, mintza zaitezte
bebingoan.

GILDENSTERN

Zer nahi du esatea, jauna?

HAMLET

Edozer, hara, baina harira datorrena. Etorrarazi
zaituztete,
eta aitoren moduko bat ageri da zuen
begitarteetan,
itxurak gorderik margoz apain-estaltzeko gai ez
zaretena:
badakit errege-erregina gureek zaituztetela
etorrarazi.

ROSENKRANTZ

Zer jomugarekin, jauna?

HAMLET

Hori zuengandik beharko jakin.
Konjura zaitzatedan, alabaina,
gure kidesunaren izenean,
gure elkartasun gaztetatikoaren,
orainokoan zintzo eutsi diogun bihotz eta
estimua
eta, zer ere preziatuagorik bailekioke
hiztun abilago bati otu zuen konjuragarri,
haren ere izenean, zuzen eta zelai
agertzeko niri ea etorrarazi zaituzteten ala ez.

ROSENKRANTZ (*bereiz GILDENSTERNi*)

Hik zer diok?

HAMLET (*bereiz*)

Kasu, begira nagokizue.

—Estimatzen banauzue, ez egin orain atzera.

GILDENSTERN

Etorrarazi gaituzte, jauna.

HAMLET

Nik dizuet esango zergatik;

hala aurrea hartuko diot aitorpenari, eta
errege-erreginekiko zuen isil-itunak lardastu
gabe du iraungo.

Azken aspaldion, zer dela-eta ez dakit,
neure poz guztia galdu dut, neure jardunbide
oro

bertan behera utzi. Izan ere, hain da hori lor
astuna

ene gogo-aldartean, ezen egitura ikusgarri hau,
lurra, tontor antzu halako bat baitzait iruditzen.

Gainestalki bikain ere bikain hori, airea,
ikusak,

hor goiko ortzi garai bipila, urrezko suz
apainduriko

sabai maiestatetsu hori, hara, ez zaidak niri
lurrun-bilkura satsu eta kirats bat
besterik. Nolako maisulana den gizona!

Zeinen noblea arrazoimenez, zeinen
infinetua gaitasunez; formaz eta
mugimenduz zeinen aiutua eta
miresgarria; ekintzaz zeinen aingeru-
halakoa;

ulermenez zeinen jainko-gisakoa...

Munduko ederren ederra! Animalien eredu
gailena!

Eta haatik, enetzat, zer da hautsaren mami
finen hau?

Gizona ez zaidak atsegin...

Ez, ezta emakumea ere, nahiz hire irribarreak
hori iradoki.

ROSENKRANTZ

Jauna, ez zen halakorik ene pentsamenduetan.

HAMLET

Zergatik irribarre hori, bada,
nik «gizona ez zaidak atsegin» esatean?

ROSENKRANTZ

Pentsaturik, jauna, gizona atsegin ez bazaio,
nolako

garizuma-tratua emango dien berorrek
antzezleei.

Atzean utzi ditugu bidean, hona baitatoz

berorri eskaintzera beren zerbitzuak.

HAMLET

Erregearena egiten duena ongi etorria biz:
bere maiestateak beza dagokion ordaina jaso
ningandik; zaldun menturazaleak bitza
ezpata eta babeskia erabil; maitaleak ez
beza doan egin hasperen;
txantxatiak bakean beza bere partea burutu;
pailazoak bitza barrez leherraraz
beren birikak desarratzeko pronto daudenak;
eta damak ere oztoporik gabe beza jardun
solasean:
herrenka ibiliko da eta, bestela, punturik
gabeko bertsoa.

Zer antzezle dira?

ROSENKRANTZ

Berorri halako atsegin zitzaizkion haiek berak,
hiriko tragediagileak.

HAMLET

Nolatan dabilta bidez bidez? Beren egoitza, bai
sonaz
eta bai etekinez, hobe zuten alde bietatik.

ROSENKRANTZ

Ustez, arestiko istiluak direla-eta etorri zaie debekua.

HAMLET

Ni hirian nintzenean bezain ospetsu al dira oraino?

Hainbesteko arrakasta al dute?

ROSENKRANTZ

Ez horixe.

HAMLET

Nola liteke? Kaxkartu dira, ala?

ROSENKRANTZ

Ez, ez, poliki eusten diote lehengo mailari.

Baina

horra non den sortu habia bete haur, nor baino nor

garrasika diharduten belazkumeena, eta jendeak

itsuski ditu txalotzen horregatik.

Haiexek daude orain modan,

eta hain uhukatu eta gaitzetsiak, aldiz, antzoki arruntak

—hala deitzen diete—, ezen hainbat ezpatadun bapo,

antzar-lumen beldur, doi-doi ausartzen baita
bertaratzera.

HAMLET

Haurrak, diok? Nork ditu mantentzen? Zer
babes dute?

Eutsiko al diote lanpostuari halako txinta-
kantari

gehiago ez direnean? Ez al dute esango gerora,
baldin antzezle arrunt bilakatzen badira

—oso litekeena baita, egokiera hoberik ezean—
kalte egiten dietela idazleok gaizki esaka
jardunaraziz

beren etorkizunaren aurka?

ROSENKRANTZ

Alafede, izan da esatekorik asko alde bietan;
eta herriak

ez dauka hobentzat tirabirara xaxatzea
alderdiok.

Bolada batean, sosik ere ez zuen inork ematen
argumentu batengatik, non eta poetak eta
antzezleak

ez zioten elkarri egurra ematen poliki.

HAMLET

Ba ote?

GILDENSTERN

Oi, ederki xahutu dituzte burmuinak kontu horrekin.

HAMLET

Eta mutikoek al diete aurrea eraman auzian?

ROSENKRANTZ

Horixe eraman; baita Herkules ere bere zamarekin.

HAMLET

Ez duk oso harritzekoa ere, ezen ene osaba Danimarkako errege duk, eta ene aita bizi zelarik
aurpegira imintzioak egiten zizkiotenek hogeit berrogei, berrogeita hamar, ehun dukat dituzte orain ordaintzen
beraren erretratu miniaturazko batengatik.
Alazankoa, baduk horretan zerbait naturaz gehiagokoa,
filosofia xuxen atzemateko gauza balitz.

Turuta-hotsa.

GILDENSTERN

Horra hor antzezleak.

HAMLET

Jaunok, zaretela ongi etorri Elsinorera. Eman bostekook.

Ongi etorriari eder zaio adeitasuna eta zeremonia.

Uztazue gisa honetan egiten zuekiko kunplizioa, ez dadin antzezleekikoa —zeina, jakizue, ez baita

nolanahikoa izango— zuekikoa baino txera hobekoa ager.

Ongi etorriak zarete, baina ene osaba-aita eta izeba-ama oker dabilta.

GILDENSTERN

Zertan, jauna?

HAMLET

Ipar-ipar-ekialdez baino ez nago zoro; haize hegoarekin ongi bereizten dut belakitik belatza.

POLONIO sartzen da.

HAMLET

Adi, Gildenstern, eta hi ere bai: belarri bakoitza entzule bat. Horrako umetzar horrek

bere haur-oihaletan bildurik dirau oraindik.

ROSENKRANTZ

Menturaz bigarrenez itzulia da haietara, ezen birritan omen da agurea ume.

HAMLET

Profezia dagit antzezleen berri dakarkidala.
Erne.

—Zuzen zabilta, lagun, hara, astelehen
goizean, hain zuzen.

POLONIO

Jauna, berriak dakartzat berorrentzat.

HAMLET

Jauna, berriak dakartzat berorrentzat.
Roszio aktore zelarik Erroman...

POLONIO

Hemen ditugu aktoreak, jauna.

HAMLET

Zera!

POLONIO

Ene ohoreagatik zin...

HAMLET

Han ziren heldu asto banatan aktoreak...

POLONIO

Munduko aktorerik hoberenak; dela
tragediarako,
komedia, historia, pastoral, pastoral-komiko,
historiko-pastoral,
tragiko-historiko, tragiko-komiko-historiko-
pastoralerako;
ekitaldi bakar zein pieza librerako.
Seneka ez zaie astunegi, ezta Plauto ere
arinegi.
Idatz-arau zein askatasunerako, ez da hauen
parekorik.

HAMLET

Oi Jefte, Israelgo juje, nolako altxorra hirea!

POLONIO

Nolako altxorra zuen, jauna?

HAMLET

Hara:

«Alaba bakarra eta besterik ez,
arras baitzuen hark bihotzetik maite.»

POLONIO (*bereiz*)

Nolako tema ene alabarekin.

HAMLET

Ez al nabil zuzen, Jefte xaharra?

POLONIO

Berorrek Jefte deitzen didanez, jauna, badut
alaba bat
arras bihotzetik maite dudana.

HAMLET

Ez, ez zoak hortik kontua.

POLONIO

Nondik, bada, jauna?

HAMLET

Hara:

«Zoriaren itun, Jainkoa jakitun»

eta gero, noski:

«Gertatu zen, hara, gertatu beharra»

Kanta zintzoaren lehen herronkan bila dezakezu
segida, ezen horra non datozen ene
jostagarriak.

Lauzpabost ANTZEZLE sartzen dira.

Ongi etorri, jaunak, ongi etorri guztioi. —Poz
hartzten diat
ongi haizela ikusirik. —Ongi etorri, adiskideak.
—Oi, ene lagun xaharra!

Azpilduraz jantzia duk aurpegia azkeneko
alditik:

niri bizar-erronka jotzera heldu al haiz
Danimarkan?

—Zer dugu, ene damatxo galant hori?
Andremariarren,

zerutik hurbilago dago berori orain hurrenetik
hona,

txapin baten altueraz. Ez ahal zaio ahotsa,
urrezko

txanpon baliogabea legez, ertzetik barrura
pitzatuko.

—Jaunak, ongi etorri guztioi. Ekin, ekin, bertatik,
frantses belatzari modura: zer ikusi, hari jauzi.
Iguzue solas bat betan. Ea, erakutsi zertarako
gai zareten;

solas sutsu bat iguzue.

LEHEN ANTZEZLEA

Zein solas, jauna?

HAMLET

Solas bat esaten entzun hindudan behin,
baina ez zuan inoiz antzeztu,
edo, antzeztu bazen, ez behin baino
gehiagotan; ezen obra,

gogoan diat, ez zitzaioan laket izan jendetzari:
kabiarra zuan ahogozo arruntarentzat.

Baina —enetzat, eta beste batzuentzat, zeinen
iritzia

ospez gailentzen baitzaio eneari halako
gaietan—

antzezlan bikaina zuan, atalez atal ongi
antolatua, begiramen bezain talentu
handiz idatzia.

Gogoan diat batek nola esan zuen ez zela
bertsoetan

gatz-piperrik gaia bixitzekorik, ez eta jardunean
ere deusik

egilea manerakeriaz salatzeikorik; baizik eta
jokabide zintzoa zeritzola. Solasetariko bat izan
nian nagusiki gogoko: Eneasek Didori
eginikoa,

eta, hartatik, bereziki Priamoren hilketaz mintzo
denekoa.

Bizirik badaukak oroimenean, has hadi
honako bertso honetatik... ea, nola zen...:

«Pirro latza, Hirvaniako piztiaren antzo...»
ez duk hala... Pirrorekin hasten duk...

«Pirro latzak, hura zeinaren arma-jantzi
goibelek,
bere asmoa bezain ilunbeltz, gaua
baitziruditen
zaldi asturugaitzean ezkutaturik zetzala,
bere eite beltz ikaragarri hori du orain
jantzi
armarri-margo itzalagoz: burutik
behatzetaraino
gorrizontaturik dago zeharo, laborrigarriro
listurik
hainbat aita, ama, alaba, semeren odolez,
erre-oreturik odol hori kale kiskalietan,
zeinek argi krudel eta madarikatu bat
baitiote ezartzen
beren nagusien hilkintzari. Amorru eta suak
txigorturik,
odol-zolda gatzatuz gainestali eta hanturik,
karbunklo halako begiz, Pirro infernutiarrak
Priamo aitaso zaharra bilatzen du.»

Ea, segi zuek.

POLONIO

Alajainkoa, jauna, ederki emana, doinu onez
eta taxu egokiz.

LEHEN ANTZEZLEA

«eta bertan du aurkitzen
grekoen aurka alfer-ukaldika; ezpata
zaharra,
besoari ez jaramon, jausiriko lekuan datza,
aginduari muzin eginez. Jokoa alde
nabarmen,
Pirrok Priamori ekin, eta huts egin du
amorruz;
baina haren ezpata-ukaldiaren haize-
zafradaz
aitaso erkindua hor doa lurrera.
Orduan Ilion sentigaitzak,
kolpea somaturik irudi, gailurrak sugarrez
hor lur jo du bertan, eta arrabots lazgarri
batez
Pirrori dio belarria bahitu: hara non haren
ezpata,
Priamo agurgarriaren buru xurira heltzear,
zur eginik antzo den gelditzen airean.
Han da Pirro gelditu, tirano margotu baten
gisa,
bere xedea burutzeko soraio irudi,
deus egin gabe.

Baina, nola baitakusagu maiz, ekaitzaren
bezperan,

zeru goiak oro isil, hodeitza geldi-geldi,
haize bipilak mintzogabe, eta beheko
lurbira

herio bezain mutu, ostots ikaragarriak
duela betan

ortzia urratzen, hala, geldiunearen ondoren,
mendeku-su bizi batek deragio berriz
Pirrori;

eta ez da ziklopeen mailua sekula
Marteren armadura beti irauteko
forjatuaren gainera

gupida gutxiagoz jausi, nola baita
Pirroren ezpata odoltsua
orain Priamoren gainera jausten.

Ut, ut, Fortuna lotsagaldu hori! Jainko-
jainkosok,

osoko biltzarrean kendu horri boterea;
izpi-makolak oro hautsi haren gurpilari,
eta amilarazi abatza zeruko muinoan
behera

eta infernu zuloraino!»

POLONIO

Luzeegi duzu.

HAMLET

Bizarginarenera bidaliko zaituztegu biok ere —
Otoi, segi.

Jostirudiak edo berdekeriak nahi ditik honek;
bestela,

lo hartzen dik. Segi, ea: Hekubaren pasarte.

LEHEN ANTZEZLEA

«Baina nork ere, oi, ikusi baitu erregina
buru-estalia...»

HAMLET

«Erregina buru-estalia?»

POLONIO

Ongi da; «erregina buru-estalia» ongi da.

ANTZEZLEA

«oinutsik hara-hona lasterka, garrei gogor
eginez

malko-jario itsugarritz; zapi bat dramalarik
lehen diademaz apainduriko buruan, eta
jantzizat,

soin argal eta haurgintzak maiztua estaliz,
burusi bat, izuaren asalduan atzema...

Nork ere ikusi baitu hori, zitalez blaituriko
mihiz

Fortunaren aurka duke traizio-epaia
emango.

Jainko-jainkosek berek balute orduan ikusi,
noiz eta baitzuen berak abelera gaiztoz
ikusi Pirro

ezpataz txikitzen senarraren gorputz atalak,
erreginaren auhen zorrotzak behar
zituzkeen,

non eta hilkorroz guztiz axolagabe ez diren,
erruki-malkoz urtarazi zeruko begi izekiak,
jainkoon samin betean.

POLONIO

Ez ote zaio, hara, kolorea mudatu eta malkoak
begietaratu.

—Otoi, gehiagorik ez.

HAMLET

Ongi duk. Aurki dukek aukera gainerakoa
esateko.

—Jaun prestua, zainduko al duzu antzezleok
ostatu ona

izan dezaten gurean? Aditu?: ongi trata
ditzatela,

berak baitira gizaldiaren bilduma eta kronika
laburra.

Hil ondoren epitafio txar bat hobe dukezu,
bizi zarela hauen iruzkin gaiztoa baino.

POLONIO

Jauna, merezi duten arabera tratatuko ditut.

HAMLET

Jainkoaren gorputz santua, askoz hobeki!
Tratatu gizon bakoitza merezi duen bezala,
eta nor libratuko da azotetik? Trata itzazu
zeure ohore eta duitasunari dagokion bezala:
zenbat eta gutxiago merezi,
orduan eta merezimendu handiagoa dukezu
zeure eskuzabaltasunean.
Eramaitzazu.

POLONIO

Zatozte, lagunok.

HAMLET

Zoazte berarekin, adiskideok.
Antzezaldia izango dugu bihar.

*Gainerakoak POLONIOrekin doazela,
LEHEN ANTZEZLEA bereiz hartzen du.*

Aizak, lagun xahar, antzez al dezakezue
Gonzagoren Hilketa?

LEHEN ANTZEZLEA

Bai, jauna.

HAMLET

Bihar arratsean jokatuko duzue.
Ikas zenezakete, behar izanez gero,
dozena bat edo hamasei lerroko solas bat, nik
idatzi
eta obran txertatua?

Bai, ezta?

LEHEN ANTZEZLEA

Bai, jauna.

HAMLET

Ederki. Hoa jaun horrekin, eta begiratu
berari burla egitetik.

Badoa LEHEN ANTZEZLEA.

Adiskide onak, arratsera arte adio. Ongi etorri
Elsinorera.

ROSENKRANTZ

Agur, bada, jauna.

Bai, Jainkoa biz zuekin. —Orain bakarrik nago.

Oi, ene doilorra, naizen jopu dongea!

Ez al da gauza dorpea horrako antzezle hori,
alegiaren ametsez, itxura hutsezko

sentimenduz,

gai izatea gogoaren betera behartzeko bere
arima,

halatan non aurpegia zeharo zurbiltzen
baitzaio,

negarra begietan, hazpegiak nahasiak,
etenik ahotsa, eta jardun guztia egokiturik
gogoan darabilen irudira? Eta hutsarengatik
oro.

Hekubarengatik?

Zer da Hekuba horrentzat, edo zer bera
Hekubarentzat,

hartaz negar egin dezan? Zer egingo luke,
sentimendurako nik dudan zio eta dei larria
balu? Antzokia luke, hara, malkoz itoko
eta solas lazgarriz erdiratuko guztien belarria;
erruduna erotu eta errugabea laborritu;
ezjakina txunditu, eta harri eta zur eginik utzi,

baiki, begi-belarrien ahalak berak. Ni, aldiz,
arrote alfer lohi-zaku hau, hor nabil lelo-lelo,
Peru Amets halako, neure eginbeharrerako
nagi,

eta ez naiz gai deus esateko. Ez, ezta errege
batengatik,

zeinari, bere bizi preziatuarekin batera,
guztia baitzioten doilorki kendu. Koldarra al
naiz?

Nork dit bilau deitzen, burutik behera jotzen,
bizarra erauzten eta harekin aurpegira putz
egiten,

sudurretik tira egiten, gezurti gaitzesaten
aurpegi-aurpegira? Nork dit halakorik egiten?

Tira:

baietz jasan nik, alazankoa, hori ere! Bada,
antza,

uso baten gibela dut, eta behazuna falta
laidoa mingosteko; bestela, dagoeneko
gizendu nituzkeen aireko miruak oro
doilor horren barrukiekin. Bilau odoltsu, lizuna!
Bilau lotsagabe, traidore, likits, kastagaldua!
Oi, mendeku!

Ene dorpea, alabaina! Ederki ematen du, gero,

nik, aita laztana hala hil diotenaren seme
honek,
zeru-infernuek bultzatua mendekuzko
ordainera,
puta baten modura hitzez lasaitu beharra
barrena,
madarikazioka, emazirin alproja baten modura!
Hau lotsaria, oi!
Ekin, ene burmuin... Entzuna dut nola
antzezpen bat ikusten ari ziren errudun batzuei
eszenaren bizitasun petoak hain zien
arima barneraino eragin, non hantxe bertan
aldarrikatu baitzituzten beren gaizkintzak.
Bada, mihirik ez badu ere, badaki hilketak
organo miragarriz mintzatzen. Antzezleoi diet
aitaren hilketaren antzeko zerbait jokaraziko
osabaren aurrean. Ez diot begirik kenduko,
haragi biziraino barrenduko natzaio. Zirkin bat
aski,
nola jokatu jakiteko. Ikusi dudan izpiritua
deabrua izan liteke, eta deabruak badu ahala
itxura atseginez janzteko. Bai, eta, ausaz,
ene ahultasun eta malenkoniaz baliaturik
—hagitzindartsua baita halako aldartez—,

kondenatzeko nau engainatzen. Froga
nabariagorik
baduket aurki: antzezpena biz xedera baten
antzeko:
erregearen kontzientzia han dut nik
atzemateko.

Badoa.

III.i

*KLAUDIO, GERTRUDE, POLONIO, OFELIA, ROSENKRANTZ eta
GILDENSTERN sartzen dira.*

KLAUDIO

Eta ezin al diozue solasaren zeharbidez atera zergatik agertzen duen nahasmen hori, hain zakar kraskatuz orain arteko patxada asaldu eta arrisku biziko zoraldi larriz?

ROSENKRANTZ

Aitor du, bai, buru-nahasturik sentitzen dela, baina zer dela-eta, ez digu inolaz esan nahi.

GILDENSTERN

Eta ez baita ageri hizpidean barrentzeko prest, baizik, zoramen maltzurrez, entzungor egiten du bere benetako egoeraren berri ematera ekarri nahi dugunean.

GERTRUDE

Ongi hartu al zaituzte?

ROSENKRANTZ

Jaun bati dagokion adeitasun osoz.

GILDENSTERN

Hagitx beharturik, hala ere, bere aldarlean.

ROSENKRANTZ

Solasbidez zeken; baina, gure galdeetara, prest-prest erantzuteko.

GERTRUDE

Denbora-pasaren batera tentatu al duzue?

ROSENKRANTZ

Andrea, egokitu da antzezle batzuk guk bidean aurreratzea. Haietaz hitz egin diogu, eta pozgarri agitu zaio, inondik ere, berria. Gortean dira jada antzezleok, eta, ustez, agindua ere emana arratsean printzearen aurrean aritzeko.

POLONIO

Halaxe da; eta arren eskatu dit maiestateoi erregutzeko entzun eta ikustera bil daitezen saiora.

KLAUDIO

Bihotz-bihotzez bildu ere. Biziki pozten naiz aldarte horretan dela jakinik. Jaun onak, akuila ezazue oraino ere printzea, eta bidera haren gogoia atsegin jostagarriotara.

ROSENKRANTZ

Hala egingo dugu, jauna.

Badoaz ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN.

KLAUDIO

Gertrude laztana, utz gaitzazu zuk ere,
bada mandatu egin diogu Hamleti hona dadin,
hala, halabeharrez irudi, topo egin dezan
hemen Ofeliarekin.

Haren aita eta biok, legezko barrandari,
halako gisaz kokatuko gara, non, gordean
ikusle,

aukera izan dezagun topaketa xuxen epaitzeko,
eta antzemateko, mutilaren portaeratik,
ea amodiozko samina duen ala ez
hala sufriarazten diona.

GERTRUDE

Zure esanera.

—Eta zuri dagokizunez, Ofelia, esperantza dut
zure xarma ederrok izatea Hamleten
eroaldiaren
zorieko kausa; eta berdin dut espero zure
bertuteek

bide egokira itzularaz dezaten printzea,
zuen bion ohorearen mesedetan.

OFELIA

Andrea, hala nahi nuke.

Badoa GERTRUDE.

POLONIO

Ofelia, hasi paseatzen hemen barrena. —

Maiestate,

plazer badu berorrek,

geure kokalekura joango gara. —Liburu hau
irakurri,

halako gogo-jardun itxurak apain-estal dezan
hire bakardadea. Maiz lepora dakiguken gaitz
hori;

ezin ukatu, alegia, debozioaren begitartez eta
eta onbidezko ekintzaz badakigula azukre-
zuritzen

deabrua bera ere.

KLAUDIO (*bereiz*)

Oi egiaren galanta!

Nolako zigorkada zorrotza solas horrek ene
kontzientziari!

Pailarda baten musua, apaingailuzko ore finez
ederreztatua,
ez zaio estaltzen duenari itsusiago, ene egintza
ene hitz guztiz margo-mozorrotoekin baino.
Oi hau zamaren astuna!

POLONIO

Entzun, hor dator. Aldara gaitezen, jauna.

Badoaz.

HAMLET sartzen da.

HAMLET

Izan, ala ez izan: horra hor auzia;
ea nobleago zaigun fortuna gaitzaren
harri eta gezikadak pairatzea, ala
nahigabe-itsaso baten aurka altxaturik
aurre egin eta azkena ematea nahigabeoi?
Hiltzea, lo egitea, besterik ez; eta lo horrez
amaituko balitzaizkigu, bihotz-minarekin,
haragiari berez datxezkon mila ezbeharrak ...
bai akabera irrikagarria horixe. Hiltzea, lo
egitea;
lo, ausaz amets egitea: horra hor, bai, koska;
ezen, herio-lo horretan zer amets datozkeen

bizi-lor hau gainetik ken dezagunean,
atzeragarri baitugu noski. Gogoeta horrek du
hain luzaro bizirik iraunarazten miseria.

Ezen, nork lituzke jasango munduaren ukaldiak,
zapaltzailearen makurra, harroaren destaina,
maitasun gaitzetsiaren penak, legearen geldoa,
kargudunen burgoikeria, eta baliozkoak etsi-
etsian

eskasarengandik jasotzen dituen purrustadak,
berak lezakeelarik bertan kito egin kontuaz
sastakai huts batez? Nork lituzke zamok
eramango,

bizi astun baten nekepean kexu-izerditan,
ez balitz heriotzaren —beraren mugatik
bidaiaririk itzultzen ez den lurralde
ikertu gabe horren— ondorengo zerbaiten
ikarak

gogoaztoratzen digulako eta hobetzat
joarazten

munduko gaitzak pairatzea, ezen ez oldartzea
ezagutzen ez ditugun beste batzuetara?
Hala gaitu kontzientziak koldar bilakatzen
guztiok;

eta hala du deliberoaren jatorrizko kolorea

arras gaizkitzen pentsamenduaren zantzu
zurbilak,

eta hainbat egiteko funts eta munta larrikok
horren kariaz du bere oldea bestetaratzen,
eta ekintza izena galtzen... Apal dezadan,
baina, ahotsa:

horra Ofelia ederra. —Ninfa, heure otoitzetan
oroit ene hoben guztiez.

OFELIA

Ene printze ona,
zer modu hainbeste egunetik hona?

HAMLET

Umilki eskerrak dizkizut; ongi, ongi, ongi.

OFELIA

Jauna, baditut berorren oroigarri zenbait,
aspalditik itzuli nahian nenbilenak.
Har bitza, bada, arren.

HAMLET

Ez, ez, nik ez. Nik ez dizut inoiz deus eman.

OFELIA

Ene jaun ohoragarria, ondo asko dakit baietz,
eta haiekin hain hats eztizko hitzak eskaini, non
balio handiagoa baitzuten. Urrina galdu baitute,
tori osteraz;

bihotz jatorrarentzat opariak baitira
baliogabetzen
emailearen gogo hotz-gogortzean.
Horratx, jauna.

HAMLET

Hara, hara! Zintzoa al zara?

OFELIA

Jauna!

HAMLET

Polita al zara?

OFELIA

Zer esan nahi du berorrek?

HAMLET

Bada, zintzo eta polita bazara, zure
zintzotasunak
ez lukeela traturik onartu behar zure
edertasunarekin.

OFELIA

Izan ote lezake edertasunak, jauna, harreman
hoberik
zintzotasunarekikoa baino?

HAMLET

Bai horixe; zeren edertasunaren ahalak aiseago
baitu

berezko zintzotasuna estalgile bihurtuko, ezen
ez
zintzotasunaren indarrak edertasuna bere
irudira
moldatu. Noizbait paradoxa zen hori, baina
garaiok
egiaztatzen dute. Behiala maite zintudan.

HAMLET

Sinetsi, hala sinetsarazi zenidan, jauna.

HAMLET

Ez zenidakeen sinetsi behar. Zeren bertuteak,
gure enbor zaharrear txertaturik, ezinbestean
baitakar
haren zaporea. Ez zintudan maite.

OFELIA

Engainatuago ni, orduan.

HAMLET

Hoa komentu batera.
Ala bekatari-sail baten ama nahi huke izan?
Ni hainbestean zintzoa naun, baina halaz guztiz
halako gauzez sala nezaken neure burua, non
hobe baitzatekeen sekula mundura ekarri ez
banindu amak.
Hagitz harroa naun, mendekaria, handinahia;

buruan kabitu ezinik guztira gaizbideak,
haiek itxuratzeko irudimen, edo gauzatzeko asti
faltaz.

Zer egiten dute ni bezalako jendeek
lurraren eta zeruaren artean narraska?

Miserable galantak, guztiok ere:
deus ez sinetsi gutako inori.

Habil, hoa komentu batera. Non da zuen aita?

OFELIA

Etxean, jauna.

HAMLET

Ongi zarratu, bada, atepak, ez dezan zoroarena
egin

bere etxe barruan baino. Adio.

OFELIA

Oi, erruki bekizue, zeru laztanok!

HAMLET

Esposatzen bahaiz, izurri hau emango dinat
ezkonsari:

xahu izanagatik izotzaren pare, aratz elurra
bezain,

ez haiz libratuko kalumniatik. Hoa komentu
batera, ea: adio. Edo, derrigor ezkondu
behar badun,

zoro batekin hadi ezkon; ezen gizon zuhurrek
ondotxo zakiten nolako adardun bidutzi
bilaka ditzakezuen zuek. Komentu batera, ea,
bizkor. Adio.

OFELIA

Oi zeruko ahalok, senda ezazue!

HAMLET

Bazakinat zuen pinturen berri, ondo jakin ere.

Jainkoak

aurpegi bat eman, eta beste bat apailatzen
duzue zerok.

Noiz brinkoka, noiz baratxe; orain zizipasaka,
gero

gaitzizenak jarriz Jainkoaren sorkariei, hurrena
ezjakintasuntzat zurituz nabarmenkeria. Kito,
bada;

aski nahasi zidan burua horrek. Akabo
ezkontzak.

Dagoeneko ezkonduak direnak, oro bat salbu,
bizi bitez;

gainerakoak, beude daudenean. Komentu
batera, ea.

Badoa.

OFELIA

Oi, halako giza eredu jatorraren galbidea!
Gorte-gizonaren, soldaduaren, eskoladunaren
begi, mihi, ezpata; erresumaren gala eta loria;
dotoreziaren miraila, moldeen moldea,
begirale ooren begiragarria... hala hondatua!
Eta nik, damen artean lur-jo tristen honek,
haren hitz gozo kantarien ezta dastatua,
hor dakusat buru argi, bikainetan bikainen hori,
ezkila finak nola, kirrinkaz soinu-garrazturik;
parerik gabeko gazte-lorearen eite eta tankera
zoraldiak hain zartarazia. Hau begion zoritxarra:
ikusia nik ikusi, eta hauxe ikusi beharra!

KLAUDIO eta POLONIO sartzen dira.

KLAUDIO

Maitasuna? Ez dauzka sentipenak haren kolore;
eta solasak ere, itxuragabe samarra arren,
ez zirudien ero batena. Badu zerbait ariman,
bere malenkoniak hortxe txitatzen duenik;
eta beldur naiz eskola haustean ez ote den
zerbait arrisku izango; hura, bada, eragozteko,

honako hau dut delibero bizkorrez erabaki:
Ingalaterrara da laster bizian abiatuko,
atzeraturiko gure zergen galdean.
Agian itsas eta herbeste-aldi horrek,
ikusmira berri anitzez, uxatuko dio
bihotzean errotuxe daukan kezka hori,
atergabe ari baitzaio bertan joka garuna,
bere senetik irtenarazirik. Zer deritzozue?

POLONIO

On egingo dio. Baina oraino enekiko daukat
maitasun ukatuan duela gaitz horrek
bere jatorri eta sorburu lehena. —Zer modu,
Ofelia?

ez diguzu eman behar Hamlet printzearen berri:
guztia entzun dugu. —Maiestate, berorrena da
azken hitza;

baina, egoki baderitzo, antzezpenaren ondoren,
bere ama erreginak diezaiola bakarka erregutu
bere samina agertzeko. Gogor egin diezaiola;
ni, berorren baimenarekin, aldean egongo naiz
elkarrizketari adi-adi. Hark antzematen ez
badio,

Ingalaterrara igorri, edo berorren zuhurtziak
ongien deritzon mugapean eman atxilo.

KLAUDIO

Egin bedi hala.

Handikien eromena guztiz zaindu beharra da.

Badoaz.

III.ii

HAMLET eta bizpahiru ANTZEZLE sartzen dira.

HAMLET

Otoi, ene ahotik entzun duan bezala eman
solasa,
arin ebakiz hitzak. Buila atera behar baduk,
berriz,
gurean antzezle askok legez,
aldarrikariari esanaraztea neukan neure
bertsook.
Eta ez ibili aldiro airea eskuekin mozten,
honela,
baizik emeki jardun guztian; zeren,
sentimentuaren jasa, ekaitz eta, xuxen
niokeenez,
zirimolaren erdi-erdian, hik behar baituk
baretasun neurritzko bat beti ere gorde, hura
goxatzeko.
Oi, guztiz gogo-mingarri zaidak atzematea
nola morrosko ileordedun nabarmen batek

jo eta txiki-txiki egina uzten duen pasarte
zirrargarri bat,
belarriak zartatuz beheko mailakoei; ez baitute
atzematen,
gehienek, tankeragabeko imintzio xebreak
eta zarata besterik. Azotera emango nitek nik
halakoa,
Termagant-en papera puztegatik:
Herodes herodesegitzea beste lukek hori.
Otoi, halakorik ez.

LEHEN ANTZEZLEA

Ene hitza du berorrek, jauna.

HAMLET

Otzanegi ere ez jardun, baizik heure sen onari
fida.

Egokitu ekintza hitzari, hitza ekintzari,
beti ere zorrotz harturik neurri eta mugatzat
naturaren begiramena. Ezen halako

gehiegikeria oro
antzerkiaren jomugatik at zagok; bada, haren
xede,

hastapenean bezala orain ere, beti izan duk,
eta duk, noski, ispilua jartzea naturaren
aurrean,

bere begitartea erakutsiz bertuteari,
makurtasunari berea, eta garaian garaiko
mundu bakoitzari bere irudi petoa. Hala, bada,
neurritz hara jo zein motz geratuz gero,
barrea eraginagatik ezjakinari,
atsekabe baino ezin zioke eman horrek
burujantziari; eta halako bakar baten iritzia
behar duk munta handiagokotzat eduki,
antzerki bete bestelako jenderena baino.
Ikusia nauk, bai, zenbait antzezle, eta beste
batzuk
famatzen entzun, are zeruarekin
parekatzeraino,
ez kristauaren mintzamoldea, eta ez kristau,
pagano
nahiz bestelako gizonen ibilera ageri gabe,
halako
arrandiaz eta marrumaz jarduten, non pentsatu
baitut
naturaren alogereko beharginen batzuek
eginak ote zituzten jendeak, eta ondo asmatu
ez,
hain dorpeki baitzuten antzeratu gizakia.

LEHEN ANTZEZLEA

Ustez hainbestean hartua diogu tamaina horri,
jauna.

HAMLET

Erabat ere har iezaiozue, bada. Eta ez utz
xelebrearena jokatzeko dutenei
berentzat idatzirik dagoena besterik esaten;
bada-eta halakorik, bere gisa barrez hasten
denik,
barre eragiteko zenbaitu ikusle lelori noski,
nahiz
bitartean zerbait erabakigarria egon jokoan
taula gainean. Bilaukeria duk hori, eta guztiz
itsusia
hala zoroaren paperean diharduenearen aldetik.
Ea, presta zaitezte.

Badoaz ANTZEZLEak.

POLONIO, ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN sartzen dira.

Zer dugu, jauna? Etorriko al da errege
antzerkera?

POLONIO

Baita erregina ere, bere-berehala.

HAMLET

Ea, bizkor ibiltzeko esan antzezleei.

Badoa POLONIO.

Lagunduko al diozue biok antzezleekin?

ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN

Bai, jauna, bagoaz.

Badoaz.

HORAZIO sartzen da.

HAMLET

Hara, Horazio!

HORAZIO

Hona, jauna, berorren zerbitzura.

HAMLET

Horazio, egundo tratatzea egokitu zaidan gizonik egokienen eredutzat haukat.

HORAZIO

Oi, ene jaun laztana...

HAMLET

Ez pentsa, ez, zurikerian dihardudanik;
ezen zer onura espero behar dut nik higandik,

ez baituk heure aldarte eta ganora baino
heure burua mantendu eta jazteko? Zertan
balakatu txiroa?

Ez, mihi eztitsuak beza arrandia zozoa milika
eta belaunaren erro prest-prestak makurraraz
losintxaren etekinera. Aditzen al didak?

Ene arima laztana bere hautuaren jabe zeno
eta gizonen artean bereizteko gai, hi hau
beretzat kutun aukeratu. Bada hi izan haiz
harako

guztia jasanik deus jasaten ez duen haren
gisako,

fortunaren zaflada eta sariak baitakik
esker berdinez hartzen; eta benedikatuak dituk
odola eta zentzua hain ederki egokituak
dituztenak,

ez baitira fortunaren eskuko txirula halako,
hark zer nota joko.

Emadak grinen esklabo ez den halako gizona,
eta bihotz barrenenean eramago diat nik hura,
bihotzaren bihotzean,
hi haramadan bezala. Aski, baina, halako
konturik.

Antzezpen bat baduk arratseon erregeren
aurrean.

Eszena baten nondik norakoa hurbil zabilek
neure aitaren heriotzaz kontatu diadanetik.
Otoi, pasarte horretara iristean, hire arima gai
den

arreta eta ardurarik handienaz so egiok
ene osabari. Hala, haren erru ezkutua
ez badator agerira behingo solasean,
parte txarrekoa zuan ikusi dugun mamua,
eta ene irudipenak, berriz, hain satsuak
nola Vulkanoren sutegia. Zorrotz ohar hakio;
nik begiak josiak izango ditiat haren aurpegian;
eta, ondoren, bion aburuak elkaturik diagu
zer begitandu zaigun ebatziko.

HORAZIO

Ongi da, jauna.

Ezer itzuriz gero harenik antzezaldiak diraueno,
eta ez ohartuan pasatu, ni naizateke ihes
horren zordun.

HAMLET

Bazatozak antzezaldira. Ergelarena egin behar
diat.

Bila ezak leku bat.

Danimarkar martxa bat. Turuta-hotsa. KLAUDIO, GERTRUDE, POLONIO, OFELIA, ROSENKRANTZ, GILDENSTERN eta segizioko beste batzuk sartzen dira, Errege-Guardia zuziak eskuetan.

KLAUDIO

Bapo al da gure kusu Hamlet?

HAMLET

Horixe bapo, kameleoiak bezalaxe. Airea dut elikagai, promesaz barru-betea. Kapoirik ere ezin hain ondo mantendu.

KLAUDIO

Hori ateraldia, Hamlet. Ez zen hori ene hizpidea.

HAMLET

Ezta enea ere jada.

(*POLONIORI*) Jauna, zu antzezle ibilia zaitugu unibertsitate-garaian, ezta?

POLONIO

Bai, jauna, eta aktore onaren sona nuen.

HAMLET

Eta zer paper jokatu zenuen, bada?

POLONIO

Julio Zesarrena. Kapitolioan hil ninduten.
Bruto izan nuen hiltzaile.

HAMLET

Basati galanta Bruto hori,
halako zekorra akabatzeko kapitalean.
—Prest al dira antzezleak?

ROSENKRANTZ

Bai, jauna, berorren begira daude hasteko.

GERTRUDE

Erdu hona, Hamlet nirea; eseri ene ondoan.

HAMLET

Ez, ama nirea, (*OFELIA seinalatuz*) bada hemen
metal erakargarriagorik.

POLONIO (*KLAUDIO* Ori)

Hara! Ikusten?

HAMLET

Andrea, etzan al naiteke zure magalean?

OFELIA

Ez, jauna.

HAMLET

Alegia, burua atsedendu zure magalean.

OFELIA

Bai, jauna.

HAMLET

Uste duzu zeharresan gordinen bat bazela tartean?

OFELIA

Nik ez dut deus uste, jauna.

HAMLET

Ez da burutazio itsusia dontzeilen belaun artean etzatea.

OFELIA

Zer horrela, jauna?

HAMLET

Deus ez, hutsaren huts.

OFELIA

Jostagura dabil, gero, berori.

HAMLET

Nor, ni?

OFELIA

Bai, jauna.

HAMLET

Oi ene, ez duzu aurkituko narritari hoberik!
Zer egin lezake batek besterik,
jostagura ibili baino? Ezen
begira zeinen pozik ageri den ene ama,
eta bi ordu ere ez dira ene aita hil dela.

OFELIA

Ez, jauna: badira birritan bi hilabete.

HAMLET

Horrenbeste? Utikan, bada: deabruarentzat
ikatz-doluok,
eta marta-larru dotorez jantz nadin ni. Jainko
zerukoak,
bi hilabete jada hil zela, eta oraindik ez
ahantzia!
Orduan bada esperantza gizon handi baten
oroipenak
urte erdi irauteko, hura zendu eta. Baina,
andremariarren,
elizak behar dizkizu eraiki, edo bestela
ahantzura jasan,
harako dantzako xaldikoarekin batera,
zeinaren hilartitza baita:
«Oi, ai, guztion damua: xaldiko gaixoa
atzendua».

Oboe-hotsa. Pantomima hasten da.

*Errege-erregina batzuk sartzen dira, xamurki
besarkatuz elkar. Erreginak, belaunikatu, eta
maite-erakutsiak egiten dizkio erregeari. Hark,*

erregina zutitarazi, eta bere burua haren sorbaldan atsedeten du. Lore-sail baten gainean etzaten da. Erreginak, hura lotan ikusirik, alde egiten du. Betan gizaseme bat agertzen da; erregeari erantzi, eta muin egiten dio koroari; pozoia isuri haren belarrian, eta badoa. Erregina itzultzen da; erregea hilik aurkitu, eta samin-espantuka hasten da. Pozoitzaila, bizpahiru lagun isilekin, berriro sartu, eta deitore-itxurak eginez biltzen zaio erreginari. Badaramate hilotza. Pozoitzailak opariz gogatu nahi du erregina. Muker eta uzkur ageri da hura pixka batean, baina azkenean onartzen du maitasun-eskaintza.

Badoaz.

OFELIA

Zer da horren esanahia, jauna?

HAMLET

Azpijoko itzala noski. Alegia, gaitzaldi zitala.

OFELIA

Apika hortxe bildu dute antzerkiaren argumentua.

HAMLET

Horren ahotik jakingo dugu.
Antzezleek ez dakite deus isilean gordetzen;
dena kontatzen dute.

OFELIA

Horrek esango al digu zer zen aurreko
erakusaldia?

HAMLET

Baita edozein erakusaldi ere erakusbidean
jartzen diozuna.
Zu lotsatzen ez bazara berari erakusten, bera
ez da lotsatuko
zuri ematen erakutsiaren berri.

OFELIA

Gaiztoa, ez bestelako gaiztoa.
Antzerkiari diot jaramon egingo.

AITZINSOLAS-ANTZEEZLEA

Egin guri eta obrari
zuen gupidaren donari;
otoi, pazientziaz adi.

HAMLET

Aitzinsolasa al da hori, ala eraztun baten
idazkuna?

OFELIA

Laburra izan da, jauna.

HAMLET

Emakumearen maitasuna bezala.

*ERREGE-ANTZETZLEA eta ERREGINA-ANTZETZLEA
sartzen dira.*

ERREGE ANTZETZLEA

Hogeita hamar aldiz die Febok bere organ
itzulia egin
Neptunoren kresaltza zabalari eta Telus-en
bolari berdin;
hogeita hamar dozena ilargik zintzo dute, dirdai
mailegatuz,
argiztatu mundua hamabitan hogeita hamar
gau lerrokatuz,
maitasunak bihotz gureak, eta Himeneok orobat
eskuak,
elkar-estekatu zituenetik, ezarriz hain lotura
dontsuak.

ERREGINA ANTZEZLEA

Hainbat bidaia diezagutela zero-ilargi onok
oraindak

kontatzen utz ostera ere guri, maitasuna
amaitu aurretik.

Baina, ai ene tamala, hain zauzkat, maite,
ondoezik aspaldian,

hain ere adorerik gabe eta lehengo jasetik
erorian,

ezen kezkatan bainaukazu, horra. Alta, ardurok
gora-behera,

ez duzu, jauna, apurrenik ere, zertan jausirik
nahigabera;

emakumeon beldur-maitasunak, biak hein-
heinean baitabiltza:

edo bietatik hutsean, edo gainezkatu beharrez
bizitza.

Zer maitasun dizudan, ongi dizut milatan
frogatua jadanik;

hala, bada, maitasuna nolako, halako dut
beldurra orain nik.

ERREGE ANTZEZLEA

Alafede, maite, behar haut utzi, eta luze
gaberik, gainera;

ene bizi-ahalak ez baitaude ohi bezain prest
erantzutera.

Eta hi beti ere munduan haiz berdin biziko ene
ondotik,

ohoratua, maitatua; eta, zoriz, beste norbait
gogokorik

senartzat duken noizbait beharbada...

ERREGINA ANTZEZLEA

Aski, aski, ez esan guztia!

Halako maitasuna bainuke nik zin-hauste eta
saldukeria.

Bigarren senarrak bekar enetzat madarikazio
nabarmena:

ez da bigarrena hartzen duenik, non ez duen
berak hil lehena.

HAMLET

Asentsio-belarra, asentsio-belarra.

ERREGINA ANTZEZLEA

Bigarren ezkontzaren bultzagarri agitzen diren
burubideak

interesari dagozkio, doilor; ez du parterik
maitatzarreak.

Bigarren aldiz duket nik herioz neure senarra
hilko, hain justu,

bigarren senarrak emanaz gero gu bion ohean
niri musu.

ERREGE ANTZEZLEA

Sinesten dut zintzo diostazula orain esaten ari
zarena;

baina sarri askotan dugu hausten geure
delibero zindo zena.

Oroimenaren esklaboa baino ez da bere izatez
asmoa,

oldarrean sortua, guztiz bortitz, baina irautez
eskasagoa;

eta fruitu umotu gabe gisa datxeko oraingoz
arbolari,

baina inarrosi gabe da jausten behin sasoia
heldurik hari.

Halatan, bada, guztiz ere dugu denok ahanztea
beharrezko,

geure buruari diogun zorra xuxen den ordainaz
kitatzeko.

Zer ere geure baitarako dugun bero-berotan
deliberatzen,

berotasun hori galdu ahala, asmoa ere berdin
dagaltzen.

Saminaren zein bozkarioaren, bi-bien indar-olde
bortitzak

sentimenduokin batera ditu suntsitzen
bihotzeko zin-hitzak.

Non baita handien bozkarioa, hantxe dugu
samina kexuen;

saminez bozkario, bozkarioz samin, gurpila gure
egunen.

Mundu hau ez dugu noski betiko, eta ez da
harritzeko, beraz,

are gure maitasunok aldiro iraulkatzea gure
zorteaz;

ezen guk erabaki beharreko auzia da,
asmakizun gaitza,

maitasunak duen, ala zorteak, hartzen
bestearen gidaritza.

Lur jo duen handikia, horra hor, kutunenek ere
ezezagun;

gora egin duen ezdeusak, berriz, etsaiak ditu
bihurtzen lagun.

Eta halatan, beraz, maitasuna duzu zortearen
manupeko,

ezen beharrik ez duenak ez du inoiz adiskiderik
faltako,

eta premia gorrian dezanak jo adiskide
hutsalagana,
zuzenean du hargan zorituko bere etsaia
datekeena.
Baina, abiaburura itzuliz amaitzeko, solas
xuxenean,
gogoia eta patua hain doaz guztiz kontrako
norabidean,
ezen gure burubideak oro laster baitoaz plausta
lurrera:
asmoak ditugu geure baitako, ez geure esku
haiek zertara.
Halatan, bada, biz hire asmoa ez hartzea
bigarren senarrik:
berdin hilik zagoken asmo hori, lehen hauxe
gorpu datzalarik.

ERREGINA ANTZEZLEA

Ez biezat lurrak eman janari, ez eta zeruak ere
argi;
jolasa debeka egunak, eta gauak atsedena
bihur larri;
ezbehar latzak, bozkarioaren aurpegia
mudatzen trebeak,

betoz talka gogorrez suntsitzera ene zorionaren
labeak;

mundu honetan bezala bestean, laztura gogorra
bekit jazar,

baldin eta, behin alargundurik, sekula senarrik
baneza har.

HAMLET

Zina hauts baleza oraintxe!

ERREGE ANTZEZLEA

Horra sakonki egin zin. Uztazu, laztana, apur
bat atsedeten.

Nekea ari baitzait nagusitzen, hemen nahi nuke
doi bat eten

egunaren astuna loarekin.

Lotan geratzen da.

ERREGINA ANTZEZLEA

Loak zaitzala goxo sehaska,
eta sekula ez ditzala ezerk zorioneko loturok
aska.

HAMLET

Andrea, laket al zaio berorri antzezlanana?

GERTRUDE

Maite-erakutsi gehitxo egiten du damak,
aukeran.

HAMLET

Oi, baina bere hitzari eutsiko dio.

KLAUDIO

Ezagutzen al duzu argumentua? Ez da, bada,
izango
behar ez denen bat tartean?

HAMLET

Ez, ez. Itxura baino ez dute egiten;
pozoitzearen itxura.
Behar ez denik ez da batere.

KLAUDIO

Nola dizu izena antzezlanak?

HAMLET

«Sagu-arte». Nola litekeen? Irudizko hitzen
artez.

Vienan gertaturiko hilketa baten antzezpena
duzu.

Gonzago du izena dukeak: haren emazteak,
Baptista.

Aurki ikusiko du berorrek. Doilorkeria hutsa,
baina guri zer?

Berori, eta arima garbi daukagunok,
ez gaitu horrek ukitzen.

Zafraturiko kabalak jo beza ostiko,
guk salbu dugu-eta bizkarra.

LUZIANO ANTZEZLEA sartzen da.

Hau Luziano dugu, erregearen iloba.

OFELIA

Ederki egiten du berorrek koruarena, jauna.

HAMLET

Zure maitearen eta bion arteko solasa zertu
nezake,
txotxongiloak zer dabiltzan ikusiz gero.

OFELIA

Zorrotz ari da berori, jauna, zorrotz.

HAMLET

Garrasi bat kostatuko litzaizuke ene zorrotza
kamustea.

OFELIA

Onenean okerren.

HAMLET

Halaxe dituzue zuek huts-esten senarrak. —
Ekin, hiltzaile.

Utikan negargarrizko imintziok, eta ekin. Ea:
«Bele karrankariak mendeku-aldarri».

LUZIANO ANTZEZLEA

Gogo beltz, esku abil, pozoia prest; egokiera
ere aldeko;
hartarako aproposa ordua; inor ez zelata
egiteko:
hi, edabe ustel, gauerdi-belar anitz nahasturik
osatua,
Hekatek hiru araoz zitaldu, madarikazioz
kutsatua,
hire magia berezkoak, hire indar eta eragin
larriak,
biezaio biziari bet-betan betiko itxiaraz begiak.

Pozoia isurtzen du ERREGE ANTZEZLEAREN belarrian.

HAMLET

Jardinean horra pozoitu erregea, haren lekua
hartzeko.
Gonzago deritzo. Guganaino iritsi da historia,
italiera bikainez idatzia. Aurki agertuko da nola
hiltzaileak

Gonzagoren emaztearen maitasuna
bereganatzen duen.

OFELIA

Errege zutitzen ari da.

HAMLET

Zer, su aizunez ikaratua?

GERTRUDE

Zer dugu, ene jauna?

POLONIO

Gelditu antzezpena.

KLAUDIO

Eman argiren bat. Alde!

SEGIZIOKOAK

Argiak, argiak, argiak!

Badoaz guztiak, HAMLET eta HORAZIO izan ezik.

HAMLET

Orein zaurituak negar intziri,

orkatz ukigabeak jolas;

zenbaitek loaldi, zenbait beilari:

hala mundu hau jira-biraz.

Ez al nuke aski hauxe, eta luma-oihan bat
soinean

—gainerakoan zoriak itzuli gaizto emanaz
gero—

eta Probentzako arrosa bi zapata kalatuetan,
bazkidetza bat lortzeko antzezle-talde batean?

HORAZIO

Partaidetza erdia.

HAMLET

Baita osoa ere.

Ezen badakizu, oi Damon laztana,
tronua ostu ziotela
Jupiterri, eta errege duguna
gutziz dela, guttiz... kukuts.

HORAZIO

Errimatzea zeukan berorrek.

HAMLET

Oi, ene Horazio, mila libera mamuaren hitza
zuzena izan baietz. Ohartu al haiz?

HORAZIO

Oso ongi, jauna.

HAMLET

Pozoitzearen kontua atera denean?

HORAZIO

Oso ongi erreparatu diot.

Horratx! Ea, musika. Ea, txirulak.
Ezen ez badu laket erregek antzeztu den
komedia,
ez duela, ez, laket, horra hor begi-bistara egia.
Ea, musika.

GILDENSTERN

Ene jauna, utz biezat kontu bat esaten berorri.

HAMLET

Baita kondaira oso bat ere.

GILDENSTERN

Errege, jauna...

HAMLET

Bai, zer berri harenik?

GILDENSTERN

Ondoez harrigarriak jorik da erretiratu.

HAMLET

Zurrutak gaitz eginik?

GILDENSTERN

Ez, jauna, kolerak joa.

HAMLET

Askoz zuhurtzia hobe erakutsi zenukeen baldin

beraren medikuari adierazi bazenio; zeren, ni
egonez gero
haren purgazioen kargu, kolera handiagoa
bainioke
apika eragingo.

GILDENSTERN

Ene jauna, hizpide xuxenera lotu bedi berori,
eta ez halako betizu joan ihesi hona nakarren
gaitik.

HAMLET

Hezia nauzu jada, hona. Esan esatekoa.

GILDENSTERN

Berorren ama erreginak, gogo-samin guztiz
larrian,
berorregana nau igorri.

HAMLET

Ongi etorri.

GILDENSTERN

Ez, ene jauna, adeitasun hori ez da gizalege
onekoa.
Plazer badu berorrek zentzuzko erantzun bat
ematea,
berorren amaren manua beteko dut. Bestela,
berorren baimenarekin,

horrenbestez amaitzen da ene egitekoa.

HAMLET

Ezin dizut, hara.

GILDENSTERN

Zer, baina, jauna?

HAMLET

Zentzuzko erantzunik eman zuri; nahasia daukat burua.

Baina, hara, eman ditzakedan erantzunak zeure manura dituzu, edo eta, diozun legez, ene amarenera. Kito, bada, halako konturik, eta harira. Ene amak, diozu...

ROSENKRANTZ

Hona hark zer dioen, bada: berorren portaerak harri eta zur eginik utzi du.

HAMLET

Mirarizko semea, bere ama hala txundi dezakeena!

Baina ama-harridura horrek ez al dakar atzetik segidarik berekin? Bota.

ROSENKRANTZ

Nahi luke berorrekin mintzatu bere gelan, berori ohera aurretik.

HAMLET

Men egingo zioagu, bada, baita hamar aldiz
balitz ere

gure ama. Baduk besterik gurekin
tratatzekorik?

ROSENKRANTZ

Jauna, kutun ninduen berorrek behiala.

HAMLET

Baita orain ere, atzamar pekatariongatik zin.

ROSENKRANTZ

Ene jauna, zer da berorren gaizgarria?
Bere askatasunari atea ixten tematzen da
berori,
lagunari penak ezkutaturik.

HAMLET

Aurrerabidea falta dut, hara.

ROSENKRANTZ

Nola liteke, Erregeren beraren boza baitu
berorrek

Danimarkako tronu-oinordekotzarako?

HAMLET

Bai, baina «belarra hazi artean...».
Zaharkitua zagok esaera, lizunduxe.

Txirulari bat sartzen da.

Horra txirula! Ea, ikusagun.

(ROSENKRANTZ eta GILDENSTERNi, bereiz harturik.)

Gure artean: zergatik zabilzkidate arrastoan
inguruz inguru,
arte-sare batera eraman nahian bezala?

GILDENSTERN

Oi, ene jauna, bipilegia bada ene arta,
berorri diodan maitasunak nau gisa denetik
hara behartzen.

HAMLET

Ez diat ongi ulertzen hori. Jo nahi al duk flauta
hau?

GILDENSTERN

Jauna, ez dakit jotzen.

HAMLET

Arren, jo ezak.

GILDENSTERN

Sinetsi, jauna, ez dakit.

HAMLET

Otoi jotzeko eskatzen diat

GILDENSTERN

Arrastorik ere ez dut horrenik, jauna.

HAMLET

Gezurra esaten bezain erraza duk.

Atzamarrekin gobernatu zuloak, putz egin
ahoarekin,

eta musika-soinurik ederrena ateratzen hasiko
duk.

Ikusi, honako hauek dituk giltzak.

GILDENSTERN

Ezin diet nik, ordea, inolako doinu
harmoniazkorik eragin.

Ez dut hartarako antzerik.

HAMLET

Hara, bada, nolako gauza ezdeustzat naukaan.
Nahi duk

soinua jo nigan; giltzak non ditudan badakik,
antza;

barne-barnerainoko notak atera nahi dizkidak;
beherenetik hasi eta gorenerainoko guztiak
joarazi;

eta, musikaz beterik egonik, ahots bikainez,
txirulatxo hau,

ez dakik hala ere mintzarazten. Arranea, eta
uste duk
errazago naizela ni jotzeko, flauta hau baino?
Nahi duan musika-tresnatzat har nazak, hara:
igurtziak igurtzi, ez duk lortuko nigan soinua
jotzerik.

POLONIO sartzen da.

Jainkoak bedeinka zaitzala.

POLONIO

Ene jauna, erreginak berorrekin hitz egin nahi
luke,
oraintxe bertan.

HAMLET

Ikusten horrako gamelu itxurako hodei hori?

POLONIO

Ala meza!, gamelu bat peto-peto.

HAMLET

Erbinude bat ez ote dirudi?

POLONIO

Harexena du bizkarra.

HAMLET

Edo eta balea bat?

POLONIO

Balea bat bete-betea.

HAMLET

Orduan berehalaxe joango naiz amarengana.

(*bereiz*) Neure senetik ateratzen naute.

—Berehalaxe noa.

POLONIO

Hala esango diot.

Badoa POLONIO.

HAMLET

Aise esaten da «berehalaxe».

—Utz nazazue, lagunok.

Badoaz guztiak, HAMLET izan ezik.

Hona xuxen heldua gauaren sorgin-ordua, noiz
hilerriek

ahok baitituzte zabaltzen, eta infernuak berak
mundu hau

bere arnasaz kirasten. Odol beroa edan nezake
oraintxe,

eta halako ankerkeriak egin, non eguna ikaran

jarriko bailitzateke so egitean. Et-et-et; segi
amagana.

Oi, bihotz, hago heurean. Ez dadila sar
Neron haren arima bular zindo honen barnean.
Izan nadin krudel, ez naturaz besteko.
Mintza nadin sastakai, baina ekintzetara gabe.
Mihia eta arima hipokritak bira horretan:
zernahi ere jalgi dakidan amaren aurka ahotik,
hitzoi arimak ez biezaio eman bere onespenik.

III.iii

KLAUDIO, ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN sartzen dira.

KLAUDIO

Ez dut begi onez ikusten;
eta gure segurtasunaren kaltean da
zoramen horri hedabide zabala uztea. Presta
zaitezte, beraz.

Ber-bertatik dut zuen xede-agindua apailatuko,
eta Ingalaterrara bidean jarriko da printzea
zuekin.

Gure erregetza honek ez dezake onik jasan
haren zoraldietatik aldiro sortzen den bezain
arrisku galgarririk.

GILDENSTERN

Aurki gaude gerturik.
Zeruaren begiko kezka sagaratua da
berorren maiestatearen eskutik bizi eta
elikatzen diren
mila eta milaka sujeten segurtasuna
bermatzea.

ROSENKRANTZ

Bakoitzaren bizi bakar berezia beharturik dago
buru-bihotzen indar eta arma guztiekin
kaltetik begiratzera; baina askoz areago
beraren ongi izatea anitzen bizek euskarri
duten

izpirituaren kasuan. Errege-zentzea
ez da bakarraren heriotza,
baizik zirimola batek bezala darama berekin
inguruko guztia. Gurpil eskerga bat da,
mendirik garaienaren gailurrean finkatua,
zeinaren izpi erraldoiei hamar mila atal
apurrago

baitaude ahokatu eta atxikirik; hala, hark lur
jotzean,

eranskin koxkor, luzagarri pitin bakoitza
atzetik doa ausiabartzan. Ez du erregek
bakarrik

sekula ere egin hasperen, ororen intziriz baizik.

KLAUDIO

Lista zaitetze, otoi, bidaia presatsu horretarako;
ezen girgiluak nahi dizkiogu ezarri
orain oin-askeegi dabilen izugarri horri.

ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN

Lehiatuko gara.

Badoaz.

POLONIO sartzen da.

POLONIO

Jauna, bere amaren gelara da abian.

Tapizen atzean naiz ostenduko, elkarrizketari
adi.

Ziur naiz ahakar gorria emango diola.

Eta, berorrek esan duen legez, zuhurki esan
ere,

komeni da ama batek baino, izatez baitira
amak partzialak, jende gehiagok entzutea
ezkutuan solasaldia. Ongi izan, ene nagusi.
Berori ohera aurretik joango natzaizu
dakidanaren berri ematera.

KLAUDIO

Milesker, ene jaun preziatua.

Badoa POLONIO.

Oi, ene hobenaren ustela, zerurainoko kirats!

Lehendaniko madarikazioa du, zaharrena,
berekin:
anaiaren hilketa. Otoitzik ezin dagit.
Jaidura izanik ere gogoaz bezain zorrotz,
ene erru sendoagoak du garaitzen ene asmo
sendoa,
eta, bi egitegori loturiko gizona bezala,
pentsatzen geratzen naiz aurrenik nondik hasi,
eta biak egiteke uzten. Eta, esku madarikatu
hau
berez den baino lodiago balego ere anaiaren
odolez,
ez al da euririk aski zeru eztiatan
elurra bezain zuri garbitzeko? Zertarako da
errukia,
ez bada hobenari aurrez aurre so egiteko?
Eta zer dago otoitzean, ez bada indar bikoitz
hori,
gaizbidera orduko guri hura eragozteko,
edo hartan eroriz gero barkatzeko?
Gora, bada, begi-bihotzok.
Egina egin... baina, oi, zer-nolako otoitza
dakidake
baliagarri niri? «Barka ene hilketa satsua»?

Ezin halakorik, oraino neure ondare baititut,
hilketa egiteko zio eta jomuga nituenak:
koroa, neure handinahia eta erregina.
Barkamenik ba ote du batek hobenaren etekina
itzuli gabe?

Mundu honetako ustelkeria arruntean,
hobenaren esku urrezatuak justizia dezake
aldara;
eta maiz ikusi ohi da gaizkintza-sariak berak
erosten duela legea. Baina ez da hala hor
goian.

Hor ez da iruzurrik, hor egintza da ageri
benetako bere izatean, eta beharturik gaude,
geure huts gorrien aurrez aurre jarririk gogor,
haien testigantza ematera. Zer, geratzen da,
bada?

Damuak dezakeena saiatu. Eta zer ez dezake?
Baina zer dezake damutzerik ez dagoenean?
Oi ene galduaren latza! Oi bular heriotza lako
beltz!

Oi arima likatua, xederatik askatzeko borrokan
katigatuagoa! Lagundu, aingeruak! Ahalegindu.
Makurtu, belaun zurrunok; eta hi,
altzairuzko hari dun bihotz,

jaio berri baten zainen pare leundu.
Agian onera litezke gauzak.

Belaunikatzen da.

HAMLET sartzen da.

HAMLET

Oraintxe dut aukerako abagunea: errezatzen ari
da.

Ekin diezaiodan, bada, bertan.

Ezpata ateratzen du.

eta hala zerura doake;

eta hala mendekaturik nagoke ni. Ausnartzekoa
da kontua.

Doilor batek ene aita hiltzen du; eta horren
truke

nik, haren seme bakarrak, doilor horixe dut
zerura igortzen.

Oi, aloger eta sari da hori, ez mendeku.

Berak gordinki zuen jo ene aita, ase betean,
haren gaizkintzen loraldian, maiatz mardul
jorian;

eta haren kontu-epaia nork daki salbu zeruak?
Baina gure ikuspegi eta irizpideen arabera
astuna du zama. Eta mendekaturik ote nago,
hortaz,

bere arima purgatzen ari delarik jorik nik hau,
bidaldi gaitzerako prest eta gertu dagoen
honetan? Ez.

Ut, ezpata; xerka ezak tertzio latzagoren bat.
Mozkorrik lo zurrun datzala, edo amorruek
harturik,

edo bere oheko atsegin intzestuzkoan,
jokoan biraoka, edo halako egintza
salbazio-arrastorik ere ez dukeen batean...

Orduan ezak orpoz gora bota,
jo dezan zeruaren aurka ostiko,
eta haren arima agi dadin hain infernuzko beltz
nola leizea, nora baitoa. Ama zain daukat
oraino.

Sendabide hau, hire gaitzaren, ez duk luzagarri
baino.

Badoa.

KLAUDIO (*altxatuz*)

Hitzak airera, pentsamenduak zaizkit lurrean
geratzen.

Pentsamendurik gabeko hitza alferrik da
zeruratzen.

III.iv

GERTRUDE eta POLONIO sartzen dira.

POLONIO

Berehala datorke. Ahakar gorria eman biezaio berorrek.

Esan biezaio urrunegi joan dela bere neurrigabekerietan,
eta berorren graziak babestu duela oraino,
erdian jarririk,
haserre berotik. Isil nadin bertan.

Otoi, argi eta garbi mintzatu mutilari.

HAMLET (*barruan*)

Ama, ama, ama!

GERTRUDE

Zaude ziur. Ez izan ene kezkarik.
Aldara zaitez; hor dator eta.

POLONIO tapizaren atzean ezkututzen da.

HAMLET sartzen da.

HAMLET

Hona hemen, ama; zer dugu?

GERTRUDE

Hamlet, gogor iraindu duk heure aita.

HAMLET

Ama, gogor iraindu duzu neure aita.

GERTRUDE

Ut, ut, ut; mihi leloz ihardesten duk.

HAMLET

Et, et, et, mihi gaiztoz itauntzen duzu.

GERTRUDE

Zer duk horrela, Hamlet?

HAMLET

Zer dugu orain?

GERTRUDE

Nor naizen ahantzi duk, ala?

HAMLET

Gurutze santuagatik, inolaz ere ez.

Erregina zara, zeure senarraren anaiaren
emaztea,

baina —ez aizina hala!— neure ama zaitut.

GERTRUDE

Jarriko dizkiat, bada, aurrean, mintzatzeko gai
direnak.

HAMLET

Ea, ea, jesarri zaitez. Ez zara higituko, ez zoazke inora nik ispilu bat aurrean jarri arte, non ikus dezakezun zeure barrurik gordeena.

GERTRUDE

Zer egin nahi duk? Ez nauk, bada, hil nahiko? Lagundu, lagundu, ei!

POLONIO (*tapizaren atzetik*)

Ene! Lagundu, lagundu, lagundu!

HAMLET

Hara: arratoi bat? Dukat bat trabes baietz hil.

Oldarrean zulatzen du tapiza ezpataz.

POLONIO

Oi, galdu naute.

GERTRUDE

Oi ene, zer egin duk?

HAMLET

Alafede, ez dakit... Errege al da?

Tapiza altxatzen du.

GERTRUDE

Oi, hau bidegalduaren latz eta gogorra!

HAMLET

Hain bidegaldu gogorra ia, nola den, ama
dultzea,
errege bat hil ondoren haren anaia senar
hartzea.

GERTRUDE

Errege bat hil, diok?

HAMLET

Bai, andrea, halaxe ene hitzak. —Eta hiri,
gizagaixo sarkin zuhurgabe ergel hori, adio
sekulako.

Heure goragokotzat haut hartu. Horra hire
fortuna.

Ikusten duk nola ardura gehiegia arrisku
datekeen.

—Utzi eskuak bihurritzeari. Zaude egonean
hortxe,

eta nik dizut bihurrituko bihotza. Badut-eta
asmo,

gai barneragarritz egina baduzu behintzat,
ez badu ohiturak hain gogor brontzeztatu
non guztiz ere gotortu den sentipenen aurka.

GERTRUDE

Zer egin dut nik hi honela ausartzeko ene aurka mihia hain zakar dantzatzera?

HAMLET

Egintza bat, hara,
begiramenaren musu xaloa duena lardasten;
hipokrita agerrarazten bertutea; arrosa kentzen
maitasun hobengabearen bekoki garbitik,
eta pusla bat uzten hantxe; ezkon-zinak
bilakarazten
dadolarien juramentuak bezain faltsu. Oi,
egintza bat,
ezkon-itunaren gorputzetik duena iraitzen
arima bera, erlijio ezta bihurturik
hitzezko lore-joko. Gorri du kolore zeruak
aurpegia;
eta, askotariko gaizko mulko trinko hau, berriz,
ilun kopeta, akabuaren egunera abian irudi,
gogo-gaizkiturik datza ekintza horrez.

GERTRUDE

Ai ene, zer ekintza,
hain trumoi-orro ozenez iragartzen dena?

HAMLET

So egiozu erretratu honi, eta beste honi,

bi anaiaren antzirudi petoa horra.
Hona nolako grazia ageri zuen begitarte honek:
Hiperionen kiribilak, Jupiterren beraren bekokia,
begiak Marterenak, mehatxu zein agindurako;
Merkurio mezulariarenaren pareko jasa,
zeru-hegiko mendi batean pausatua ageri;
konbinazio eta osaera bat, hain zuzen, non
baitirudi

jainko bakoitzak duela bere zigilua ezarri
gizon baten bermea emateko munduari.
Hori zen zure senarra. Begira orain
ondorengoari.

Horra hor zure senarra, buruxka harjoa legez
bere anaia osasuntsua izurritzen. Baduzu
begirik?

Nola liteke bat, halako pentze ederrean
bazkatzeari utzi,
eta padura horretan gizontzera lerra? Eh?
Baduzu begirik?

Ezin diozu deitu maitasun; zeren zure adinean
odolaren irakina bezaturik baitago, apala da,
eta zentzuaren meneko; eta zer zentzuk luke
honetatik horretara eramango inor? Zer
deabruk zaitu

honela tronparazi, alegia itsumandoka?
Oi lotsa, non da hire gorritzea? Infernuko su
alua,
andrandi baten hezurretan matxina ahal
bahendi,
gaztaro gartsuarentzat bertutea biz argizaria
legez,
eta bere suan bedi urtu. Ez alega lotsarik
odol bero oldartsuak erasoari ekiten dionean,
izotza bera ere berdin gartsu sutzen denez gero
irritsaren sustagarri delarik arrazoia.

GERTRUDE

Oi Hamlet, ixo.
Barne-barnera itzularazten dizkidak begiak,
eta han ditiat nik ikusten orban hain beltz eta
errotuak
ezen ez baitute beren kolorerik galdu nahi.

HAMLET

Ez, baizik eta bizi
ohe zoldatsu baten ustel-izerdi kiratsean,
lizunkeriaz irakinak, maite-maite eginez
heia satsu baten...

GERTRUDE

Oi, ixo, ixo.

Sastakaiak bezala belarriratzen zaizkidak
hitzok.

Ixo behingoan, Hamlet laztana.

HAMLET

Hiltzaile doilor higuin bat,
zure aurreko jaunaren aldean
hutsaren hurrengoa, errege-alberdau bat,
inperioren eta agintearen ohoin zirtzila,
apaletik koroa preziatua ebatsi
eta bere sakelaratu duena...

GERTRUDE

Aski duk, ixo.

HAMLET

Adabaki eta pildazko errege bat...

MAMUA sartzen da, gau-jantziz.

Gorde eta babestu zuen hegalpean, zeruko
zaindariok!

—Zer nahi duzu, gizairudi galant hori?

GERTRUDE

Aiei, burutik dago.

HAMLET

Ez al zatoz errita egitera zeure seme nagia,
zeinak,
odolaldi beroa huts eginik, geroko gerora baitu
uzten
zure agindu larriaren ezinbesteari erantzutea?
Esan?

MAMUA

Ez ahantzi. Agerraldi hau ez duk
hire asmo ia kamustu hori zorrozteko baino.
Baina hara, txundidura duk hire amaz nagusitu.
Egiok, oi, heure buruaz bere arimaren asaldutik
babes !
Ahulenengan dik irudimenak bortitzen obratzen.
Hitz egiok, Hamlet.

HAMLET

Nola zaude, ama?

GERTRUDE

Aiei, nola zaude zu,
begia baituzu hutsean josten, eta
aire mamigabearekin baitzara solastatzen?
Oldar zoroan dagite zure izpirituek begiotatik
so,

eta, soldadu lokartuak alarma deira nola, hala
zaizkizu

zeure ile etzanok, berezko bizidun hazkarri gisa,
tanpez zutitu eta tentetzen. Oi seme laztana,
heure gaitzaldi horren su eta garraren gainera
ihintzeza ezak patxada freskoa. Nora duzu so
egiten?

HAMLET

Horrako horrengana, bada! Ikusi
nolako zurbil daukan begitartea.
Itxurarekin kausa horrek aise lituzke bere
predikuz
harriak berak ere bigunduko. —Ez egin nigana
so,

ez dezazun errukizko ekintza horrekin aldaraz
ene burubide zorrotza. Orduan ene
eginbeharrak
duke benetako kolorea falta: malkoak odolaren
ordez.

GERTRUDE

Nori esaten diozu hori?

HAMLET

Ez duzu deus ikusten hor?

GERTRUDE

Deus ere ez; den guztia ikusiagatik.

HAMLET

Entzun ere, ez duzu deus entzun?

GERTRUDE

Ez, geure jarduna besterik.

HAMLET

So egizu, baina. Horra nola doan ostentzera.

Ene aita, bizirik zegoeneko jantziz!

Horra nola ari den oraintxe irteten atetik.

Badoa MAMUA.

GERTRUDE

Zure garunak sortua da guztia.

Zale duzu guztiz eldarnioa

halako agerkari mamigabeak irudikarazten.

HAMLET

Eldarnioa?

Ene pultsuak, zurearen pare, bere konpas doiari

eusten dio,

eta araberako soinu osasuntsua dagi. Ez zaio

eromenari zor

ene jarduna. Froga nazazu, eta osterara ere dut
kontua

hitzez hitz errepikatuko, eromen txolinak
ohi duenaz bestera. Ama, graziaren izenean,
ez halako ukenduz gain-zuritu zeure arima,
alegia ez dela zure makurra, ene eromena
baizik, mintzo.

Horrek ez duke gunea zauritsua azaletik estaliko
baino,

ustelkeria gaitzak duelarik, barneraino zulatuz,
ezkutuan zauria gaizkoatzen. Aitor egiozu
zeruari;

damu izan iragan dena; eragotzi datorkeena;
eta ez zabaldu simaurra belar gaiztoen
gainean,

gaitzago haz daitezten. Barka iezadazu bertute-
gaztigu hau,

zeren, gantzukeria potoloa nagusi den
garaiotan,

bertuteak bizioari baitio barkamena eskatu
behar,

hots, makurtu eta otoiztu, arren on egiten utz
diezaion.

GERTRUDE

Oi Hamlet, erdi bi egin didazu bihotza.

HAMLET

Bota, bada, parterik txarrena,
eta puruago bizi beste erdiarekin.

Gau on: baina ez zaitez joan ene osabaren
ohera.

Itxuretan erakutsi falta dukezun bertutea.

Uko egin gaueon;

eta horrek erosotu samartuko dizu
hurrengo abstinentzia. Ostera ere, gau on:
zeure benedikazioa irabaztera lehia
zaitezenean,

nik zurea eskatuko dizut. Honakoxe
jaunarengatik,

damu dut bihotzetik. Baina zeruek nahi izan
dute,

ni zigorturik beronekin, eta berau enekin,
beren azote eta borrero agitzea ni.

Ene kargu, bada: zintzo erantzungo diot
berarekiko heriotza-zorrari. Gau on, bada,
berriro.

Gizalegeak nau ni behartzen krudeltasun
honetara.

Makur hasiak makurragora horra emana
bultzada.

GERTRUDE

Zer egingo dut nik?

HAMLET

Ez, inola ere, egiteko diotsudan hauxe:
utzi errege puztuak zaitzan ostera ohera tenta,
masailan ximikoz balaka, sagutxo deitu,
eta, pare bat musu kerutsuren truke, edo
zure lepoa haztatuz bere atzamar
madarikatuez,

atera diezazula argitara kontu guztia,
alegia funtsean ez nagoela eromenak joa,
eroarena egiten ari baino. Egoki zenuke hari
jakinaraztea;

Izan ere, halako erregina eder, zintzo, zuhur
beteak

nolatan lioke apo bati, saguzar, mitxitxo bati,
halako kontu preziaturik gordeko? Nolatan
halakorik?

Ez, ez: zentzuari eta isilpekotasunari jaramon
egiteke,

ireki ezazu, ireki, etxe gaineko kaiola,

jaregin txoriei hegan, eta, harako tximinoak
bezala,
aproba egite aldera, zaitetz kaiolara lerra,
eta trenka lepoa handik jauzi eginik beheraino.

GERTRUDE

Hago ziur, hitzak arnasaz eginak badira,
eta arnasa biziz, ez dudala nik bizirik
esan didaana arnasteko.

HAMLET

Ingalaterrara behar dut. Badakizu?

GERTRUDE

Ene, ahantzia nintzen. Hala ebatzirik dago.

HAMLET

Abian joanaraziko nau gizon honek.
Aldameneko gelara garraia dezadan
hestezakua.

Gau on bihotzetik, ama. Kontseilari hau
isil-isila, sekretu eta serioa duzu oraintxe,
bizitan halako hitzontzi txoro berritsua izana.
Erdi, lagun, dagigun behingoan zurekikoa.
Gau on, ama.

Badoa, POLONIO herrestan eramanez.

IV.i

KLAUDIO sartzen da.

KLAUDIO

Bada kezka gairik hasperen eta arnaslarri sakonotan;
behar duzu azalpena eman. Uler ditzagun komeni da.
Non da zure semea?

GERTRUDE

Ai, ene jauna, zer ikusi dudan gaueon!

KLAUDIO

Zer, baina, Gertrude! Zertan da Hamlet?

GERTRUDE

Eroa, itsasoa eta haizea lehian dihardukatenean legez,
nor indartsuago. Bere bidegalduean,
zerbaiten zirkin entzunik tapizaren atzean,
ziztuan atera ezpata, eta oihu dagi «Arratoi bat,
arratoia»,
eta bere buru-nahasmenean hor du hiltzen
ezkutuan zegoen agure gaixoa.

KLAUDIO

Oi izugarrikeria!

Berdin agitu zitzaigukeen guri han egokitu
bagina.

Mehatxu larria da Hamleten askatasuna
guztiontzat:

zerorrentzat, guretzat, ororentzat. Ene!
Nola erantzun behar zaio ekintza odoltsu honi?

Gure gainera ereriko da, gure erantzukizuna
baitzen

kate motzean loturik edukitzea, gizartera gabe,
gazte zoro hori. Baina halako handia zen gure
maitasuna,

ez genuen ulertu nahi izan zer zatekeen
egokien,

baizik, gaixotasun satsu batek jo duen eria
bezala,

jendeak zer esangoaren beldur, elikatzen utzi
gaitza

biziaren muin-muineraino. Nora joan da?

GERTRUDE

Hil duen gizonaren gorputza eramatera;
zeinaren gainean —metal arruntezko mea
artean

urre-zain bat bezala, arazturik ageri du hor eromena— negar baitagi gertatu denarengatik.

KLAUDIO

Oi Gertrude, goazen!
Eguzkiak mendiak uki ditzan tenoreko,
abian dukegu igorria ontzian; eta, doilorkeria
honi,
gai garen maiestate eta antze guztiaz behar
diogu,
aurpegi ez ezik, desenkusa ere eman. Ei,
Gildenster!

ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN sartzen dira.

Lagunok, laguntza gehiago ingura ezazue.
Hamletek, burutik eginik, Polonio hil du,
eta bere amaren gelatik du herrestan atera.
Zoazte haren bila, hitz egiozue garbi, eta
eraman
gorputza kaperara. Otoi, lehia zaitetze
horretara.

Badoaz ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN.

Zatoz, Gertrude; bil ditzagun geure lagunik
zuhurrenak,
eta jakitera eman, zer egin asmo dugun ez ezik,
ordu gaitzean zer den gertatu. Ea, goazen
hemendik!
Arima daukat abailtzekotan, guztia larriz
beterik.

IV.ii

HAMLET sartzen da.

HAMLET

Horratx leku seguruan gorde.

ROSENKRANTZ eta GILDENSTERN (*barruan*)

Hamlet! Printze Hamlet!

HAMLET

Zer da zarata hori? Nor dago deiez Hamleti? Oi, hor datoz.

ROSENKRANTZ, GILDENSTERN eta beste batzuk sartzen dira.

ROSENKRANTZ

Zer egin du berorrek, jauna, gorputzarekin?

HAMLET

Hautsarekin nahastu, haren ahaide baita.

ROSENKRANTZ

Esan biezagu non den, handik jaso dezagun eta kaperara eraman.

HAMLET

Ez ezazue pentsa.

ROSENKRANTZ

Pentsa zer?

HAMLET

Zuen isilmandatuari euts diezaiokedanik eta ez neureari. Gainera, belaki baten itaunei, zer ihardespen eman liezaioke errege- seme batek?

ROSENKRANTZ

Belaki bat? Halakotzat al nauka, bada, berorrek?

HAMLET

Bai jauna, belaki bat, erregeren faborea xurgatzen duena, haren sariak, haren botereak. Baina halako zerbitzariak ditu erregek baliagarrien azkenean.

Hor edukitzen ditu, nola tximino batek aho-txokoan intxaurra, aurrena zukutu eta finean irensteko.

Han-hemen bildu duzuna behar duenean, aski du

zu estutzea, eta aurki zaude, belaki, osterera ere idor-idor.

ROSENKRANTZ

Ez diot ulertzen berorri, jauna.

HAMLET

Pozten naiz. Solas txorrotxak lo-lo belarri txoroan.

ROSENKRANTZ

Jauna, esan behar digu non den gorputza, eta gurekin etorri erregegana.

HAMLET

Gorputza erregerekin da, baina errege ez da gorputzarekin.

Errege izaki arrunta da...

GILDENSTERN

Izaki arrunta, jauna?

HAMLET

Deus ez izaki. Eraman nazazue harengana. Marro axeriak, ea nork harrapa.

Badoaz.

IV.iii

KLAUDIO sartzen da.

KLAUDIO

Hamletengana igorri ditut, gorputzaren xerka.
Zeinen arriskutsu den horrela aske ibil dadin.
Ez diogu, ordea, lege gogorra bizkarreratu
 behar,

Kutun du, izan ere, jendetza adigabeak,
zeinak ez baitu onirizten zentzuz, begiz baizik;
eta, hala denean, errudunaren zigorra da auzi,
eta ez inola ere errua. Gauzak leun eta zelai
 joateko,

ber-bertatik hura erbestera igortze honek behar
 du

delibero burutsuaren itxura izan. Gaitz larriak
araberako sendagai larriz ohi dira oneratzeko,
oneratzekotan.

ROSENKRANTZ sartzen da.

Esan. Zer berri dugu?

ROSENKRANTZ

Gorputz hila non den gorderik, jauna,
ezin diogu atera.

KLAUDIO

Baina non da bera?

ROSENKRANTZ

Hor kanpoan, jauna, zainpean, berorren
esanera.

KLAUDIO

Ekarri gure aurrera.

ROSENKRANTZ

Ei, Gildenstern, sarrarazi printzea.

*HAMLET eta GILDENSTERN sartzen dira,
segizioko batzuekin.*

KLAUDIO

Ea, Hamlet, non da Polonio?

HAMLET

Afaritan.

KLAUDIO

Afaritan? Non?

HAMLET

Ez berak jaten dueneko lekuan, bera jaten dutenekoan baizik.

Har aldra bat zaio, politikari azpijale antzo, batzartu.

Harra dugu, jauna, enperadore bakarra dietarentzat.

Izaki guztiak gizentzen ditugu gizen gaitzaten, eta geure burua dugu gizentzen mamorroentzat.

Errege gizona eta eskale argala aldian aldiko janari besterik ez dira: bi plater, baina mahai baterako. Horraxe doa guztia.

KLAUDIO

Zer esan nahi duk horrekin?

HAMLET

Ezer ez, ez bada erakutsi nola errege batek txango egin dezakeen eskale baten este-zakuan zehar.

KLAUDIO

Non da Polonio?

HAMLET

Zeruan. Igorri norbait xerka.

Berorren mandatariak han aurkitzen ez badu,
berorrek beza xerka beste lekuan. Hala ere,
hil honen amaierarako aurkitu ezean,
berorrek dio, galeriarako zurubian gora
doalarik,
usna egingo.

KLAUDIO (*segiziokoei*)

Ea, zoazte hara bila.

HAMLET

Itxarongo dizue, lasai.

Badoaz segiziokoak.

KLAUDIO

Hamlet, hire ekintza horrek, heure
segurtasunarengatik
—zeina hain ardura baitzaigu nola baitugu
bihotzetik samin
egin duanarengatik—, behartzen naik hi
erbestera igortzera
arrapalada bizian. Antola hadi, bada.
Ontzia prest duk, eta haizea aldeko;
laguntzaileak zain dauzkak, eta guztia gerturik
Ingalaterrarako.

HAMLET

Ingalaterrarako?

KLAUDIO

Bai, Hamlet.

HAMLET

Ongi.

KLAUDIO

Hala duk, gure asmoei erreparatzen badiek.

HAMLET

Kerubin bat dakusat dakuskiena. Tira, baina;
Ingalaterrara!

Adio, ama laztana.

KLAUDIO

Bihotz beteko hire aita, Hamlet.

HAMLET

Ene ama. Aita eta ama senar-emazteak dira;
senar-emazteak haragi bakarra;
beraz, ene ama. Ea, Ingalaterara!

Badoa.

KLAUDIO

Jarraitu ondo-ondotik. Akuilatu bizkor ontzira.
Ez zaitezte luza. Gauerako behar du bidean.

Segi hemendik, bada zigilupean ezarria dago
egiteko honen
gainerako gorabehera guztia. Otoi, leiha
zaitezte.

Badoaz guztiak, KLAUDIO izan ezik.

Eta hi, Ingalaterra, ene oniritzia ezertan
badaukak
—ene ahalaren larriak iradoki diezaakeen ber,
gordin gorririk baitirau oraino hire ebakiondoak
daniar ezpataren menean, eta gogotsu baitiguk
omenezko zerga ordaintzen—, ez ahal diok
abegi hotza egingo gure errege-agindu honi,
zeinak argi eta garbi baitu xedatzen,
hartarako premiamendu-gutun zehatz-
mehatzez,
heriotza emateko ber-bertan Hamleti.
Egik hala, Ingalaterra;
sukarraren amorru beraz baitit hark odola
irakiten,
eta hik behar bainauk sendatu. Hori kunplitu
ezean,
zoria zori, pozgarririk ez, eta bai min bihotzean.

IV.iv

fortinbras sartzten da, gudaroste batekin.

FORTINBRAS

Zoaz, kapitaina, ene partetik oles egin daniar erregeari.

Esan Fortinbrasek duela, beraren baimenarekin, sarbide eta eskolta eskatzen, agindu bezala zeharkatzeko

bere osteekin beraren erresuma. Badakizu hitzordua.

Maiestate horrek ezer nahi izanez gero gurekin, aurrez aurre diogu geure leialtasuna agertuko; hala jakinaraz iezaiozu.

KAPITAINA

Berorren esanera, jauna.

FORTINBRAS

Aurrera beldurrik gabe.

Badoaz.

IV.v

GERTRUDE eta HORAZIO sartzten dira.

GERTRUDE

Ez dut hitz egin nahi berarekin.

HORAZIO

Teman dago neska, buru-galdua baiki.
Erruki ematekoa du, erabat, itxura.

GERTRUDE

Zer nahi du nigandik?

HORAZIO

Bere aitaz da erruz mintzo. Mundua dagoela,
dio,
amarruz beterik, eta bihotza joka hor dihardu
totelka;
hutsarengatik amorratzen da; ateraldi bitxiak
ditu,
erdizka baino ulertzen ez direnak. Hutsa solasa,
baina hala ere jardun itxuragabe horrek
entzuleak ditu
gogoetara bultzatzen. Asmatzen ahalegintzen
dira,

adabakiz egokiturik beren gogamenetara
hitzak,
zeinek, neskaren kliska, keinu eta imintzioak
lagun,
pentsaraz bailiezaiokete bati badela hor
pentsatzekorik;
deus argi eta garbirik ez, baina bai arras
gaitzezkorik.

GERTRUDE

On dateke berarekin mintzatzea, horrela
ereiniko haziak
asmabide arriskutsurik sorrraraz baitezake buru
maltzurretan.
Esaiozu sartzeko.

HORAZIO aterantz doa.

(bereiz) Ene arima eriarentzat, horixe baita
hobena,
huskeria bat dateke aurki hondamendi
handiena.
Hain da errua barru-betea goganbehar
moldakaitzez,

bere burua baitu salatzen, sala dezaten
beldurrez.

*OFELIA sartzen da, laut bat joz kantari,
ilea askaturik.*

OFELIA

Non da Danimarkako maiestate ederrez betea?

GERTRUDE

Zer dugu, Ofelia?

OFELIA (*kantari*)

Nola bereiz maite hori

bidaztien artean?

Maskor-txanoz makuludun,

sandaliak oinean.

GERTRUDE

Ene!, dama eztia, zer da kanta horren funtsa?

OFELIA

Bai, andrea? Hara, otoi, adi:

(*kantari*)

Hilotzik lur hotzean, bai,

hilotzik lur hotzean;

burupean belar guri,

harria zangopean.

GERTRUDE

Tira, baina, Ofelia...

OFELIA

Otoi, adi:

(kantari)

Beztidura elur-zuri...

KLAUDIO sartzen da.

GERTRUDE

Ene!, ikusi, jauna.

OFELIA *(kantari)*

lili eztiz bildua,
hilobira inork ere
isurtzeke dolua.

KLAUDIO

Zer modu, dama galant hori?

OFELIA

Ongi, Jainkoak dizula milesker! Diotenez, hontza
okin baten alaba zen. Jauna, badakigu zer
garen, baina ez
zertara gaitzkeen. Jainkoa dela berorren
mahaian!

KLAUDIO

Bere aitaren gaineko gogapenak.

OFELIA

Otoi ez gaitezen mintza horretaz. Aitzitik,
inork kontua zer den galdetuz gero, honela
esan:

(kantari)

«San Balentin eguna bihar da eta,
goiz-goizeko txintan,
zure leihoari so han da egongo
dontzeilau irrikan.»

Galaia jaiki eta trebe da jantzi,
haren bisitako;
dontzeila zena horra desdontzeilatu
sekula santako.

KLAUDIO

Ofelia galant hori...

OFELIA

Horratx, biraorik ere gabe, amaiera emango
diot:

(kantari)

Jesukristoren itun! Karitate deun!
Non da lotsa galdu!
Gizon gazteek sena, oilarrarena:
kukurruku alu!

«Egin zenidan promes —dio gaixoak—
esposa hartzeko.»

«Baita hartuko ere, eguzki lore,
ez bahintz oheko.»

KLAUDIO

Zenbat denbora da horrela dagoela?

OFELIA

Espero dut dena ongi joatea. Pazientzia behar
dugu.

Baina negar baino ezin dut egin,
lur hotzean eratzan dutela gogora ekarririk.
Izango du ene nebak horren berri. Hala, bada,
milesker aholku onarengatik. Ea, ene karroza!
Gau on, andreok.

Gau on andre laztanok, gau on, gau on.

Badoa.

KLAUDIO

Jarraiki zakizkio hurbiletik. Kontu egiozu, otoi.

Badoa HORAZIO.

Oi, samin sakonaren pozoia du hauxe; guztia
aitaren heriotzatik sortua. Oi Gertrude,
Gertrude,
penak datozenean, ez datoz bakarkako
bararrandari,
osteka baizik. Lehenik, beronen aita hila;
hurrena,
zure semea joana, bere eskutiko lazkeriak
berak
erbestarazia hemendik; populua turbustua,
larritu eta gaizkitua susmoz eta zurrumurruz,
Polonio gaixoaren heriotzaz. Eta guk inozo dugu
jokatu
hura itzalgaizka ehortzirik. Ofelia gaixoa
bere kabutik eta sen onetik aterea, zeina gabe
ez baikara antzirudi edo abere huts baino;
azkenik, eta horiek bezain munta handikorik,
beraren neba, isilpean itzulia Frantziatik,
harridura horrez elikatzen da, gogoia lainope,
eta ez du falta mihi-gaizto belarri-pozoitzailerik,
bere aitaren heriotzari buruzko esamesari
kirats;
non jardun beharrak, zeri helduaren eskasez,

ez baitu deus beharko gure pertsonak
akusatzeko
belarririk belarririk. Oi ene Gertrude laztana,
horrek,
metrailazko kanoikadak legez, lekurik askotan
dit
soberazko heriotza eragiten.

Zarata barruan. MANDATARI bat sartzen da.

GERTRUDE

Ai ene!, zer da zarata hori.

KLAUDIO

Non dira ene suitzarrak? Zaindu dezatela atea.
Zer berri dakarzu.

MANDATARIA

Salba bedi berori, jauna.
Itsasoak, bere mugetatik gainez eginik,
ez ditu lehia oldartsuagoz jaten lautadak,
nola baititu Laertes gazteak, matxinada-uraldiz,
aurretik eramaten berorren ofizialak. Meneko
zaio jendaila;
eta mundua oraintxe hasteko balego bezala,
antzinako aztura eta ekanduak atzendurik,

zeinak baitira hitz ororen berme eta euskarri,
oihu dagite: «Guk hauta! Laertes biz errege.»
Kapela, esku eta mihiak gora-goraka bizian:
«Laertes biz errege, Laertes errege».

Zarata barruan.

GERTRUDE

Zeinen gogotsu dagiten arrasto faltsuan
zaunka!

Oi, bidez kontra zoazte, daniar zakur faltsuok!

KLAUDIO

Ateak hautsi dituzte.

LAERTES sartzen da, bere JARRAITZAILEekin.

LAERTES

Non da errege? —Jaunok, gera zaitetze
kanpoan.

JARRAITZAILEAK

Ez, sar gaitezen.

LAERTES

Otoi, utzi niri.

JARRAITZAILEAK

Ongi da, jauna.

LAERTES

Milesker zuei. Zaindu atea.

Badoaz JARRAITZAILEAK.

Hi, errege doilor hori,
emadak neure aita.

GERTRUDE (*tartean sarturik*)

Baretu jeinuok, ene Laertes.

LAERTES

Bare dagoen odol tanta bakoitzak sasiko izena
dit egozten;
adardun hots egiten ene aitari; emagaldu-
seinalea ezartzen
hortxe ene ama zintzoaren bekoki aratz
garbiaren erdian.

KLAUDIO

Zergatik du, Laertes, hire altxamenduak
halako itxura erraldoikara hartzen?

—Jaregiozu, Gertrude. Ez izan beldur gure
pertonaren.

Halako jainkotasunak dizu hesitzen errege bat,
ezen

traizioak ezin baitu begiz jo baino bere xedea,
asmoak asmo huts. —Esadak, Laertes,
zergatik hagoen hain sumindurik. —Jaregiozu,
Gertrude.

—Mintza hadi.

LAERTES

Non da ene aita?

KLAUDIO

Hila.

GERTRUDE

Baina ez da bera izan.

KLAUDIO

Utziozu itauntzen gogo duen guztia.

LAERTES

Nolatan da agitu hilik? Amarrurik ez niri.
Deabruetara leialtasuna! Infernu beltzenera
zinak!

Kontzientzia eta grazia leize sakonenera!
Prest nago kondenatzeko. Hain nago
burubidean sendo,
ezen mundu biak ere baititut hutsesten,
datorrela datorrena; soil-solik dut behar

aitarengatik bete-beteko mendeku hartu.

KLAUDIO

Nork zaitzake geldiaraz?

LAERTES

Ahaleginean, ezta mundu guztiak ere;
eta neure baliabideak hain ditut ongi
kudeatuko,
apurragatik dirateke etekintsu.

KLAUDIO

Ene Laertes,
Jakin nahi baduzu egia garbia
zeure aita laztanaren heriotzaz, zeure
mendekuan
idatzirik al dago, joko-arau,
harrapaka eramatea guztia, lagun zein etsai,
irabazle zein galtzaile?

LAERTES

Haren arerioak baino ez.

KLAUDIO

Jakin nahi al duzu, hortaz, nor diren?

LAERTES

Haren lagun onei, berriz,
zabal-zabalik dizkiet eskainiko besook,
eta, pelikano bizi-emaila amultsuak legez,

neure odolaz ditut bazkatuko.

KLAUDIO

Horratx, orain zara mintzo
seme jator eta jaun gizalegetsu baten moduan.
Zure aitaren heriotzaz errugabe naizela,
eta hartaz guztiz nagoela samin-larriturik,
hain zaizu zentzumenera garbi barrenduko
nola egun argia begira.

Zarata barruan.

AHOTSAK (*barruan*)

Utziozue sartzen.

OFELIA sartzen da, lehengo itxuran.

LAERTES

Hara, zer zarata da hori?
Oi sukar, idortu garunok! Malko zazpi bider
gaziak,
erre ezazue ene begion sen eta ahala! Zerua
lekuko,
hire eromenak pisu beteko ordaina din izango,

balantza gure alde itzultzeraino. Oi maiatzeko
arrosa,
dontzeilatxo laztan, arreba amultsu, Ofelia
eztia!

Oi zeruok, ba ote liteke neska baten zuhurtzia
agure baten bizia bezain hilkor izatea?

Fin da natura maitasunean, eta finaren finez
bere buruaren lagin preziatu bat du igortzen
maite duen izakiaren atzetik.

OFELIA (*kantari*)

Aurpegi-has zeramaten zerraldoan,
le lo ri lo bai le lo,
hilobia malko-auriz jarioan
Adio, usoño.

LAERTES

Heure senean bahengo, eta mendeku eske
jardun,
ez luken honen hunkigarri.

OFELIA

Zuk behar duzu kantatu: «Bertan behera,
bertan behera»;
eta zuk: «Bertan behera, ea». Oi, zeinen biribila
leloa!

Etkezain faltsuak ostu bere nagusiaren alaba.

LAERTES

Zentzu hutsetik hara doaz hitzok.

OFELIA

Hona erromeroa, oroipenatarako. Arren, maite,
oroitu.

Eta hona liliubelak, gogoetarako.

LAERTES

Eromenean ikasgai: gogoetak eta oroimena
elkarri egokituak.

OFELIA

Hona milua zuretzat, eta laufarakak. Hona
erruda zuretzat;

eta pixka bat enetzat. Grazia-belarra,
igandeetako izenez.

Oi, zuk bestela jantzi behar duzu erruda.

Hona bitxilore bat.

Emango nizkizuke liliubel batzuk,

baina guztiak ziren zimeldu aita hil zenean.

Diotenez, azken ona izan zuen.

(Kantari)

Loreen loreko Robin dut kutun.

LAERTES

Gogoeta eta samin, sufrikario, infernua bera,
gaixoak ditu txera eta atsegintasun bilakatzen.

OFELIA (*kantari*)

Ez ote da itzuliko gehiago?

Ez ote da itzuliko gehiago?

Ez, ez, hilik zatzan, ea

hoa heure hil-ohera,

ez dun hura itzuliko gehiago.

Bizarra hark elurretan elur zuri;

adatsa, oi, liho finez du zeharo.

Joan zaigu, joan zaigu,

eta kexu-min darigu.

Jainkoaren errukia hark itxaro!

Eta kristau guztiez berdin dagit otoitz. Jainkoa
dela zuekin.

Badoa.

LAERTES

Ikusten al duzu hau, ene Jainkoa?

KLAUDIO

Laertes, bat egin behar dut zure saminean;

ez ukatu eskubide hori. Aitzitik, zoaz, aukeratu

zeure lagun zuhurrenetarik nahi dituzunak,

haiek dezaten entzun eta epaitu bion artekoa.

Baldin zuzenean edo zeharbidez bagaituzte
auzian nahasturik kausitzen, erresuma dizugu,
koroa, bizia eta dugun eta jabe garen guztia,
kalte-ordaintzat zerorri emango. Baina hala ez
bada,

egiguzu plazer pazientziaz gu baitan fidatzeko,
eta lankidetzan dugu jardungo bi-biok,
kitapen-ordaina emateko zure arimari.

LAERTES

Bego.

Aitaren heriotzaren nolakoa, haren
ehorzketa iluna

—ez ikur, ez ezpata, ez armarririk hilobian,
ez errito noblerik, ez zeremonia formalik—
deiarrez daude, zerutik lurrera hoska irudi,
ditzadan kontu garbiak eska.

KLAUDIO

Egoki baituzu, arauz.

Laidoa non den, beraz, han bedi aizkora
eskerga jaus.

Zatoz, otoi, enekin.

Badoaz.

IV.vi

HORAZIO sartzen da, ZERBITZARI batekin.

HORAZIO

Zer dira enekin hitz egin nahi duten horiek?

ZERBITZARIA

Marinelak, jauna. Zerbait gutun omen dakarte berorrentzat.

HORAZIO

Esaiek sartzeko.

Badoa ZERBITZARIA.

Munduko zein bazterretatik ote dezaket nik goraintzirik jaso, ez bada Hamlet printzearengandik.

MARINELAK sartzen dira.

LEHEN MARINELA

Jainkoak jagon, jauna.

HORAZIO

Hark jagon hazala hi ere berdin.

LEHEN MARINELA

Bai noski, jauna, berak hala nahi badu.
Gutun bat dakargu berorrentzat,
Ingalaterrara zihoan enbaxadorearengandik.
Berorren izena Horazio bada,
jakinarazi didaten moduan.

HORAZIO (*irakurriz*)

«Horazio, lerrook irakurritakoan, emaiiek gizonoi
erregerengana sarbide. Gutunak zakartzatek
harentzat.

Bi egun egin ordukoxe itsasoan,
bapo armaturiko ontzi pirata batek atzeman
gaitik.

Makalegiak izaki gure belak, adore etsiz ekin
zioagu.

Elkar jotzean, han nauk oldartu haien ontzira.
Istantean ziotek haiek jaregin gureari; hala,
ni bakarrik nauk agitu haien atxilo.

Lapur errukitsu modura portatu dituk enekin.
Baina bazekitean zer ari ziren:
ordaineko zerbitzua espero ditek nigandik.

Helaraziezazkiok erregeri hor doazen gutunok;

eta bil hadi nigana, heriorengandik hanka
 egingo hukeen
bezain agudo. Badiat hiri belarrira esateko
 kontu bat,
mutu utziko hauena; arinegiak izanik ere hitzok
gaiaren gaitzarentzat. Marinel jatorrok ekarriko
 haute
nagoen lekura. Rosenkrantz eta Gildensterne
Ingalaterrara bidean dituk beti ere.
Badiat haietaz hiri kontatze korik asko.
Izan ongi.

 Bihotz-bihotzez hire lagun,

 Hamlet.»

Zatozte, ahalik eta bizkorren dut bideratuko
zuen mandatua, zuzenean nazazuen eraman
gutunok eskuratu dizkizuen harengana.

Badoaz.

IV.vii

KLAUDIO eta LAERTES sartzen dira.

KLAUDIO

Orain zure kontzientziak behar du ene
askespena zigilatu,
eta laguntzat behar nauzu kokatu zeure
bihotzean;
entzun baituzu, eta belarri ernez aditu,
nola zure aita noblea hil duen horrek
niri nahi zidan kendu bizia.

LAERTES

Agerian da noski. Baina esan biezat
zergatik ez zituen berorrek auzibideratu
gaizkintzok,
hain izanik krimentsu eta heriotzaz zigorgarri,
berorren segurtasunak, zuhurtziak, eta abarrek,
larriki premiatzen zutelarik berori hartara.

KLAUDIO

Bada, bi arrazoi bereziz,
zeinak zuri, ausaz, hagitz erkin baitzaizkizu
begitanduko,

baina enetzat sendo baitira. Haren ama
erregina
ezin bizi liteke hura gabe; eta niri dagokidanez
—onerako zein txarerako, mesede nahiz kalte—
,
hain dago erregina estu loturik ene bizi eta
arimari, ezen,
izarrak beren esferan baino mugitzen ez diren
legez,
ezin baitut haren ondoan baino. Beste zioa,
berriz
—zergatik ezin dudan jo, alegia, auzibide
publikora—,
jende arruntak printzeari dion bihotzaldia duzu,
zeinak, sentipen horretan beraturik haren
hutsak,
bailituzke, zura harri bihurtzen duen iturria
bezala,
apain zurituko haren akatsak;
halako moldez non ene geziak,
eite arinegikoak hain haize indartsuarentzat,
ene arkura itzuli ziratekeen atzera,
nik nahi nuen xedera gabe.

LAERTES

Eta hara nola dudan nik aita noble bat galdua;
arreba bat etsi gaiztora amildua, zeinaren
balioa,
atzera egiterik badago laudorioan,
guztien gailen baitzen ageri, parerik gabe
mundu honetan,
bikaintasunaren gailurrean.
Baina aurki dut mendeku hartuko.

KLAUDIO

Ez galdu lorik horregatik. Ez dezazula pentsa
hain dugunik barrena kamuts eta zaingabe,
non hola-hola utz diezaiokegun inori arrisku
gertuz
gure bizarretik tira egiten. Aurki duzu adituko
gehiago.
Maite nuen zure aita, eta geure burua maite
dugu;
eta horrek, espero dut, iradokiko dizu...

MANDATARI bat sartzen da.

Zer dugu? Zer berri dakarzu?

MANDATARIA

Gutunak, jauna, Hamletek igorriak.
Hau, maiestate horrentzat; hau,
erreginarentzat.

KLAUDIO

Hamleten gutunak? Nork ekarriak?

MANDATARIA

Marinel batzuek, jauna, omen. Nik ez ditut ikusi.
Klaudiok dizkit eman niri. Hark jasoak dira.

KLAUDIO

Laertes, berriok behar dituzu entzun.
—Zoaz.

Badoa MANDATARIA.

(Irakurriz)

«Gorentasun ahaltzu hori, jakiteko du
biluzgorririk nautela berorren erresumaratu.
Bihar baimena dut eskatuko,
berorren begi maiestatetsuen aitzinera agertu
eta,
aurrena barkamendu erreguturik berorri,
neure itzulera tupusteko bezain ezusteko honen
berri emateko.

Zer esan nahi du honek? Itzuli ote dira
gainerakoak?

Ala amarruren bat da, eta ez da halakorik?

LAERTES

Idazkera ezagutzen al du berorrek?

KLAUDIO

Hamletena da garbi.

«Biluzgorririk.»

Eta honako post-scriptumean «bakarrik» dio.

Zein da zure iritzia?

LAERTES

Itsumandoka nabil, jauna. Baina utz biezaio
etortzen.

Bihotzeko mindura ematzen zait pentsaturik
biziko naizela hari kararik kara esateko:

«Horra hire obra».

KLAUDIO

Hala izanez gero, Laertes

—ezen nola liteke hala? nola bestela?—,

ene esanera jarriko al zara?

LAERTES

Non eta ez nauen berorrek bakera lerrarazi
nahi.

KLAUDIO

Heure bakera, Laertes. Hura itzulia bada,
bidaian bertan behera utzirik, eta ez badu
asmorik
berriro abiatzeko, nik dut bideratuko
dagoeneko ongi pentsatua dudan ataka batera,
zeinaren kinkan erremediorik gabe baita
eroriko;
eta haren heriotzaz ez da haizatuko erru-
marmarrik,
baizik are beraren amak du kargugabetuko
egintza,
eta halabehartzat jo. Bi hilabetetsu dira
hemen izan zela Normandiako zaldun bat.
Nerau ikusia naiz frantsesik, eta aurka lehiatua,
eta hagitz dira trebe zaldizka; baina honena
sorginkeria hutsa zen. Bere zela gainean hantxe
paratu,
eta hain gauza miragarriak eragin zizkion
zaldiari,

non baitzirudien bat eginik zeukala gorputza,
eta izatea

erdi-banaturik, abere jatorrarekin.

Hain ere ene asmamenetik harago, ezen,
neure baitan askotariko figurak irudikaturik,
labur geratzen bainintzen harenen aldean.

LAERTES

Normandiar bat, diozu?

KLAUDIO

Normandiarra, bai.

LAERTES

Bizia nuke jokatuko Lamord zela.

KLAUDIO

Huraxe bera.

LAERTES

Ongi ezagutzen dut. Bere sorterriko
bitxi ederretan ederrena da, baiki.

KLAUDIO

Zure aitorra egin zuen,
eta halako bikain zintuen goraipatu
babes-armen arte eta antzeari dagokionez,
eta ezpata-jokoan, hain zuzen, oroz gainetik,
aldarri egin baitzuen ikuskari ederra zatekeela,
tamainako areriorik bazenu. Haren hitzok

hain zuten Hamlet bekaitzez pozoitu, non oxalaka bizian ekin baitzion bertan, ailizka berehala itzul zintezan zu, eta bion indarrak proba.

Beraz, hortik...

LAERTES

Nolako hortik, jauna?

KLAUDIO

Laertes, maite al zenuen zeure aita?

Ala penaren margo-irudia baino ez zara, aurpegi bihotz gabe bat?

LAERTES

Zer dela-eta galdera hori?

KLAUDIO

Ez noski pentsatzen dudalako aita maite ez zenuenik,

baizik eta, jakinik denboratik sortua dela maitasuna,

ikusia naizelako, frogabide askoren argitan, nola duen denborak haren su eta garra moteltzen.

Itzulbidean da Hamlet. Zertarako zeundeke prest,

zeure aitaren duin zarela erakusteko
ekintzetan,

hitzetan baino hobeki?

LAERTES

Hari zintzurra ebakitzeko elizan.

KLAUDIO

Ez dagokio, hain zuzen, santuariorik hilketari;
ez da mugarik mendekuarentzat. Baina, Laertes
jator hori,

egingo al duzu hauxe? Zaude zeure gelatik
irteteke.

Hamletek, itzulirik, jakingo du hemen zaudela
ostera.

Zure bikaintasunaren aldarri batzuek, gure
agindupean,
berniz bikoitza diote ezarriko frantsesak eman
zizun ospeari;
biok bildu, eta trabes egingo dugu nor baino
nor.

Hark, ezaxolati izaki,
bihotz-zabala guztiz, eta azpikeriaren usainik
gabea,
ez ditu miatuko armak; hala, bada, modu
erraza dukezu,

abilezia pixka bat aski, kamustu gabeko
ezpata bat hautatu, eta, oldarrean artez,
bertan ordainarazteko zeure aitarena.

LAERTES

Hala dut egingo.

Eta, hartarako, neure ezpata dut gantzutuko.

Ukendu bat eresia diot kaleko hitzontzi bati,
hain hilgarria, non, ganibet bat hartan bustitze
hutsez,

hark odola ateratzen duen tokian ez baita
txaplatarik

—ilargipean indarrik duten belar guztiez ondua
izanagatik—

haren zauririk arinena ere jasaniko inor duenik
heriotzatik salbatuko. Neure ezpata-punta dut
igurtziko

eden horrez, eta, nik Hamleti axala
harramazkatzea aski,

heriotza duke bertan.

KLAUDIO

Astiroago hausnartzekoa da hori;

ea zer egokiera zaigun, zer, noiz eta nola,
geure asmorako komeni. Huts egin, eta
horrenbestez

agerian geratzekotan gure jokoaren makurra,
hobe genuke ez saiatzea. Beraz, ordeko
beste plan bat behar dugu atzetik, hau ustel
irtengo litzaigukeen kasurako. Ea, utzi
pentsatzen.

Trabes hotsandiko bat dugu egingo bion
trebeziaz. Hori da.

Ariketan beroak eta egarriak jotzen
zaituztenean

—hartarako, saiatu ekinaldiak bortitzago
egiten—

eta hark edaria eskatzen duenean, prest dut
edukiko

kaliza bat berariazkoa; hartatik hurrupada bat
aski,

zortez zure ukaldi edentsuari ihes eginik ere,
gure xedea bete dadin.

GERTRUDE sartzen da.

Zer dugu, erregina ezta?

GERTRUDE

Bata bestearen oinatzean datoz saminak,
jarrai-jarraian. Zure arreba ito da, Laertes.

LAERTES

Ito? Oi, non?

GERTRUDE

Bada sahas bat errekan gaindi zehar hazia,
bere hosto zurixkak ur-ispiluari erakuski.
Hara da hura heldu girlanda fantasiatsuz
horniturik,
irribelar, asun, bitxilorez, eta orki-lili luzangoz
zeinei,
artzain arruntek izen gordinagoa emanagatik,
hilotz-hatz deitzen baitiete gure dontzeila finek.
Han, zume zintzilikarietan bere loreok
esekitzera
beso-zango igoa, aldaxka bat da makur hautsi;
eta hantxe da, lilizko edergailuekin bera,
erreka negartira amildu. Zabal-zabal eginik,
sirena-antzo diote lipar batez igeri eutsi
arropek;
bitartean zuelarik abesten kanta zaharretarik,
bere larria sentitzeko gai ez denaren gisa, edo
jatorriz elementu hartara egokitua den
izaki bat irudi. Baina ezin luzaro iraun hala,
laster baitute bere jantziek, urez blai astun,
hango bere lelo goxotik azpiratu gaixoa

heriotza lohitsura.

LAERTES

Ene!, ito da, orduan.

GERTRUDE

Ito, bai, ito.

LAERTES

Urik sobera badun hik, Ofelia gaixoa,
eta debeku, beraz, nik negarra. Halaxe gaitun,
baina,
mundura jaio; naturak bereari zion hemen
eusten,
lotsaren zer esanagatik ere. Malkook
joanenean,
ez gehiago emakumearenik. —Adio, jauna,
solas suzko bat daukat garretan lehertzear,
txoraldi honek iraungiko ez balu.

Badoa.

KLAUDIO

Goazen atzetik, Gertrude.

Kostatu zait galanki mutilaren sumina baretzea,
eta ez dakit honekin ez ote den ostera piztuko.
Goazen, bada, atzetik.

Badoaz.

V.i

Bi ARLOTE sartzen dira, aitzurra eta pala eskuetan.

LEHEN ARLOTEA

Kristau-modura lurperatu behar al da honako hau,
nahita bilatu baitu bere salbazioa?

BIGARREN ARLOTEA

Baietz, bada; egik, egik azkar hobia. *Jurezak*,
aztertu,
eta kristau-lurra erabaki dik.

LEHEN ARLOTEA

Nola liteke, ez bazen ito bere buruaren defentsan?

BIGARREN ARLOTEA

Hori duk, bada, erabakia.

LEHEN ARLOTEA

Se offendendo izan behar dik, ezin duk besterik izan.

Izan ere, honatx gakoa: ohartuki itotzen banaiz,
horrek egintza bat argudiatzen dik;

eta egintza batek hiru adar ditik;
hau da: egitea, gauzatzea eta burutzea. *Argu*,
ohartuki ito zian bere burua.

BIGARREN ARLOTEA

Bai, baina, entzuidak, ehorzle jaun-maisu.

LEHEN ARLOTEA

Barkatuidak. Hemen duk ura: konforme.

Hemen gizona: konforme.

Gizonak ur honetara joan eta bere burua
itotzen badu,

joan, nahi-eznahi, joan duk. Konturatzen?

Ura badator, berriz, gizonarengana, eta hura
itotzen,

ez dik gizonak bere burua itotzen. *Argu*,
bere heriotzaren errudun ez denak
ez dik bere bizia laburtzen.

BIGARREN ARLOTEA

Hala al da legea?

LEHEN ARLOTEA

Bai, alajaina: auzinausiaren azterketaren
araberakoa.

BIGARREN ARLOTEA

Jakin nahi al duk egia? Aitoren alaba bat izan ez
balitz,

kristau-lurretik kanpo ehortziko zitean.

LEHEN ARLOTEA

Hori duk hitza: eta penagarriena,
handiek esku gehiago izatea mundu honetan
beren burua ito edo zintzilikatzeko,
beren kristaukideek baino. Ea, ene pala.
Aitoren seme zaharrik ez duk,
baratzezain, aitzurtzaile, eta hobigileak
adinakorik.

Adanen lanbideari eusten ziotek.

BIGARREN ARLOTEA

Aitoren seme izan al zen Adan?

LEHEN ARLOTEA

Lehenbiziko iskiluduna izan zuan.

BIGARREN ARLOTEA

Ez zian-eta iskilurik!

LEHEN ARLOTEA

Pagano petoa al haiz hi ordea?
Nola ulertzen duk hik Eskritura? Eskriturak zio
Adanek aitzurrean jardun zuela.
Beso bi izanez gero, nahikoa iskilu ez al da
aitzurra?

Beste galdera bat egingo diat.

Xuxen erantzun ezean, hobe huke aitortu eta...

BIGARREN ARLOTEA

Ea ba.

LEHEN ARLOTEA

Nork du eraikitzen sendoago,
harginak, ontzigileak eta arotzak baino?

BIGARREN ARLOTEA

Urkabe-egileak: mila bezero joan-etorri,
beti prest-prest haren zera.

LEHEN ARLOTEA

Ona, alafede, ateraldia. Ongi zagok urkabea.
Nolatan, ordea, ongi?

Bada, ongi noski gaizkilearentzat.

Hik, alabaina, gaizki egin duk esanez
urkabea sendoago eraikia dela eliza baino.

Argu, urkabea ongi zagok apika hiretzat. Ea,
berriro.

BIGARREN ARLOTEA

Nork du eraikitzen sendoago,
harginak, ontzigileak eta arotzak baino?

LEHEN ARLOTEA

Bai, esadak, eta hoa jare.

BIGARREN ARLOTEA

Arranopola, bazakiat.

LEHEN ARLOTEA

Ea.

BIGARREN ARLOTEA

Mezasantua, ez zakiat.

HAMLET eta HORAZIO sartzen dira, urrunean.

LEHEN ARLOTEA

Ez nekatu gehiago bururik horrekin,
hire asto motela ez baita joango
egurtuagatik bizkorrago.

Eta hurrena galdera hori egiten diatenean, esak
«hobigileak». Hark eginiko etxeek
azken juizioko egunera arte ditek irauten. Ea,
hoa Vaughan-enera eta ekardak txarro bat
pattar.

Badoa BIGARREN ARLOTEA.

(aitzurrean kantari)

Gaztetan maitemin, minez,
zeinen zitzaidan ezti
denbora galtzea maite laztanez;
oi, alferrik hainbat asti.

HAMLET

Ez ote du sujetu honek bere egitekoaren
sentipenik,
kantari aritzeko hobi-zulatzan?

HORAZIO

Ohiturarekin zaio ezaxolatasuna nagusitu.

HAMLET

Hala duk, izan ere; gutxi ibiliriko eskua ohi duk
sentiberatasun handienekoa.

LEHEN ARLOTEA (*kantari*)

Baina adin lapur isilak
nau ni gogor atzitu,
eta lehorrean ezarri,
alegia ez bizitu.

Burezur bat jaurtitzen du.

HAMLET

Burezur horrek bazian mihi bat,
eta kantatzeko gai zuan behiala.
Horra nola duen orain dongeak
lurrera harrika iraitzen, Kainen masailezurra
bailitzan,
hari zor baitzaio lehenbiziko hilketa.

Politikari baten kaskarraizan litekek orain
asto honek halako tratua ematen diona,
Jainkoari iruzur egiteko gai zen batena;
ez al deritzok hala?

HORAZIO

Izan liteke, ene jauna.

HAMLET

Edo gorte-gizon batena, zeinak baitzekien
esaten:

«Egun on, jaun laztana. Nola dago berori, jaun
eztia?»

Izan litekek Halako Jauna, zeinak
Halako Jaunaren zaldia laudatzen baitzuen
hari eskatu nahi zionean, ezta?

HORAZIO

Bai, jauna.

HAMLET

Bai horixe, eta hona orain Andre Harretako,
masailagabe, eta zulogilearen aitzurrak
kankarra joa.

Ederra eraldakuntza, ikusteko gai bagina.
Hain gutxi kostatu ote zen hezurrok sortu eta
haztea,

bola-jokoan horrela aritzeko berekin? Eneek min
ditek

horretaz pentsatze hutsaz.

LEHEN ARLOTEA

Aitzurra eta pala, pala,
mihisez hiljantzi;
ostatu bat buztinez zula:
nork ez du merezi?

Beste burezur bat jaurtitzen du.

HAMLET

Horra beste bat. Ez ote da, ausaz,
legegizon baten burezurra?
Non dira orain haren kako-makoak,
haren agudeziak, haren kasuak, haren
tenentziak,
haren trikimailuak? Zergatik sufritzen du
horrela kanka jotzea buruan arlote trauskil
honek
pala zikin batekin, eta ez dio jartzen salaketarik
eraso-kalteez? Mmmm! lur-erosle handiren bat
zuan apika

bere garaian, bere hipotekekin, bere zor-
agiriekin,

bere itunekin, bere berme bikoitzekin, bere
aseguruekin.

Hau ote du, beraz, bere itunen ituna eta bere
aseguruen aseguruia, bere kaskar ituna
hauts itunez beterik kausitzeko honela?

Ukatuko ote diote orain bermea

bere bermeez, bikoitzak izanik ere,

hitzarmen-lagin baten luze-zabala doi-doi den
erosgai baterako? Haren lurren eskritura
guztiak

ozta-ozta dituk sartzen kutxa honetan.

Lurjabeari berari ere ez al dagokio gehiago,
hara?

HORAZIO

Zipitzik ere ez gehiago, jauna.

HAMLET

Pergaminoak ez al dira ardi-larruz egiten?

HORAZIO

Bai, jauna, eta orobat txahal-larruz.

HAMLET

Ardi eta txahal inozo galantak,

horretan bilatzen dutenak ziurtasun-bermea.

Mintza nakion sujetu honi. —Norena da hilobi hori, to?

LEHEN ARLOTEA

Enea, jauna.

(kantari)

ostatu bat buztinez zula:
nork ez du merezi?

HAMLET

Hirea behar dik noski, barruan hago eta.

LEHEN ARLOTEA

Berori kanpoan da, jauna, eta, beraz, ez da berorrena.

Niri dagokidanez, egia esateko ez nago bertan, baina hala ere neure dut.

HAMLET

Gezurretan ari haiz, barrutik esanez hirea dela hobia.

Hilarentzat duk, ez biziarentzat;
beraz, gezurretan haut hor harrapatu.

LEHEN ARLOTEA

Bizia, hala ere, jauna, gezurra;
badoake berriz nigandik berorregana.

HAMLET

Zein gizonentzat zulatzen ari haiz hilobia?

LEHEN ARLOTEA

Ezein gizonentzat ez, jauna.

HAMLET

Zein emakumerentzat, orduan?

LEHEN ARLOTEA

Ezta ezein emakumerentzat ere.

HAMLET

Nor da hor ehorzteko?

LEHEN ARLOTEA

Emakume izaniko bat, jauna;
baina, atsedan beu haren arimak, hila da.

HAMLET

Harrapa ezak kirtena!
Tentuz-tentuz beharko diagu hitz egin;
hondatuko gaitik, bestela, nahasbideak.
Jainkoarren, Horazio, joan deneko hiru urte
honetan
ohartua nauk: hain xorrotx bilakatu duk
gure gizaldi hau, ezen baserritar oiesa ere
hain doakion gorte-gizonari oinatz-oinatzean,
non
orpoko azkordina ere igurzten baitio.
—Noiztik ari haiz hilobigintzan?

LEHEN ARLOTEA

Urteko egun guztien artetik, Hamlet gure errege ohiak

Fortinbras garaitu zuen egun hartantxe hasi nintzen honetan.

HAMLET

Zenbat denbora du?

LEHEN ARLOTEA

Ez al daki berorrek? Tontoenak ere badaki-eta hori.

Egun berean baitzen jaio, hain zuzen, Hamlet gaztea;

zera, burutik egin eta Ingalaterrara bidali zutena.

HAMLET

Bai noski. Eta zergatik zuten, bada, Ingalaterrara bidali?

LEHEN ARLOTEA

Bada, burutik egina zegoelako.

Han delakoan bere senera etorriko.

Ez bator, hala ere, ez dio askorik axola han.

HAMLET

Zergatik?

LEHEN ARLOTEA

Han ez zaio antzemango.
Hura bezain ero dira han guztiak.

HAMLET

Nola zen erotu?

LEHEN ARLOTEA

Guztiz modu bitxian, omen.

HAMLET

Nolako bitxi?

LEHEN ARLOTEA

Alajaina, zentzua galdurik.

HAMLET

Nondik nora, baina?

LEHEN ARLOTEA

Bada, hemen Danimarkan.
Hogeita hamar urte daramat nik hemen,
mutikotatik, lurperatzaile-lanean.

HAMLET

Zenbat denbora egin dezake gizon batek
lurpean
usteldu baino lehen?

LEHEN ARLOTEA

Tira, hil aurretik usteldurik egon ezean

—etortzen baitzaigu gaur egun gorpu zornetsu
asko,
ehortzi orduko zertuta dagoenik—
zortzi-bederatzi urte iraun dezake hortxe-
hortxe.

Larrugin batek bederatzi urte bai.

HAMLET

Zergatik, bada, hark gehiago bestek baino?

LEHEN ARLOTEA

Bada, hara, jauna, hain dauka
zurratu eta ondua larruazala bere lanbidez,
urari barneratzen uzteke eusten dio luzaroan;
eta urak badaki ondo barren izorratzen
hilotz putasemea. Hona burezur bat.
Hogeita hiru urte daramatza kaskar honek
lurpean.

HAMLET

Norena zen?

LEHEN ARLOTEA

Burutik egindako putaseme batena.
Norela zela egingo luke berorrek?

HAMLET

Ez zakiat, bada.
Izurriak daramala zoro kirtena halakoa!

Burutik behera ez zidan ba behin bota
bonbil bat Rineko ardo!

Kaskezur hauxe, jauna, Yorick-en kaskezurra
zen,
erregeren bufoiarena.

HAMLET

Hauxe?

LEHEN ARLOTEA

Horixe, bai.

HAMLET

Uztak ikusten. Ene!, gaixo Yorick.
Ezagutu nian gizona, Horazio,
zirtolari bikaina, buru argietan argi.
Lepo gainean eraman izan naik mila bider.
Eta orain nolako higuin zaidan irudimenean!
Goragalea ematen zidak. Honixe zitxekan
nik dakita zenbat bider musu eman nion
musua.

Non daude orain zure izkirimiriak,
zure brinkoak, zure kankak, zure ateraldi
jostagarri,
mahaia algara-orroaka jartzeko gai zirenak?
Inor ez gaurgero zeure imintzioei burla egiteko?

Arras burujausia? Zoaz, zoaz, andre
gorenarengana

eta esaiozu, hazbete azal-margo emanik ere,
aurpegiera honetara etorriko dela azkenean.
Barre eragiozu horrekin.

—Otoi, Horazio, esadak gauza bat.

HORAZIO

Zer, jauna?

HAMLET

Uste al duk Alexandrok honelako itxura izan
zuela

lurreko bere aldian?

HORAZIO

Horrelakoxea.

HAMLET

Eta usaina ere bai? Pu!

HORAZIO

Horrelakoxea, jauna.

HAMLET

Ai hau gure behera beharra, Horazio.

Ez al dezake irudimenak

Alexandroren hauts noblearen arrastoa segi
harik eta barrika baten zuloa ixten
aurkitzeraino?

HORAZIO

Bitxikeriatzat jotzekoa litzateke gogoeta bitxi
hori.

HAMLET

Ezta batere, alajaina;
haraino zintzo-zintzo jarraitzea aski,
zer litekeen xuxen hausnarturik. Honatx:
Alexandro hil zuan, Alexandro ehortzia izan
zuan,
Alexandro hautsetan hauts bilakatu zuan.
Hautsa lurra duk; lurretik lokatza diagu lantzen,
eta
zergatik ez zen bera bilakatua zen lokatz hori
erabiliko
garagardo-upel bat ixteko?
Zesar gorengo hura, hil eta buztindurik,
zulo bat ixten horra, hel ez dadin haizerik.
Hara lur hori, ene!, antzinakoen izu,
neguaren zafraden aurka horma-petatxu!
Ixo, baina. Albora: horra hor errege,
erregina, gorte-gizonak. Noren segizioan?
Eta halako elizkizun urriz? Seinale
segizioan doazen gorpu horrek zuela etsi-etsian
bere buruaz beste egin. Handikiren bat zuan.

Gorde gaitezen lipar batez, eta kasu eman.

LAERTES

Zeremonia gehiagorik?

HAMLET

Hori Laertes duk, gazte guztiz noble bat. Kasu eman.

LAERTES

Zeremonia gehiagorik?

APAIZA

Zilegi dugun bezain zabaldu ditugu ehorzte-elizkizunak. Badaezpadakoa izan du heriotza; eta, ez balitzaio agindu gorena nagusitu arauari, lur sagaratu gabean ezarria zegokeen azken turuta arte. Karitatezko otoitz orde, harri, legar, hondakinak zizkioketen bota. Hemen, haatik, onartu zaizkio birjina-ohore eta lore-ihautzeak, eta ezkila eta guztiko azken hileta-agurra.

LAERTES

Ez da egin behar besterik?

APAIZA

Ezer ez besterik.

Defuntuen zerbitzua genuke lardastuko,
requiem batez opaturik hala hilari atsedean,
bakean joaniko arimekin berdinduz.

LAERTES

Eratzan lurrean,
eta haragi laztan orbangabetik
liliubelak bitez sor. Entzuidak, apaiz adeigabea,
aingeru zaindari izango duk ene arreba
hi aienez hagokeenean uluka.

HAMLET

Hara, Ofelia amultsua!

GERTRUDE (*loreak ihaurriz*)

Gozoari gozo. Adio.
Hi izatea espero ninan ene Hamleten emaztea.
Hire ezkon-ohea apaintzea ninan, haur laztana,
gogoan,
eta ez hire hilobia loreztatzea.

LAERTES

Oi, samin hirukoitza hamar bider bekio
ganean eror hari zeinaren gaizkintzak
heure buru-argitasun ederraz gabetu
baihinduen.

—Zaudete lurrez estali gabe, behin berriro
neure besoetan har dezadan arte.

Jauzi egiten du hilobira.

Pilatu orain lur-hautsa bizien eta hilen gainean,
harik eta ordoki hau bilakatu arte mendi,
Pelion zaharrari nahiz Olinpo urdinaren
buru ortzian gorari gailentzekoa.

HAMLET (*aurrera eginez*)

Nor da hain auhen bortitzez kexu dena,
bere tristura-pleinuz
izar alderraiak konjuratu eta haiek geldiarazirik,
entzule harridurak joen gisa? Hona ni,
Hamlet Danimarkakoa.

LAERTESen atzetik jauzi egiten du.

LAERTES

Deabruak haramala!

HAMLET

Ez duk errezo zuzena.

Otoi, ken itzak hatzamarrok ene zintzurretik;
Ezen, koleratsu eta oldarkor ez naizen arren,
badiat haatik neure baitan zerbait arriskutsua,

kontu egitea hobe hukeena. Kendu hortik eskua.

KLAUDIO

Banandu itzazue.

GERTRUDE

Hamlet, Hamlet!

SEGIZIOKOAK

Jaunok!

HORAZIO

Ene printze ona, baretu.

HAMLET

Auzi honengatik nauk ni honekin borrokatuko ene betazalak gehiago higi ez daitezen arte.

GERTRUDE

Oi ene semea, zer auzi?

HAMLET

Maite nuen nik, maite, Ofelia. Berrogei mila nebak

ez lezakete, beren maitasun guztia baturik, enea berdindu. —Zer hago hi prest egiteko haren alde?

KLAUDIO

Oi, burutik joa dago, Laertes.

GERTRUDE

Jainkoaren izenean, ez egin kasurik.

HAMLET

Zaurisantuak!, erakustak zer egiteko prest
hagoen.

Negarrez hasi? Borrokatu? Barau egin?

Heure burua urratu?

Ozpina edango duk, ausaz; krokodilo bat jan?

Ni prest nagok. Zinkurin egitera etorri al haiz,
arrebaren hilobira jauzi eginez niri erronka
jotzera?

Ehortz hadi bizirik harekin, eta berdin diat nik
egingo.

Eta, mendiak ekarriz gero hizpidera, bota
ditzatela

milioka goldelurrak gure gainean, harik eta
tontorrak,

kaskoa kiskaltzeraino altxaturik goialde
irazekira,

garatxo halako txiki dezan utz Osa mendia!

Egik, egik, oihu:

baietz hik bezain arranditsu egin nik

KLAUDIO

Eromenak hartua dago guztiz;

eta halaxe iraungo du apur batean.
Aurki, hain eroankor nola uso-ama
bere biki urrezkoak oskoletik irtetea,
mintzultasun itunera zaigu atzera bilduko.

HAMLET

Aizu, jauna,
zer dela-eta nauzu honela tratatzen?
Aski gogoko zintudan. Baina ez dio, ez, axola.
Herkules bera bedi lehia bere lanen egitera;
katuak miau eginagatik, txakurrak egokiera.

Badoa.

KLAUDIO

Otoi, Horazio jator hori, jagon ezazu.

Badoa HORAZIO.

(LAERTESI)

Pazientziaren sendogarri bekizu bart gaueko
gure solasa.
Ber-bertatik diogu aurrerabide emango
kontuari.

—Gertrude laztana, jar ezazu zainpean zeure
semea.

Hilobi honek ukan behar du oroigailu bizi bat.
Bake aldi bat gure artera gaurgero heltzen da
ari;
pazientzia biz bitartean gure egintzen gidari.

Badoaz.

V.ii

HAMLET eta HORAZIO sartzen dira.

HAMLET

Horraino, bada, kontu hori. Gainerakoz, ea, ikusagun.

Gogoan al duk gorabehera guztia?

HORAZIO

Nola ez, jauna!

HAMLET

Hara, ene ariman bazuan borroka suerte bat, lo egiten uzten ez zidana. Bilbo-burdinetan katigaturiko

matxinoa baino okerrago sentitzen ninduan.

Tupustean

—eta laudatuak bira gure tupustaldiok: aitor dezagun

zenbaitetan ederki zaigula begiramen eza baliatzen

asmo burutsuek kale egiten diguten lekuan.

Hortik behar genikek atera

badela jainko bat gure xedeak moldekatzen
dituena,
gure zirriborro baldarrak gora-behera...

HORAZIO

Ez da dudarik.

HAMLET

Ene kabinatik jaikirik,
itsas-atorrean nolabait bildua, ilunpean ninduan
haztamuka hasi haien xerka; haiengana iritsi,
agirien zorroa ostu, eta han ninduan limurtu
atzera neure gelara. Ausartzia osoz, han

nizkioan,

susmoek atzenarazirik manerak, zigiluak hautsi
haien errege-mandatuari; non aurkitu bainuen,

Horazio,

—oi, doilorren gorena!— agindu zehatz bat,
gutziz ere gainestalia askotariko arrazoibidez
—Danimarkaren ongia aipu, eta orobat

Ingalaterrarena,

eta egundoko izu-mamukeriak jaulkiz ene
biziaz—,

alegia, gutuna irakurtzean, betarik eman gabe
—ezta aizkora zorrozteak har zezakeena ere—
burua ziezadatela bertan moztu.

HORAZIO

Bai ote?

HAMLET

Honatx mandatua; irakur ezak patxada osoz.
Jakin nahi al duk, baina, hortik aurrerakoa?

HORAZIO

Arren, jauna.

HAMLET

Hala, bada, doilorkeriazko artez inguratua
—aitzin-solasa egin orduko neure garunei,
abian ziren jada haiek—, hantxe eseri, beste
mandatu bat

guztiz berria asmatu, eta txukun-txukun nian
idatzi.

Garai batean nik, gure estatu-gizonek bezala,
arrunkeriatzat neukaan kaligrafia fina; baina
hara non

zerbitzu galanta egin didan oraintxe. Jakin nahi
al duk

nondik nora zihoan ene idatzia?

HORAZIO

Baiki, ene jauna.

HAMLET

Erregek zorrotz egiten zioan arren
Ingalaterrakoari,
beraren zergapeko leiala izaki hura, eta, bihotz-
bihotzeko
elkar-hartze ona palmondoa bezala loraturik,
bakeak
aurrera ere jantz zezan bere buruxka-girlanda,
eta iraupenez lotu bien arteko adiskidetasuna...
eta halako manda-mandatuzko erretolika luzez,
ezen, mezua irakurri eta ulertu bezain laster,
gehiagoko ezbai handi-txikirik batere gabe,
zitzala mezulariak bat-bateko heriotzara eman,
konfesatzeko astirik ere uzteke.

HORAZIO

Eta gutun-zigiluak?

HAMLET

Horretarako ere, hara, bazian zeruak eskupe.
Neure aitaren eraztuna neramaan nik poltsan,
zeina errege-zigiluaren eredu petoa baita.
Idazkia tolestu bestearen moldean, izenpetu,
eraztunaz zigilatu, eta ezkutuan nian gorde
gutun aldatua atzera bere lekuan. Hurrengo
eguna, berriz,

gure itsas-guduarena izan zuan; eta, horren
segidaz,
jakitun haiz dagoeneko.

HORAZIO

Horretara dira, beraz, Gildensstern eta
Rosenkrantz.

HAMLET

Gogoko zitzaiean, hara, guztizko, beren egiteko
hori.

Ez zidatek ukitzen kontzientzia. Berek zitean
beren burua hondamendira bultzatu.

Arriskutsua duk gizaki txatxarra horrela denean
aurkari ahaltsuen ezpatakada sumin bizikoen
erdian agitzen.

HORAZIO

Nolako erregea, gero, gurea!

HAMLET

Ez al deritzok, lagun, ene txanda heldua dela?
Ene aita erregea hil duena eta ene ama
putatzat usatu;

hautespenaren eta ene esperantzen artean
limurtu,

eta neure biziari ere amua bota diona, halako
maltzurkeria zuriz bota ere...

Ez al da kontzientzia betekoa
beso honekin kito egitea harekikoa?
Eta kondenatzekoa ez al da
geure baitako minbizi honi geroz eta
gaizkiagotzen uztea?

HORAZIO

Iritsiko zaio laster Ingalaterratik berria,
zer emaitza izan duten hango kontuek.

HAMLET

Laster datekek hori. Bitarte hori, haatik, enea
duk;
eta gizonaren bizia doi duk «bat» esateko epea.
Hagitz damuturik nagok, baina, Horazio jator
hori,
Laertesekikoan horrela burua galdu izanaz;
peto-peto baitakusat neure kausaren irudian
harenaren erretratua. Aintzat hartuko diat
aurrerantzean.
Bere samin-erakusaldiaren nabarmenak naik
noski
neure onetik atera.

HORAZIO

Ixo! Nor dator hor?

OSRIK

Gorentasun hori, bihotzez ongi etorri atzera
Danimarkara.

HAMLET

Apaltasunez eskerrak zuri.
—Ezagutzen al duk mariburruntzi hau?

HORAZIO

Ez, jauna.

HAMLET

Hainbat hobe hire arimarentzat, galbide baita
honen ezaguera. Lur zabalak ditik, eta
emankorrak.

Piztia bat biz piztien jaun eta jabe,
eta aurki izango dik aska erregeren mahian.
Kaiku hutsa duk, baina, esan diadanez,
edukitsua lurrez eta simaurrez.

OSRIK

Jaun maitea, berorren adiskidetasunak astirik
balu,
banuke nik mezu bat berorrentzat bere
maiestatearengandik.

HAMLET

Gogorik onenez dizut nik hartuko.
Emaiozu zeure txanoari zuzen dagokion
erabilera:
bururako duzu.

OSRIK

Milesker, jauna, bero ere bero da.

HAMLET

Ez, sinestazu, hotz ere hotz da. Iparretik dator
haizea.

OSRIK

Hotz samar, baiki, jauna.

HAMLET

Aukeran sargori eta beroegi duzu aroa niretzat.

OSRIK

Ezinago bero, jauna. Sargori ere sargori,
alegia... Alegia...

Alabaina, jauna, bere maiestateak igorri nau
esatera

trabes handi bat duela berorren alde egin.

Jauna, hona zertan den...

HAMLET *(txanoa janztera ganbidatuz)*

Egidazu, arren, fabore...

OSRIK

Eskerrik anitz, gorentasun hori; baina ez baitut
noski gisa.0

Badakike berorrek, jauna, zeinen trebe bikaina
den
bere armarekin Laertes jauna.

HAMLET

Zein da haren arma?

OSRIK

Ezpata eta sastakaia.

HAMLET

Bi arma dira horrenbestez. Baina tira.

OSRIK

Erregek, jauna, sei zaldi Berberriako ditu jokatu,
eta haien aldera Laertesek ditu enparatu, aditu
dudanez,

sei espata-puinale Frantziako, beren
hornidurekin, hots,
uhala, bilurrak eta abar. Garraiadurotariko hiru,
zinez,

hagitz laketgarri dira, kirtenekin ederki
ezkontzen direnak,
estekadura ezin finagoak, eta irudimentsuak
guztiz.

HAMLET

Zer dira garraiadura direlakook?

OSRIK

Garraiadurak, jauna, bilurrak dira.

HAMLET

Zentzuaren kideago litzateke esamoldea, hara,
kanoia eramanez gero aldean.

Ordura arte, hobe, aukeran, bilurrak deitzea.

Tira, baina. Sei zaldi Berberiakoren aldera,

sei ezpata Frantziako, beren hornidura,

eta hiru garraiadura irudimentsu: hori da,

beraz,

frantses apostua daniarraren aurka.

Zer dela eta, zuk esan duzun moduan,

«enparatua»?

OSRIK

Erregek, jauna, apostu egin du

berorren eta Laertesaren arteko dozena bat

ekinalditan

hark berorri hiru sastadaren alderik atera ezetz.

Laertesek hamabitik bederatzian baietz.

Eta ber-bertatik zertu liteke kontua, gorentasun

hori,

baldin eta erantzuna emateko txera badu berorrek.

HAMLET

Eta ezetz bada erantzuna?

OSRIK

Erantzuna, alegia, berorrek norgehiagokan parte hartzeko, jauna.

HAMLET

Ibili bat egingo dut, hara, hementxe areto honetan.

Bere maiestateak plazer badu, kirol-ordua dut nik oraintxe.

Dakartzatela armak: aurkari jauna gerturik badago,

eta beti ere berean tinko errege, beraren alde naiz

garaitzen ahaleginduko. Ezean, ez dut irabaziko neure lotsa eta sastada enparatuok besterik.

OSRIK

Bere horretan behar al dut mandatua itzuli?

HAMLET

Tira, jantz ezazu

gogoak eskatzen dizun bezain apaindura bihurritz.

OSRIK

Jauna, berorren zerbitzaririk obligatuena nau.

HAMLET

Ni zurea, ni zurea.

Badoa OSRIK.

Egoki da berak famatzea bere burua
zerbitzaritzat;
ez dio inork hainbesterik aitortuko.

HORAZIO

Hegabera hau oskola buruan doa, hara, korrika.

HAMLET

Kunplimenduak egiten zizkioan titiari edoski
aurretik.

Hala duk geratu —mundu txoroak noski kutun
dituen

beronen txitaldiko beste asko bezala— garaiko
hitzots dotore eta tratu-adeitasun itxura huts-
hutsean.

Apar-jario moduko bat duk halakoena,
iritzi burutsuenen artean ur gaineke bitsetan
bide eragiten diena; putz egiek, baina,
aurpegira,

eta akabo burbuilekin kontua.

HORAZIO

Galtzekoa du berorrek dema, jauna.

HAMLET

Ez diat uste. Frantziara joan zenetik, etengabe aritua nauk.

Enparatuen abantaila diat alde. Baina ez huke sinetsiko

nolako ondoezak joa daudakan barrena.

Ez dio, haatik, axola.

HORAZIO

Ez, jauna...

HAMLET

Txorakeria hutsa duk. Zera, emakume bat apika asalduz beteko lukeen bihozkada horietariko.

HORAZIO

Ezeren erreparorik badu berorrek, begio men.

Ez etortzeko diet esango, ez dagoela-eta gerturik.

HAMLET

Ez hurrik eman ere. Zer guri zantzuok?

Probidentziaren eskua zabilek tartean

txolarre baten erorikoan. Orain behar badu,

ez duk geroko. Geroko ez bada, orain izango duk.

Orain ez bada, hala ere noizbaiteko duk.

Prest egotea duk gakoa. Inork ez dakienez atzean uzten duenaren arrastorik, zer axola garaiz aurretik eginik alde? Bego.

KLAUDIO, GERTRUDE, LAERTES, OSRIK, gorte-gizonak eta segiziokoak sartzen dira, turutaz eta danborrez, ezpata-jokorako tresnekin. Mahai bat hornitua.

KLAUDIO

Zatoz, Hamlet, eta har ezazu luzatzen dizudan esku hau.

LAERTESen eskua jartzen du HAMLETenaren gainean.

HAMLET

Barkamendu dizut eskatzen, jauna. Kalte egin dizut;
baina barka iezadazu, zure jauntasunari duin zaion legez.

Hemen bilduek badakite, eta aditu dukezu
noski,

nola erasan didan buru-galtze latz batek.

Zer ere baitut egin,

zure natura, ohore eta aldar-tearen
atsekabegarri,

hemendik dagit aldarri eromenari zor zitzaiola.

Hamletek ote dio Laertesi egin kalte? Ez
halakorik.

Hamlet bere sen eta burutik horrela irtena
badago,

eta bera ez delarik badio egiten kalte Laertesi,
ez dio Hamletek egiten kalte; ezetz diotso horri
Hamletek.

Nork dio, orduan, egiten? Haren eromenak.

Hala bada,

kaltetuen alderdikoa dugu Hamlet;

bere eromena du arerio Hamlet gaixoak.

Jauna, auzi-entzuleon aurrean

asmo gaiztoaren ukapen honek nazala

hain errugabetu zure gogo-bihotz guztiz
zabalean,

nola baininduke, etxe gainera bota gezia,

eta anaia zauritu banu.

LAERTES

Kito horrenbestez naturazko partea, zeinak
baininduke

kasu honetan gehienik akuilatu behar
mendekura.

Ohoreaz denaz bezainbatean, ordea,
neurean nago, eta ez dut nahi bakeak egiterik
harik eta gure arteko zenbait autoritate
adintsuagok

halako itunaren zerbait aurrekari aurkitu arte,
tatxagabe dirauen ene izenak. Anartean, baina,
halakotzat dut hartzen zure bihotz-erakutsia,
eta zintzoki diot erantzungo.

HAMLET

Gogotsu natzaio horri lotzen.

Buru-belarri naiz arituko anaiarteko dema jator
honetan.

—Emazkiguzue ezpatok. Bizkor.

LAERTES

Ea, bat niretzat.

HAMLET

Enetik dukezu distira, Laertes. Ene ezjakinean,
zure antzeak du, izarrak gau ilunenean bezala,
bizi ere biziki ñirñir egingo.

LAERTES

Burla egiten ari zatzaizkit.

HAMLET

Ez, esku hau zin-lekuko.

KLAUDIO

Emaizkiozu altzairuak, Osrik gaztea. Ene kusu
Hamlet,
ba al dakizu zer den jokutzen?

HAMLET

Ondo asko, jauna.
Zure graziak alderdi ahulenean ezarri ditu
enparatuak.

KLAUDIO

Ez dut kezkarik; ikusi izan zaituztet biok ere.
Baina, hobetsirik dagoenez, hortik enparatuen
abantaila.

LAERTES

Hau astunegia da. Ea beste bat.

HAMLET

Hau gogoko dut.
Guztiak luzera batekoak al dira altzairuok?

OSRIK

Bai, ene jauna.

Borrokan hasteko prestatzen dira.

KLAUDIO

Para itzazue hortxe ardo-pitxerrak mahai
gainean.

Hamletek lehen edo bigarren sastada emanaz
gero,

edo ordainez kitora etorri hirugarren ekinaldian,
Harresi-gain guztiek bezate danba sutu.

Erregek topa egingo du Hamleten sasoiaren
alde,

eta kopan perla bitxi bat du botako,
aberatsagoa

lau errege jarraituk Danimarkako koroan
eraman dutena baino. Ekar hona kopak;

eta bekio atabala turutari mintza,
turuta kanpoko kanoizainei,

kanoiak zeruei, zeruek lurrari:

«Erregek topa dagi Hamleten alde». Ea, has.

Eta zuek, epaileok, erne jokoari.

HAMLET

Ekin, ea.

LAERTES

Ekin, jauna.

Ezpataka dihardute.

HAMLET

Bat.

LAERTES

Ez.

HAMLET

Epaia.

OSRIK

Sastada; puntu garbi-garbia.

LAERTES

Ongi da; berriz.

KLAUDIO

Egon. Emadazue edatera. Hamlet, perla hau
hirea duk.

Osagarri hiri!

Danbor eta turuta hotsa, kanoi-sutunpa.

Emaiozue kopa.

HAMLET

Jokaldi hau aurrena. Utzi hor pixka batean.

Ekin.

Ezpataka dihardute berriro.

Beste sastada bat. Ez al da?

LAERTES

Ukitua, ukitua, aitor dut.

KLAUDIO

Gure semeak du irabaziko.

GERTRUDE

Bete-beterik dago, arnaslarriturik.

Hona, Hamlet, tori ene zapia, xuka ezak kopeta.

Erreginak hire zortearen alde zagik topa,
Hamlet.

HAMLET

Andrearen on.

KLAUDIO

Gertrude, ez edan.

GERTRUDE

Edan nahi dut, jauna, berorren baimenarekin.

Edaten du, eta hamleti eskaintzen kopa.

KLAUDIO (*bereiz*)

Pozoituriko kopa da. Beranduegi da.

HAMLET

Oraindik ez naiz ausartzen, andrea; geroxeago.

GERTRUDE

Hator, musua xukatuko diat.

LAERTES

Maiestate hori, baietz oraintxe sastatu.

KLAUDIO

Ezetz.

LAERTES (*bereiz*)

Eta haatik neure kontzientziaren aurka doa ia.

HAMLET

Zatoz hirugarrenaren bila, Laertes. Denbora-pasa ari zara.

Ekin, otoi, indarren betean jokoari kementsu. Zeure jostailutzat ote naukazun dirudi.

LAERTES

Bai ote? Ekin, bada.

Ezpataka dihardute.

OSRIK

Hutsean bi-biak.

LAERTES

Guardian!

*LAERTESEK HAMLET zauritzen du. Gero,
tirabiran indarka, ezpatak trukatzen
dituzte, eta HAMLETEK LAERTES zauritzen du.*

KLAUDIO

Banandu. Sumindirik daude.

HAMLET

Ez, segi dezagun.

GERTRUDE lurrera doa.

OSRIK

Kontu egin erreginari. Hots!

HORAZIO

Odoletan daude alderdi bietan. Zertan gara,
ene printzea?

OSRIK

Zertan gara, Laertes?

LAERTES

Bada, bere lakioan harrapaturiko basoilarra
bezala, Osrik.

Justuki nau neure traizioak hiltzen.

HAMLET

Zer du erreginak?

KLAUDIO

Konortea galdu du odoletan ikusirik.

GERTRUDE

Ez, ez, edaria, edaria! Oi ene Hamlet laztana!
Edaria, edaria! Pozoiak naik galdu.

Hiltzen da.

HAMLET

Oi doilorkeria! Hots! Itxi bezate atea.
Traizioa! Miatu bazterrak.

LAERTES

Hona non den, Hamlet. Hamlet, egin dik hireak.
Ez da munduan botikarik sendatuko hauenik.
Doi-doi zaik geratzen ordu erdiko bizia.
Traizioaren tresna makurra, eskuan duk,
kamusteke eta edendua. Bidegabekeria
bera duk ene kontra itzuli. Hara, hemen natzak
ni
ostera ez altxatzeko sekula. Hire ama, pozoiak
joa.
Ezin diat gehiago. Errege, errege duk errudun.

HAMLET

Puntarekin edena ere bai? Egik, bada, eden,
heure lana.

KLAUDIO sastatzen du.

GORTE-GIZONAK

Traizioa! Traizioa!

KLAUDIO

Oi, babes nazazue, lagunok, zauritu baino ez
nau egin.

HAMLET

Tori, daniar errege intzestutsu, hiltzaile,
kondenatua:
Irentsi edabe hau.

Edatera behartzen du KLAUDIO.

Hor al da hire bitxia? Hoa ene amaren atzetik.

Hiltzen da KLAUDIO.

LAERTES

Bere merezia hartu dik:

beraren eskuek ondua duk pozoia.

Barkamena indak jatorki, Hamlet, nik hiri
bezala.

Aitaren eta bion heriotza ez bedi hire gainera
eror,
ezta hirea ere ene gainera!

HAMLET

Zeruak libra hazala zama horretatik! Hire
atzetik noak.

Galdua nauk, Horazio. Gaixo erregina, adio!
Kinka honen lekuko zurbil eta ikaratuok, hitzik
gabe

ikus-entzule soil zaretenok gertaldi honetan:
astirik banu —Herio legemutil anker hori
zorrotz baita atxilo ematen—, oi, banuke
kontatzeko...

Bego, baina. Horazio laguna, galdua nauk;
hik bizirik dirauk: emaiak enekin ene kausaren
berri
ezjakitun direnei.

HORAZIO

Ezta pentsatu ere.
Antzinako erromatarra areago naiz ni, daniarra
baino.

Bada oraino ardorik hor.

HAMLET

Gizon haizen arauz,
emadak kopa. Zeruarren, uztak, uztak!
Jainko maitea, Horazio, nolako izen laidoztua
dudan,
honela argitzeke geratuz gero gauzak, atzean
uzten!
Inoiz lekurik izan badut hire bihotzean,
uko egiok oraingoz zorionari,
eta mundu krudel honetan hadi oinazean bizi,
ene historia kontatzeko.

Martxa bat urrunean eta kanoi-danbada.

Zer da gudu-zarata hori?

OSRIK sartzen da.

OSRIK

Fortinbras gaztea, Poloniatik garaile itzulirik,
Ingalaterrako enbaxadorei die eskaintzen
gudu-sutunpa hori.

HAMLET

Oi, hiltzen ari nauk, Horazio.

Pozoi indartsua erabat gailentzen duk ene baitan.

Ez nauk biziko Ingalaterrako berriak entzuteko, baina iragartzen diat hautespenak dukeela Fortinbras faboratu. Harentzat hilzoriko ene boza.

Hala esaiok, eta arretaz diezaala hark entzun zer gertakari ziren tartean... Gainerakoz, isiltasun.

Hasperen luze bat egin, eta hiltzen da.

HORAZIO

Horra zartatu bihotz noble bat. Gau on, printze laztan hori, eta aingeru oste kantari artean hartu atsedeen. Zer dela-eta danbor-hotsok honaino?

FORTINBRAS sartzen da, Ingalaterrako ENBAXADOREekin, eta gudalostea, danbor eta margo-ikurrez.

FORTINBRAS

Non da ikuskizun hori?

HORAZIO

Zerik nahi du berorrek ikusi hemen?

Samin edo harrigarririk bada, ez bilatu gehiago.

FORTINBRAS

Hilkintzaren galanta! Oi Herio harro hori,
zer festa duk antolatua heure infernu-zuloan,
ukaldi odoltsu batez baituk hainbeste printze
bet-betan kolpatu?

ENBAXADOREA

Tamalgarría ikuskizuna;
beranduegi da heldu Ingalaterratiko gure
enbaxada.

Sentigabe horra belarriak, entzun behar
zigutenak

bete dugula, bete, emaniko agindua, eta
Rosenkrantz eta Gildensstern hilik daudela.
Norengandik ditugu orain eskerrak jasoko?

HORAZIO

Ez horren ahotik,
eskertzeko bizi-gaitasunik lukeen kasuan ere;
ez baitzuen sekula eman haiek hiltzeko
agindurik.

Baina, hain direnez izugarrikeria honetara jaun
biok

—berori Poloniako guduetatik eta berori
Ingalaterratik—

tenorez heldu, eman, arren, ordena ezen
oholtza gora batean daitezzen gorputzak ikusgai
jarri.

Eta utzi, otoi, niri, oraino ez dakikeenari esaten
nola garen honelakatu. Hala dute jaunok izango
aditzea

haragi, odol eta bortxazko gizagabekeria
anitzena:

halabeharrezko epaitze, ezbeharrezko hilketa,
bidegabeko maltzurkeriak eraginiko heriotzarik;
eta, hondar eta finean, hainbat burubide makur
asmatzaileen gainera atzera eroririk. Hori guztia
dut

ben-benik kontatzeko.

FORTINBRAS

Gaitezen entzutera lehia,
eta bil daitezela jaun nobleenak batzarrera.
Niri dagokidanez, arranguraz dut neure zortea
onartzen.

Badut eskubide atzendu gaberik erresuma
honen gainean,
eta abaguneak nau orain haiek erreklamatzera
bultzatzen.

HORAZIO

Horretaz ere baduket nik hizpide,
beraren bozak gehiago erakarriko duenaren
ahotik.

Baina bedi delako hori orain berean gauzatu,
gizonen buruak asalduz daudeno, ez dadin
gaitzagorik
makurbide eta errakuntzen gain gerta.

FORTINBRAS

Lau kapitainek bezate
soldadu gisa altxa Hamlet oholtzara;
ezen bazuen jite eta gaia, hartara balitz,
errege bikaina izateko. Eta, azken agurrean,
bitez martxa eta zeremonia gerrazkoak
ozenki mintza haren ohorez.
Jaso, mutilok, jaso gorpuok. Ikuskizun odoltsurik
badu maizkara gudu-zelaiak; hemen, baina,
halakorik!
Ea, sutu bitzate kanoiak.

*Badoaz, hotsandiko martxaz; gero,
kanoi-sutunpa bat entzuten da.*

ERANSKINA

Bertsio luzeagotik alboratuak

1

BERNARDO

Halaxe delakoan nago. Horrek du noski
esplikatzen
figura mirarizko hori horrela armaturik agertzea
gu guardian gaudela, gerra hauen zioa zen eta
den
erregearen itxura bete-betean.

HORAZIO

Horra fits bat gogamenaren begia larritzeko gai.
Bere goren gradura loratua zelarik Erroma,
Julio ezinago ahaltsua erori aurretixe,
hustu egin zituan hilobiak, eta beztiduradun
hilak
orro-garrasika zebiltzan hango karriketan,
izar su-jario, odol-ihintz, eguzkiko
asturu gaitzen pean; eta ilargi ezkoa, berriz,
Neptunoren erresuma meneko zaion argizagi
hori,

ia azken beltzeraino zetzan eklipseak jorik.
Eta gertakari izugarrien zantzu berdinak
dizkiete

—halabeharren aurremandatari gisa,
eta datorkeen zorigaitzaren aitzin-solas—
zeruak eta lurrak, elkar harturik,
gure lur-bazter eta herritarrei agerrarazi.

2

Atsedetik gabeko parranda buru-astunok
beste herrien zeresana eta gaitzespena
dakarkigute.

Mozkorti izena eransten digute, eta zerrien pare
gaituzte jartzen; eta, hain zuzen, horrek die
kentzen

gure lorpenei, nahiz gorenak izan berez,
merezimendu-sonaren muin eta mamia.
Hala, sarri egokitzen zaie zenbait giza banakori,
beren baitako gaizbide berezkoren bategatik,
kasurako jaiotzaz (zeinaz ez baitira errudun,
zeren biziak ez baitezake hauta bere jatorria),

izamolde baten hazkunde gehiegiaz (maiz baitu
halakok
arrazoiaren babes-hesiak lurjoarazten)
edo jokabide onesgarriak neurritz gain
putzarazten dituen azturaren bategatik...
Halako gizonengan, diot, akats batez
markaturik baitaude
—naturaren gaitz-ondo izan hura, zein
fortunaren izar-begi—,
bertuteak ere (grazia bezain puruak izanik ere,
gizonak dezakeen bezain infinituak) berdin dira
iritzi orokorrean ustelkeriaz kutsatuko,
delako huts horrexegatik. Gaitz tanta batek
zalantzaz zikintzen du sustantzia jator guztia,
bere eskandalagarri.

3

Lekuak berak du etsi larriz betetzen,
gehiagorik gabe ere, labar goratik
itsasora begiratzen duenaren burua,
behean haren orroa entzunez.

4

zentzuzkoa bezain ezta, eta, alde nabarmenez,
egokia areago fina baino.

5

Maitasuna handi denean, hara, zalantza
txikiena da beldur;
beldur txikiak handi direnean, berdin handi
maitasuna segur.

6

etsi gaiztora bitez bertan itzul ene uste eta
esperantzak;
ermitau baten atxilo-bizitza bekarkit zoriaren
mudantzak;

7

Zentzuaren jabe zara noski,
bestela ez zinateke mugitzeko gai. Baina,
antza, zentzu hori
elbarri zurrun dago; zoramema ez bailihoake
hain deslai,
zentzua sekula ez baita agitu hain eromenaren
mende,
non ez duen gorde bereizmen poxiren bat
halako aldea ikusteko.

8

Begi sentipen gabeak, sentipen ikuste gabea,
belarri esku-begirik gabeak, usaimen oro-
peitua;
zinezko zentzu baten arrasto erkin bat ere
ez litzateke hain soraio.

9

Ohitura, munstro zentzu ororen jale hori,
bere deabruan, aingeru da haatik horretan,
ezen onezko ekintza jatorren bidetik joz gero,
bergisan ohitzen gaitu egokitasunera,
jantzi eroso batera nola.

10

hurrena errazago;
gai baita aztura berezko izaera aldatzeko,
deabrua baitezake lotsaraz zein kanpora iraitz
indar miragarritz.

11

Hitz bat gehiago, ama andrea.

12

HAMLET

Zigilu eta guzti; eta ene bi eskolakideak dituzte
jarri
—zeinez sugedorri mihiztodunez beste fida
bainaiteke—
aginduaren kargu; hala aise bidera bainazakete
narraska
doilorkeriara. Betor behar duena. Jostagarri
baita kanoigilea
bere bonbak zartarazia gertatzea: ikaragarriren
bat ez badut
traba, baietz nik, beren minak azpitik minatu,
eta
eztanda batez igorri biok ilargiraino hegaka.
Bai atsegina, buruz buruko bi buru argiren
talka!

13

GERTRUDE

Utz gaitzazue bakarrik, otoi, une batez.

14

[Hala, agian, kalumniak,] zeinaren
munduaren alderik aldeko marmarrak,
kanoia aurrez aurreko xedera bezain xuxen,
bere zartako zitala baitakar, huts egingo ahal
dio
gure izenari, eta aire zaurigabea jo.

15

KLAUDIO

Ai ene, ai ene!

HAMLET

Gizon batek arrantzan egin dezake errege
batetik jan duen harrarekin,
eta har horretatik elikatu den arrainetik jan.

HAMLET, ROSENKRANTZ [GILDENSTERN] eta beste batzuk sartzen dira.

HAMLET

Jauna, noren indarrak dira hauek?

KAPITAINA

Norvegiako erregerenak, jauna.

HAMLET

Eta zer jomugarekin helduak, otoi?

KAPITAINA

Poloniaren zati bat gudukagai.

HAMLET

Nor dute buru, jauna?

KAPITAINA

Norvegiako errege zaharrare iloba, Fortinbras.

HAMLET

Poloniaren zati nagusia da gudukagai, ala mugaren bat?

KAPITAINA

Egia esateko, eta deus gehitu gabe, izenaz beste etekinik ez daukan lur mokortxo bat dugu eskuratzeko.

Bost dukaten aldera ere ez nuke nik alokatuko;
eta
ez baitio emango Norvegiar zein Poloniar
erregeari
hortik harakorik, jabetzan salgai ateraz gero
ere.

HAMLET

Orduan, Poloniako erregeak ez du defendatuko.

KAPITAINA

Bai, han dira dagoeneko osteak.

HAMLET

Bi mila arima eta hogeit mila dukat ez dira
huskeria horren kontua erabakitzeke aski.
Horra ongi izate eta bake luzearen hanteria,
barnean baita lehertzen, eta ez azaleratzen
zergatik den hiltzen gizona. Apalki milesker,
jauna.

KAPITAINA

Jainkoak guarda, jauna.

Badoa

ROSENKRANTZ

Badator gurekin orain berori, gure jaun ona?

HAMLET

Berehalaxe. Zoazte zuek aurretik, bet-betan
noa.

Badoaz guztiak, HAMLET izan ezik.

Nola nauten gertaldi guztiek salatzen, eta
ene mendeku nagia akuilatzen! Zer da gizona,
beste helbururik eta onurarik ez badu bizian,
lo egin eta elikatzea baino? Piztia hutsa.
Noski halako gogo-zabal egin gintuenak,
atze-aurreen so egile, ez zigun eman
gaitasun eta jainkozko arrazoimen hori
erabiltzeke lizun zedin gugan. Bada, dela
animaleko ahanzturaz, zein gogoratzearen
gogoratzezko eskrupulu kikilen bategatik—
zeinak,,
laurdenkaturik, parte bakarra baitu zuhurtziatik,
eta hiru bai beldurretik— ez dakit zergatik
oraino bizi naizen esanez egiteko dela hori,
bai baitut kausa, gogo, indar eta modu, baiki,
egiteko? Etsenplu nabarmenik badut begi-
bistan:
horra armada hori, halako jas eta muntakoa,

printze delikatu eta xamur bat duela buruzagi,
zeinaren izpirituak, handinahi jainkozko batek
haizatua,
destaina-imintzioak baitegizkio gertakizun
igarrezinari,
gogotsu utzirik hilkor eta ziurgabe dena
halabehar, heriotza eta arrisku ororen esku,
arrautza-oskol batengatik. Handi izatea, benaz,
ez da zirkinik ez egitea zio handirik ezean,
baizik
handiro aurkitzea lehia-gaia huskeria batean,
ohorea delarik jokoan. Zertan nago, bada, ni,
zertan, aita baitidate hil, eta ama zikindu,
ene buru eta odolaren asaldagarri latz,
eta lo zorroan? Neure lotsagarri baitakuskit
hogeita mila gizon hortxe heriotzara bidean,
ospe-kontu fantasia hutsezko bategatik,
oheak bailiran beren hilobiak, osteak hartzeko
aski zabal ez den sailtxo batengatik borrokan,
zeina ez baitateke lurpe eta ehortzoki nahikoa
hantxe zerraldo erorientzat? Hemendik aurrera,
hara,
odoltsu betor ene oldea, edo bestela hutsa da.

Badoa.

LAERTES

Ene jauna, men egingo dut;
 nahiago, haatik, modua bila baleza berorrek
 ni izateko hartarako tresna.

KLAUDIO

Hain zuzen ere.
 Zure atzerri aldian asko hitz egin da zutaz
 —eta Hamlet entzule zelarik— distiraz zarela-
 etata
 trebetasun batean gailentzen. Zaren guztiak
 ez dio osotara halako bekaitzik erauzi,
 nola baitio tasun bakar eta, ene aburuz,
 mailarik xumeeneko horrexek.

LAERTES

Zer tasun da hori, ene jauna?

KLAUDIO

Xingola huts bat gaztaroaren kapelan,
 egokia, hala ere; gaztaroari ez baitoakio
 gutxiago
 bere kirol jantzi alai-arin eta ezaxola,

adin pausatuari arropa ilun dotorea baino,
zentzu eta seriotasunaren adierazgarri.

18

Bere herriko ezpatalariak, zin egin zuen
ez direla, ez mugimendu, ez guardia, ez begiz,
zurekin alderatzeko gai.

19

Bizi baita maitasuna den kandela izekiaren
erdian
argi-muki moduko bat, hura moteldu nahi
duena;
eta deusek ez baitirau ontasun berdin-
berdinean;
ezen ontasuna, handituz handituz, azkenean
bere gehiegian berean da hiltzen. Egin gogo
duguna,
orduantxe behar dugu egin; aldakor baita
«gogo» hori,

eta badu maiz motelaldi eta atzerapenik,
hainbat
nola munduan mihirik, eskurik, ezbeharririk: eta
orduak
hasperen xahutzaile halako da «behar» hori,
lasaigarri mingarri. Gatozen, baina, gaitzaren
muin bizira.

20

Jauna, etorri berri da gortera Laertes. Bene-
benetako
zaldun fina, guztizko ezaugarri bikainez betea,
tratu gozo eta itxura dotorekoa. Hain zuzen,
zintzo esateko,
jatorri onaren eredu eta jarraibidea; harengan
baita biltzen
zaldun jator orok bere nahi lukeen zeinahi ere
alderdi.

HAMLET

Jauna, zaldun horren irudikabideak ez du
erturarik nozitzen zure ahoan; nahiz badakidan
noski

haren dohainak atalez atal emateak
oroimenaren aritmetika
aztoratuko lukeela, eta, halarik ere, aldaroka
jardutea baino
ez litzatekeela, haren ibili zoliaren aldean. Hala
ere,
bihotz-bihotzetiko gorespenez, kabida handiko
arimatzat
daukat nik hura, eta haren izpiritua, berriz,
halako bakan
eta berezitzat non, peto-peto esateko, haren
antzekoa
beraren ispilu baita, eta haren oinatzean doana,
berriz,
beraren errainu, besterik ez.

OSRIK

Ez du berorrek hitzik huts egin, baiki, haren
kariaz.

HAMLET

Egokitasuna, aizu!
Zergatik halako jaun fina geure hats
gordinagoan bildu?

OSRIK

Nola, jauna?

HORAZIO (*HAMLETi*)

Ez al da modurik beste hizkuntza-molde batean
ulertzeko?

Saiatu behar luke berorrek, benetan.

HAMLET

Zertara dator delako jaun horren aipamena?

OSRIK

Laertesena?

HORAZIO

Hustu zaio dagoeneko poltsa:
horra urrezko hitz guztiak gastatu.

HAMLET

Harexena, bai.

OSRIK

Badakit ez zarela ezjakitun ...

HAMLET

Nahi nuke, bai, bazeneki. Eta, horratik, hala
balitz,
alferrik samar nuke. Tira, zer zinen esateko?

OSRIK

Jakinaren gainean zaude nolako bikaina den
Laertes...

HAMLET

Ez naiz ausartzen hori aitortzera, haren pare ez
jartzearren
neure burua bikainez. Beste inor ongi
ezagutzeko, izan ere,
bere burua behar du ezagutu gizonak.

OSRIK

Arma kontuan, esan nahi dut. Harekin arituek
ematen dioten sonari kasu egitera,
paregabea da ezpatarekin.

21

HORAZIO

Banekien albo-oharretara jo beharko zuela
berorrek azkenerako.

GORTE-GIZON bat sartzen da.

GORTE-GIZONA

Ene jauna, bere Maiestateak gomendatu nau
 berorregana
 Osrik gaztearen bitartez, zeinak mandatua itzuli
 baitio
 aretoan egongo dela berori haren zain. Jakin
 nahi du ea
 gogotsu dirauenentz berorrek oraintxe
 Laertesekin jokatzeko,
 ala denbora gehiago behar duen.

HAMLET

Leial natzaie ni neure burubideei. Erregeren
 esanera nago.
 Haren komenentzia nora, haraxe gertu enea,
 une honetan
 zein noiznahi, orain nagoen bezain gai naizen
 ber.

GORTE-GIZONA

Errege-erreginekin guztiak hona bidean dira.

HAMLET

Aldi onean.

GORTE-GIZONA

Erreginak nahi luke jokoari ekin aurretik
adeitasun-erakutsi zerbait bazenegio Laertesi.

HAMLET

Aholku ona haren aldetik.

[Badoa GORTE-GIZONA.]